- **Donostia / San Sebastián cuenta con una infraestructura viaria madura** que no necesita de grandes inversiones en nuevas infraestructuras. Se identifican tres niveles en la red: red ciudad/territorio (facilita las relaciones entre la ciudad y su entorno), red de ciudad (facilita las relaciones entre barrios de la ciudad) y red de barrio (facilita el acceso rodado principal al barrio).
- En el análisis de la red en estos tres niveles identificados se detecta la presencia de una vía de primer nivel en el medio del área urbana; se trata de la GI-20. Esta arteria dificulta el funcionamiento de ciertos tejidos de la ciudad entre el nudo de Añorga y el nudo de Herrera y supone una discontinuidad y efecto barrera que genera distorsiones urbanas sobre todo entre Riberas y Loiola y entre Intxaurren Sur y Norte.
- En la red ciudad/territorio, se identifican algunas áreas de oportunidad a escala supramunicipal en las intersecciones de las grandes arterias de tráfico: entre la AP-1 y la A-1 en Lasarte-Oria y con la A-15 Astigarraga.
- Algunos de los nudos de relación entre la red ciudad/territorio y la red de ciudad ocupan una superficie poco optimizada y que generan importantes disfunciones en su entorno; nudo de Añorga, nudo de Loiola y nudo de Herrera.
- La red de ciudad se encuentra estructurada a pesar de algunas dificultades en algunas partes de la red: atraviesa el centro y es deficiente en Altza. Se identifican también algunas áreas a revisar dentro de la red de ciudad, como la zona de Pio XII, Errotaburu o Ametzagaña.
- La red de barrio se encuentra completa salvo en algunos tejidos donde parece interesante trabajar la permeabilidad de algunos de estos viarios: por ejemplo, en Juliamasenea o en Oleta.







**Hesiak bide sarean**      **Barreras en la red viaria**  
 Kanpo korapiloak      ● Nudos exteriores  
 Hesi linealak      — Barreras lineales

**Hesiak bide-sarean**  
**Barreras en la red viaria**



## HELBURUAK

- **Hiri dualaren euskarriaren berriaskotasuna aintzartzea**, bere mugikortasun-sistema baldintzatzen baitu.
- **Mugikortasun osasuntsuaren alde egitea**, oinezkoak eta bizikletak batez ere.
- Mugikortasun metropolitarraren **sare eraginkor baten bidez, udalerrria eskualdeko burutzat jotzea**.
- Pertsonen eta merkantzien mugikortasuna antolatzea **superetxadien** sare hierarkizatu batean oinarrituta.
- **Salgaien hiri logistika berriaren beharrei** eta beharrezko eskakizunei **erantzutea**.

## IRIZPIDEAK

- **Kale nagusien bide-egitura definitzea**, hiri-trafikoa sare nagusitik tokiko sarera banatzeko, eta gainerako kaleak etxebizitzetara sartzeko elementu gisa uztea, baketutako bide-espazioen bidez.
- **Bizikleten zirkulazioa sustatzea**, beste ibilgailu batzuekin partekatutako ibilbideen bidez.
- **Ardatz zibikoen eta kale berdeen sarea ezartzea**, pasealeku berdeen sare baten bidez, eguneroko erabilera ahalbidetzeko eta udalerriko mugikortasun-erakargune nagusiak eta mugikortasuna eratzen duten gunen nagusiak motorizatu gabeko moduetan lotzeko. Kale berdeen sare berriak nodo berdeak eta auzoak lotuko ditu eta mugikortasun osasungarriaren eguneroko erabilera eraginkorra bultzatuko du (osasunaren aldeko apustua, pertsonak egunero kale berdeetatik mugitzeko aukera).
- **GI-20ko by-passaren jarduketak askatutako lurzorua erantzako izaera berria definitzea**, eta bide-azpiegitura azpiegitura grisak sortutako etenak gainditzeko aukera bihurtu.
- **Hiri dualeko lotura bigunak eratzen jarraitzea**, hiriko etadura topografikoak gainditzeko, zailtasun topografiko handieneko zatiak lotzearen aldeko apustua eginez oinezkoentzako nodoetan.

## OBJETIVOS


- Reconocer la **especificidad característica de soporte de la ciudad dual** que condiciona su sistema de movilidad.
- Apostar por la **puesta en carga de la movilidad saludable**, principalmente a pie y en bicicleta.
- Reconocer el **carácter de cabecera del municipio a través de una red de movilidad metropolitana** efectiva.
- Ordenar la movilidad de las personas y las mercancías en base a una malla jerarquizada de **supermanzanas**.
- **Atender las necesidades de la nueva logística urbana** de las mercancías y sus requerimientos necesarios.

## CRITERIOS

- **Definir una estructura vial de calles principales** que distribuyan el tráfico urbano desde la red principal hasta la red local, dejando el resto de las calles como elementos de acceso a las viviendas, mediante espacios viarios pacificados.
- **Potenciar la circulación de bicicletas** mediante itinerarios compartidos con otros vehículos.
- Establecer una **red de ejes cívicos - calles verdes**, a través de una red de paseos verdes, que permitan su uso cotidiano y que conecten los principales polos de atracción y generación de movilidad del municipio en modos no motorizados. La nueva red de calles verdes conectará los nodos verdes y los barrios y favorecerá el uso cotidiano efectivo de la movilidad saludable (apuesta por la salud, personas que pueden moverse todos los días por calles verdes).
- Definir un **nuevo carácter para el suelo liberado por la actuación del by-pass de la GI-20**, transformando la infraestructura viaria en una oportunidad de superar las discontinuidades creadas por la infraestructura gris.
- **Continuar con la formación de conexiones blandas de la ciudad dual**, que permitan superar las discontinuidades topográficas de la ciudad, apostando por las conexiones de las partes de mayor dificultad topográfica en nodos peatonales.

- Mugikortasun biguneko/osasungarriko/ekologikoko zeharkako harremanen ezarpena indartzea, trenbide-sarearen eta saihebiderearen izaera berriaren bidez.
- **Oinezkoentzako eta bizikletentzako berderako atek antolatzea** (ate horien funtzio pedagogikoa, ingurune naturala hurbiltzea eta nabarmentzea, bere garrantzia azpimarratzeko).
- Mugikortasun-azpiegituren lurzorua optimizatzea, lurzorua kontsumitzaile handiak baitira, aukera-espazio gisa, pertsonak plangintzaren erdigunean jarriko dituen urbanitate berri bat sortzeko.
- **Bizikleta bidezko mugikortasunaren sarea zabaltzea**, udal-oztopoak gaindituz, batez ere udalerriko lantoki nagusiekin lotu dadin.
- Aparkaleku-erabilera zentzuz eta koherentziaz arautzea, bai espazio publikoaren gainean, bai eraikinetarako gutxieneko erreserbaren eskakizunean, trantsizio ekologikoaren garaietatik eratorritako mugikortasun berriaren bidez, orain arte gure hiriak antolatu dituen mugikortasun tradizionalaren ordezkotako sistema batean oinarrituta.
- **Salgaien Hiri Banaketa (SHB) arautzea** hiria egituratzen duen sare grisaren gainean, quick commerce-a berez antolatzeari utzi gabe.

- Reforzar el establecimiento de las relaciones transversales de movilidad blanda/saludable/ecológica; a través de la red de ferrocarril; y a través del nuevo carácter de la Variante.
- **Ordenar las Puertas peatonales y ciclistas al verde** (función pedagógica de estas puertas, el acercamiento del entorno natural y su puesta en valor para poner de relieve su importancia).
- Optimizar el suelo de las infraestructuras de movilidad, grandes consumidores de suelo, como espacios de oportunidad para generar una nueva urbanidad que ponga en el centro de la planificación a las personas.
- **Extender la red de la movilidad ciclista** de forma que superando las barreras municipales sobre todo conecte con los principales centros de trabajo de municipio.
- Regular el uso de aparcamiento, tanto sobre el espacio público, como en la exigencia de la reserva mínima para las diferentes edificaciones, de una forma racional y coherente con la nueva movilidad que emana de los tiempos de la transición ecológica basado en un sistema alternativo al de la movilidad tradicional que hasta la fecha ha ordenado nuestras ciudades.
- **Regular la Distribución Urbana de Mercancías (DUM)** sobre la red gris que estructura la ciudad sin dejar que el quick-commerce se ordene espontáneamente.







### 1.3. EKIPAMENDUEI DAGOKIENEZ


#### DIAGNOSTIKOA

- Donostiako **ekipamendu-sarea, oro har, sare osoa eta konplexua da**, baina aurreko baieztapena gorabehera, gabezia batzuk antzematen dira hiriko zenbait funtziotan eta kokalekutan.
- **Biztanle bakoitzeko ekipamendu-zuzkidura egokia da:** 17,42 m<sup>2</sup>/bizt. eta 14,43 m<sup>2</sup>/bizt. Gainera, 4.8 m<sup>2</sup>/bizt. daude ekipamendu-erabilerako kalifikazioa ez duten lurzoruetan.
- Bere zatiak espezializatu dituen hiria da, erabilera jakineko ekipamendu-erakargarriekin. Hiriguneak kultura- eta administrazio-ekipamendu handiak biltzen ditu. Ibaetan daude hezkuntza-ekipamendu handiak (unibertsitateak), Anoetan kirol-ekipamendu handiak, eta Miramonen osasun-ekipamenduak.
- **Donostiak ekipamendu-sistema orokorren sare indartsua du**, bai eta hurbileko tokiko sistemen beste sare bat ere, hiri osoan uniformeki banatuta. Sareak osagai hauek ditu:
  - Hezkuntza-zentroak.
  - Kultura-etxeak eta liburutegiak.
  - Kiroldegia.
  - Osasun-zentroak.


### 1.3. RESPECTO A EQUIPAMIENTOS

#### DIAGNÓSTICO

- **La red de equipamientos de Donostia / San Sebastián, en general, es una red completa y compleja;** no obstante la afirmación anterior, se detectan algunas carencias para determinadas funciones y en determinadas localizaciones de la ciudad.
- **El grado de dotación de equipamiento por habitantes es adecuado,** con 17,42 m<sup>2</sup>/hab calificados y 14,43 m<sup>2</sup>/hab ejecutados. Hay además otros 4.8 m<sup>2</sup>/hab con usos de equipamiento en suelos no calificados como tales.
- Es una ciudad que ha especializado sus diferentes partes, con polos de equipamientos con usos concretos. El centro de la ciudad concentra los grandes equipamientos culturales y administrativos. Ibaeta concentra los grandes equipamientos educativos (Universidades), en Anoeta se ubican los grandes equipamientos deportivos, y en Miramon se encuentran los sanitarios.
- **Donostia / San Sebastián cuenta con una potente red de sistemas generales de equipamientos,** y otra red de sistemas locales de cercanía, distribuida uniformemente por toda la ciudad. Esta red se compone de:
  - Centros de educación.
  - Casas de Cultura y bibliotecas.
  - Polideportivos.
  - Centros de salud.











- Ekipamendu horiek guztiak era berean banatzen dira hirian, nahiz eta, horietako hainbat ibai-hirian bildu, irisgarriena eta dentsitate handienekoa baita.
- **Ekipamendu-sarea, oro har, titulartasun publikokoa da**, nahiz eta ekipamendu horietako asko erabilera-lagapenean egon, eta, beraz, kudeaketa pribatua izan.
- **Hezkuntzaren esparruan, sare pribatu-itunduak indarra hartzen du** derrigorrezko prestakuntzaren maila aurreratuetan. Horrek desorekak sortzen ditu, ikastetxe horiek ez baitaude gunen nagusi eta irisgarrietan, ikastetxe publiko gehienek egiten duten bezala.
- **Ekipamenduetarako lurzoru-erreserbak mugatuak dira, eta, oro har, aldiriko posizioetan biltzen dira.** Horietako asko espazio libre gisa urbanizatuta daude, eta beste batzuk sarbide mugatuko eremuetan edo eremu konplexuetan daude (biribilgunetako barrualdeak, malda handiko eremuak, urbanizatu gabeko sektoreak).
- **Hego-ekialdeko arkuak da hurbileko ekipamenduen gabezia handienak dituenak**, bere muino-topografia eta dentsitate txikiko tipologiak direla eta.
- Hiri osoan erreferentzia edo esanahi handiena duten ekipamenduen banaketari dagokionez, ikusten da Ekialdeko barrutiak dituela gabezia handienak hiri- edo metropoli-garrantziko ekipamenduei dagokienez.
- Ekipamenduei buruzko informazio sistematizatu kontuan hartuta, zenbait gabezia antzeman dira Ekialdeko barrutiko kultura- eta kirol-ekipamenduei dagokienez, bai eta hiriaren erdialdean dauden hezkuntza- eta kirol-ekipamenduei dagokienez ere.
- Todos estos equipamientos se distribuyen uniformemente por la ciudad, si bien se concentran a veces en la "ciudad fluvial", la más accesible y densamente poblada.
- **La red de equipamientos es por lo general de titularidad pública**, si bien muchos de estos se encuentran en cesión de uso, por lo que su gestión es privada.
- En el ámbito de la **educación, la red privada-concertada gana peso** en los niveles más avanzados de la formación obligatoria. Esto genera desequilibrios, pues estos centros no suelen ubicarse en posiciones centrales y accesibles como sí lo hacen la mayoría de los centros públicos.
- **Las reservas de suelo para equipamientos son limitadas y se concentran, por lo general, en posiciones periféricas.** Muchas de ellas están urbanizadas como espacios libres, y algunas otras están en zonas de acceso restringido, o complejo (interiores de rotonda, zonas con pendientes pronunciadas, sectores no urbanizados...).
- **El arco sureste es el que mayores carencias de equipamientos de cercanía tiene**, debido a su topografía colinar y sus tipologías de baja densidad.
- Con respecto a la distribución de los equipamientos de mayor referencia o significación en el conjunto de la ciudad se advierte que el Distrito Este es el que presenta mayores carencias en lo que respecta a equipamientos de relevancia urbana o metropolitana.
- De la información sistematizada con respecto a los equipamientos se observan ciertas carencias en cuanto a equipamientos culturales y deportivos en el Distrito Este, así como de equipamientos educativos y deportivos en la zona central de la ciudad.

## HELBURUAK

- **Hiriko ekipamenduen estandarra mantentzea eta hobetzea**, publikoak eta pribatuak sistema integratu batean sartuz.
- **Beharrei modu orekatuan erantzutea**, oinarritzko bi adierazle kontuan hartuta: funtzioa eta eskala.
- Tamaina-behar handienak dituzten **ekipamenduen kokapen egokia bermatzea: hezkuntzakoak eta kirolekoak.**
- **Udal-garrantziko ekipamenduen hiri osoan zehar izatea, zentzuz eta nahita.**
- **Ekipamendu publikoen sarean funtzioen aniztasuna bultzatzea**, horien monokultiboa saihestuz.
- **Donostiako kultura-ekipamenduen sarea indartzea, haren indargune nagusietako bat baita.**
- **Ekipamendu pribatuak hirigintza-ekipamenduen sarean sartzea.**

## OBJETIVOS

- **Mantener y mejorar el estándar de equipamientos de la ciudad**, incorporando los públicos y privados en un sistema integrado.
- Atender de forma equilibrada la **cobertura de necesidades en atención a dos indicadores básicos: función y escala.**
- Garantizar la **adecuada localización de los equipamientos con mayores requerimientos dimensionales: educativos y deportivos.**
- Disponer **equipamientos de relevancia municipal de forma racional e intencionada** en el conjunto de la ciudad.
- Favorecer la **diversidad de funciones en la red de equipamientos públicos**, evitando el monocultivo de estos.
- Potenciar la **red de equipamientos culturales de Donostia / San Sebastián, como una de sus principales fortalezas.**
- **Integrar los equipamientos privados** dentro de la red de equipamientos urbanísticos.



## IRIZPIDEAK


- **Auzo-bihotzei estaldura nahikoa ematea**, hurbileko ekipamenduen potentziala erabiliz, **hiri polizentrikoa** osatzeko, eguneroko erabilerei dagokienez. Plaza baten inguruan elkartzeak edo ardatz batean zehar kateatzeak ekipamendu-, merkataritza- eta zerbitzu-inguruneak sor ditzakete, hiriko ingurune desberdinak dinamizatzeko. Estrategia ingurune bakoitzera egokitu beharko da, eta ingurune horren ezaugarri formalek, tipologikoen eta sozialek baldintzatu egingo dituzte hartu beharreko neurriak.
- Komunitate-ekipamenduak hirian zehar banatzea, herritarren bizitzarako beharrezkoak diren zerbitzu jakin batzuk emateari lotutako faktoreei erantzuteaz gain, eta bereziki, espazioak eta ibilbideak beste erabilera edo ezarpen batzuen gainetik gaitzeko duten gaitasun estrategikoari erantzunez.
- Herritarrentzako zerbitzuen beharrei erantzungo dieten **ekipamenduen kokapena zehaztea**, oinarrizko bi irizpide kontuan hartuta: **funtzioa eta eskala**. Funtzioa pertsonen eta herritarren behar sektorialen multzoari erantzuten dio (irakaskuntza, osasuna, kultura kirolak, gizarte-arreta, administrazioa eta segurtasuna), bereziki kontuan hartuta antzemandako segurtasunari, generoari eta adinari buruzko adierazleak. Eskala ekipamenduaren zerbitzu-mailari dagokio (hurbiltasuna eta erreferentzia).
- **Egungo zuzkidurak osatzea**, biztanleria-egoera desberdinek dituzten beharizan berrien arabera, aldi berean gune batzuk zahartzen ari baitira, beste batzuk gaztetzen, eta beste batzuk, berriz, erdibidean daude, eta, ondorioz, bestelako eskari eta interesak agertu dira, eta lehen zeuden beste batzuk desagertu.

## CRITERIOS

- **Dotar de cobertura suficiente a los corazones de barrio**, utilizando el potencial de los equipamientos de cercanía para conformar **una ciudad policéntrica** en cuanto a los usos cotidianos se refiere. La agrupación en torno a una plaza o la concatenación a lo largo de un eje, pueden generar entornos equipamentales, comerciales y de servicio, que dinamicen los diferentes entornos de la ciudad. La estrategia tendrá que adaptarse a cada entorno, cuyas características formales, tipológicas y sociales condicionan las medidas a adoptar.
- **Distribuir las piezas de equipamiento comunitario** dentro del contexto urbano respondiendo no sólo a los factores relacionados con la cobertura o prestación de determinados servicios necesarios para la vida ciudadana, sino también y muy particularmente, **a su capacidad estratégica de cualificar a los espacios y recorridos** por encima de otros usos o implantaciones.
- Determinar el **emplazamiento de los equipamientos** que garanticen cobertura de las necesidades de servicios a la ciudadanía **en atención a dos criterios básicos: función y escala**. La función corresponde al conjunto de necesidades sectoriales de las personas y la ciudadanía (enseñanza, sanidad, cultura deportes, atención social, administración y seguridad), con especial atención a los indicadores referentes a seguridad, género y edad que se identifiquen. La escala corresponde al radio de servicio del equipamiento (proximidad y referencia).
- Complementar las **dotaciones actuales en función de las nuevas necesidades que ofrecen los diferentes escenarios de población**, ya que, por un lado, la población donostiarra padece simultáneamente de envejecimiento en algunas zonas y rejuvenecimiento en otras, y, por otro lado, nos encontramos con el fenómeno de contemporaneidad, con la aparición de nuevas demandas e intereses y la desaparición de otras.

- Espazioak ekipamendu publikoen arabera kokatzea, zerbitzu-mailaren arabera: hurbiltasuna eta erreferentzia, egoiliar berrak doazela bermatzeko eta bizilagunen eta gainerako herritarren artean harremanetarako gune soziala sortzeko. **Ekipamenduak harremanetarako eta komunikatzeko oinarrizko espazioak dira**, eta beharrezkoa da ekipamenduentzako lurzorua gordetzea egoiliar berriei zerbitzua emateko (irakaskuntza, kirola eta zerbitzu zibikoak) eta topagune izateko, baita hiriko gainerako bizilagunekin harremanetarako gunea izateko (kultura, osasuna, administrazioa, segurtasuna).
- **Intentsitate, konplexutasun eta banaketa orekatuaren irizpideak bermatzea**: Ekipamendu eta zerbitzu publikoen beharrezkoak hiri finkatuaren gabeziei eta egoiliar berriei sortutako beharrezkoak erantzungo diete.
- **Komunitate-ekipamenduak inguruko espazio libreakin eta, horien bidez, udalerriko gainerako ekipamenduekin lotzen saiatzea**, gizarte-jarduerarako eta bizi-kalitaterako sistema argia sortzeko.

- Localizar los espacios por equipamientos públicos según radios de servicio: proximidad y referencia que garanticen la asistencia a las nuevas personas residentes y que generen espacio social de intercambio entre las personas vecinas y el resto de la ciudadanía. **Los equipamientos son el espacio básico de relación y transferencia de comunicación**; es necesario que la reserva de equipamientos sea espacio de relación y servicio para los nuevos residentes (enseñanza, deporte y servicios cívicos) y espacio de intercambio con el resto de los vecinos de la ciudad (cultura, sanidad, administración, seguridad).
- **Garantizar los criterios de intensidad, complejidad y distribución equilibrada**: las necesidades de equipamientos y servicios públicos atenderán a los déficits de la ciudad consolidada y a la propia atención de necesidades generadas por los nuevos residentes.
- **Procurar la interconexión de los diferentes equipamientos** comunitarios con los espacios libres de su entorno y, a través de éstos, con los demás equipamientos del municipio, para crear un claro sistema de actividad social y calidad de vida.







- Ekipamendu-funtzioetara zuzendutako lurzorua antolatzea, **antolamendu berrietan hainbat egoera bilatuz**: ekipamendu publikoetara soilik bideratuta ez dauden arkitekturen zati izan, antolamenduan erabilera anitzeko etxadiak eratu, edo lurzoru publikoen sistemara soilik bideratutako kokaleku isolatuetan kokatuz, xedearen egokitasunaren arabera.
- **Ekipamenduak hainbat motatako lurzoru-premien arabera dimentsionatzea**, ekipamenduaren dimentsioaren eta zerbitzu-mailaren artean zuzeneko zerikusia ez dagoela kontuan hartuta; izan ere, neurri txikiko ekipamenduek zerbitzu-eskala handia izan dezakete, eta tamaina handiko ekipamenduek, berriz, zerbitzu-eskala askoz ere txikiagoa.
- Hiri-eraldaketako eragiketak aprobetxatzea ingurune berriei estaldura emateko eta finkatutako hiriaren gabeziak osatzeko. Jarduketa horietan, erabilera mugatua duten edo asteko egun jakin batzuetara mugatuta dauden ekipamenduen **funtzio aniztasuna bultzatzea** (adibidez, eskoletako kirol-eremuak asteburuetan erabiltzea).
- HAPO berriaren proposamenek ekipamenduen alderdi kuantitatiboak ez ezik, alderdi kualitatiboak ere hartu beharko dituzte kontuan, eta horien arteko lotura bilatu beharko dute espazio publikoaren bidez, **jarduera sozialeko eta bizi-kalitateko sistema bat sortzeko**.
- **Ekipamenduetarako irisgarritasun unibertsala bermatzea**, eta, bereziki, egunerokoak, herritar guztientzat irisgarriak izatea. Beraz, mugikortasun bertikaleko sarea funtsezko elementua da premisa hori bermatzeko.

- Disponer los suelos destinados a las funciones de equipamiento **buscando una variedad de situaciones en las nuevas ordenaciones**, ya sea formando parte de las arquitecturas no destinadas exclusivamente a equipamientos públicos, integrándose en la ordenación formando manzanas mixtas de funciones o ubicándose en emplazamientos aislados destinados exclusivamente al sistema de suelos públicos, según la idoneidad de su destino.
- **Dimensionar los equipamientos atendiendo a necesidades de suelo de naturaleza diversa**, bajo el criterio de que no existe una correspondencia directa entre dimensión del equipamiento y radio de servicio de este, ya que equipamientos de tamaño reducido pueden tener una gran escala de servicio y los equipamientos de gran dimensión pueden llegar a tener una escala de servicio muy inferior.
- Aprovechar las diferentes operaciones de transformación urbana, para dar cobertura tanto a los nuevos entornos así como complementar las carencias de la ciudad consolidada. **Favorecer** en estas actuaciones la **multifuncionalidad** de aquellos equipamientos que tienen un uso acotado a una franja horaria o limitado a unos días concretos de la semana (por ejemplo, utilización de las zonas deportivas de las escuelas durante los fines de semana).
- Las propuestas del nuevo PGOU deberán tener en cuenta no sólo los aspectos cuantitativos, sino también los cualitativos de los equipamientos, buscando la interconexión entre ellos a través del espacio público a fin de **crear un sistema de actividad social y de calidad de vida**.
- **Garantizar la accesibilidad universal a los equipamientos**, y en especial los cotidianos, han de ser accesibles a toda la ciudadanía, por lo que la red de movilidad vertical es un elemento fundamental para garantizar dicha premisa.

## 1.4. ETXEBIZITZARI DAGOKIONEZ

### DIAGNOSTIKOA

#### ETXEBIZITZAREN ETA BIZTANLERIAREN ADIERAZLEEN DIAGNOSTIKOA

- 2022an, guztira, **95.098 etxebizitza** zeuden Donostian.
- Hiriak, urteko **800 etxebizitza eraiki ditu batez beste 2001-2022 urteen bitartean**, eta hori higiezin ekoizpenaren erritmo bizitzat jo daiteke, 1.000 biztanleko etxebizitzetan neurtzen den etxebizitzen ekoizpen erlatiboari dagokionez.
- Donostiako etxebizitzen ekoizpen erlatibo hori, urtean 1.000 biztanleko eraikitako etxebizitzei dagokionez, aldatu egin da XXI. mende honetan. **2001-2008** epealdian, batez beste **7,97 etxebizitza zeuden 1.000 biztanleko**; hala ere, **2021eko datuen arabera**, batez besteko ekoizpen hori **3,45 etxebizitza/1.000 biztanleko** izan da. Aztertutako epealdi osoan, Donostiak beti izan du etxebizitza-ekoizpenaren batez bestekoa autonomia erkidegoko batez bestekoa baino handiagoa.
- Biztanleriaren eta etxebizitzaren bilakaerari buruzko datuei dagokionez, **2016-2021** epealdian, datuak **0,61 biztanle berri/etxebizitza berri ziren**. Aurreko aldian (2011-2016), **-0,86 biztanle berri/etxebizitza berri** zeuden, biztanleria-galera zela eta.
- Bi parametro horiek bat ez etortzeak **etxebizitzaren erabilera arruntean disfuntzio bat dagoela** pentsatzera gonbidatzen gaitu, izan ere, badirudi haien helburu nagusia ez dela jada hiriaren beraren eta bertako egoiliarren eskari endogenoari erantzutea.

## 1.4. RESPECTO A VIVIENDA


### DIAGNÓSTICO

#### INDICADORES DE VIVIENDA Y POBLACIÓN

- En el año 2022, se censan en Donostia / San Sebastián un total de **95.098 viviendas**.
- La ciudad presenta una producción inmobiliaria de vivienda nueva equivalente a **800 viviendas/año (2001-2022)**, lo que se puede considerar un ritmo intenso de producción inmobiliaria, con respecto a la producción relativa de viviendas que se mide en viviendas por cada 1.000 habitantes.
- Esta producción relativa de viviendas en Donostia / San Sebastián, sobre la construcción de viviendas por año por cada 1.000 habitantes, ha variado su perfil a lo largo de este siglo XXI. En el periodo **2001-2008**, se situaba en una media de **7,97 viviendas/1.000 habitantes**, sin embargo, de acuerdo con los datos de **2021**, esta producción media se ha situado en **3,45 viviendas/1.000 habitantes**. En todo el periodo analizado Donostia / San Sebastián siempre ha presentado una media de producción de vivienda por encima de la media de la comunidad autónoma.
- En cuanto a datos de evolución de la población y vivienda, en el último periodo **2016-2021**, los datos se situaban en **0,61 habitantes nuevos/nueva vivienda**. En el periodo anterior (**2011-2016**) se situaban en **-0,86 habitantes nuevos/nueva vivienda**, por la pérdida de población.
- La no concordancia de ambos parámetros invita a considerar **que existe una disfunción en el destino y utilización ordinaria de la vivienda**, pues su fin principal no parece ya ser el de atender la demanda endógena de la propia ciudad y sus residentes.








Egiteke dauden BOEK egiteke dauden guztiakin alderatuta



BOE

VPO pendiente comparada con la total pendiente



VPO

Guztira

Total

Etxebizitza  
Vivienda

Hirigunea  
Área urbana

Eskala A3 1/35.000  
Escala





### ETXEBIZITZEN TIPOLOGIA ETA OKUPAZIOA

- Udalerriko **etxebizitza nagusiak** 79.126 dira, **% 83,20**. Okupatu gabeko etxebizitzak eta bigarren bizitexak 15.847 dira, hau da, etxebizitza guztien % 16,16. Gainerako ehunekoa, % 0,14, establezimendu kolektiboei dagokie. Etxebizitza nagusien modalitate guztiak, nagusiak, bizitexak eta hutsik daudenak, oso egonkor mantendu dira aztertutako ia 30 urteko epealdian (datu zehatzak daude).
- **Donostiako etxebizitza nagusien banaketa oso desberdina da**; izan ere, auzo batzuetan etxebizitza nagusia askoz txikiagoa da batez bestekoarekin alderatuta, hala nola Erdialdean etxebizitza nagusia % 70era baino ez da iristen, Antigua % 81era eta Grosen % 80ra. Beste auzo batzuetan, berriz, batez bestekoa baino adierazle nabarmen handiagoak daude, hala nola Altzan (etxebizitza nagusia % 90) edo Aieten (etxebizitza nagusia % 87) eta Intxaurren (etxebizitza nagusia % 86).
- **Etxebizitza batez besteko okupazioa** (familiaren batez besteko tamaina) **2,30 biztanle da** 2022an. Pertsona bakar batek okupatutako etxebizitza ehunekoa nahiko handia da (etxebizitza guztien % 31). Bi pertsonakoa antzekoa da: % 30 inguru. Egoera horrek adierazten du, gutxienez, hiriko bizitegi-parkea gutxiegi erabiltzen dela.
- Bizitegi-parkearen batez besteko antzintasuna 50 urtekoa da.
- Donostiako etxebizitzaren **batez besteko tamaina 85,4 m<sup>2</sup> (s)-koa** da.
- **Hirian, jabetza da etxebizitzaren edukitza-erregimen nagusia (% 79,24)**. Alokairuko etxebizitza % 18,89 da, hau da, bost etxebizitzatik ia bat alokairuan dago. Gainerako % 1,87 jabetza beste edukitza-modalitate batzuei dagokie.

### TIPOLOGÍA DE VIVIENDAS Y OCUPACIÓN

- **Las viviendas principales** del municipio se estiman en 79.126 que **representan un 83,20 %**. El total de viviendas desocupadas y segundas residencias es de 15.847 viviendas, que representan un 16,66 % del total. El porcentaje restante, 0,14%, se corresponde con los establecimientos colectivos. Todas las modalidades de viviendas, principales, secundarias y vacías se han mantenido muy estables en sus porcentajes a lo largo del periodo de los casi 30 años analizados que existen datos detallados.
- **La distribución de vivienda principal en Donostia / San Sebastián es muy desigual**, ya que hay barrios con una presencia de vivienda principal mucho más baja con respecto a la media, como es el caso de Erdialdea, donde la vivienda principal llega tan solo al 70 %, Antigua-Ondarreta con un 81 % y Gros con un 80 %, mientras que hay barrios que presentan indicadores francamente superiores a esta media municipal como Altza con un 90 % de vivienda principal o Aiete con 87 % e Intxaurren con 86 % de vivienda principal.
- La **ocupación media de las viviendas** (tamaño medio familiar) en Donostia / San Sebastián se sitúa **2,30 hab./viv.** en el año 2022. El porcentaje de viviendas ocupadas por una sola persona es considerablemente alto (31 % del total). El de dos personas, es similar: alrededor del 30 %. Esta situación denota cuanto menos, una infrutilización del parque residencial de la ciudad.
- La antigüedad media del parque residencial es de 50 años.
- El **tamaño medio** de la vivienda de Donostia / San Sebastián es de **85,4 m<sup>2</sup> (t)**.
- El **régimen mayoritario de tenencia** en la ciudad es el de la vivienda en **propiedad con un 79,24 %**. La vivienda en alquiler aglutina el 18,89 %, es decir, casi una de cada cinco viviendas se encuentra en alquiler. El 1,87% restante se corresponde con otras modalidades de tenencia de la propiedad.

### ETXEBIZITZA BABESTUA

- 2020an (lizentzien informazio zehatza duen azken urtea), **3.821 etxebizitza daude babes iraunkorreko etxebizitzaren kalifikazioarekin**. Etxebizitza babestu horiek, udalerrian dauden etxebizitza nagusien guztizkoari dagokionez, ez dira % 5era iristen, eta % 4,88 dira.
- **Hiri Elkartasunaren Helburua (HEH)**, Eskari Handia eta Egiaztatua (EHE) duten udalerrietan merkatu tentsionatukotzat jo daitezkeen udalerrietarako (familia-unitate batek etxebizitza bat eskuratzeko egiten duen ahalegin ekonomikoa familia-errenta erabilgarriaren % 35 baino handiagoa denean), etxebizitza babestuko ehuneko jakin bat lortzea helburu duen egitura-neurritzat har daiteke.
- Espainian, onartu berri den, **Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Legeko** bigarren xedapen iragankorren, gizarte-politiketarako etxebizitza-parkearen helburuei dagokienez, honako konpromiso hau ezartzen da erreferentzia orokor gisa: **20 urteko epean, bizitegi-merkatuko zona tentsionatua duten udalerrietan, etxebizitzaren guztizkoaren % 20a gizarte-politikara bideratzea**. Lege horrek Hiri Elkartasunaren Helburua, hurbil daukagun Frantziaren maila berean jarri du.
- Aurrekoaren arabera, irizpide hori Donostiaren kasuan aplikatuz, 15.825 unitateko etxebizitza babestuen parkea egokituko litzateke, eta **horrek egungo etxebizitza babestuak lau aldiz handitzeko beharra ekarriko luke**.

### VIVIENDA PROTEGIDA

- A fecha 2020 (último año con información detallada de licencias), existen con la calificación de **viviendas con protección permanente un total 3.821 viviendas**. Estas viviendas protegidas, con respecto al total de viviendas principales existentes en el municipio, suponen un porcentaje que no llega al 5 % y se sitúa en el 4,88 %.
- El **Objetivo de Solidaridad Urbana (OSU)**, podemos entenderlo como una medida estructural que establece como meta a alcanzar la presencia de un determinado porcentaje de la vivienda protegida, para aquellos municipios que se podrían definir como de mercado tensionado o su equivalencia en municipios de Demanda Fuerte y Acreditada (DFA), que son aquellos en los que el esfuerzo económico de una unidad familiar para acceder a una vivienda es superior un porcentaje en torno a un 35 % de su renta familiar disponible.
- En España con la reciente aprobación de la **Ley 12/2023**, de 24 de mayo, **por el Derecho a la Vivienda**, en su Disposición transitoria segunda, sobre los objetivos en relación con el parque de vivienda destinado a políticas sociales, se establece como referencia general el compromiso de alcanzar, **en el plazo de 20 años, un parque mínimo de viviendas destinadas a políticas sociales del 20 por ciento respecto al total de hogares** que residen en aquellos municipios en los que se hayan declarado zonas de mercado residencial tensionado. Una ley que ha situado este Objetivo de la Solidaridad Urbana al mismo nivel que nuestro país vecino de Francia.
- Según lo anterior, aplicando este criterio al caso de Donostia / San Sebastián, correspondería un parque de vivienda protegida de 15.825 unidades, lo que **supone la necesidad de incrementar por cuatro las viviendas protegidas actuales**.



- 2010. urteko Plan Orokorraren aurreikuspenei kasu eginez gero, eta programaturako etxebizitza publiko osoa eraiki denaren kasua hartuta, 10.249 etxebizitza gehiago (BOE eta ET) bakarrik lortuko lirateke, hau da, OSUK (14.070 etxebizitza) ezarritako etxebizitza publikoaren guztizko helburuaren % 75 inguru. Hala ere, gogoratu behar da indarrean dagoen planean programaturiko etxebizitza babestuaren ia erdia bi eremu periferikotan aurreikusten dela; Antondegi MA.08, sailkapenez kendu nahi dena, eta Aduritz-Akular AL.20, berriz formulatu nahi dena. Hori dela eta, beharrezkoa da udalerriko etxebizitza babestuak planifikatzeko estrategia birpentsatzea eta berriz aztertzea.

#### ETXEBIZITZA PARKEAREN HIGIEZINEN DINAMIKA

- **Azken 30 urteetan (1991-2021), 20.882 etxebizitza gehiago daude udalerrian, 1991. urtearekin alderatuta % 28,17 gehiago.**
- 2001etik 2008ra bitarteko testuinguru orokorrean izandako higiezinaren boomaren eragina oso nabarmena da bizitegi-eraikuntzako jarduera oso handia izan baitzen udalerrian, eta nabarmen gelditu da hurrengo bi bosturtekoetan (% 50ra gutxitzen da), indarrean dagoen HAPOn abiaraztearekin eta indarraldiko lehen urteekin batera.
- Etxebizitza berrien eskaintzari eta indarrean dagoen **Plan Orokorraren dimentsionatuari dagokionez**, aurreikusitako **etxebizitza librearen % 64,24 gauzatu da, baina babes sozialeko etxebizitzari dagokionez, aurreikusitakoaren % 31,68** eta etxebizitza tasatuaren % 4,08 baino ez da gauzatu.
- Plan Orokorraren antolamendu zuzeneko eraikuntza-jarduketari dagokionez, 2010-2020 epealdian etxebizitza berrien 861 eragiketa egin dira guztira. Horien jatorria honako hau da: 1) 308 zatiketetatik eta banaketetatik datoz; 2) 330 erabilera-aldaketetatik datoz; 3) 183 ordezkapenetatik, birgaitze integraletatik eta berrikuntzetatik datoz; eta, azkenik, 4) gainerako 40 jarduerak beste jarduera batzuei dagozkie.

#### ETXEBIZITZAREN MERKATUA

- **Etxebizitza librearen batez besteko erosketaren prezioa 5.387,5 €/m<sup>2</sup>s-koa da.** Aplikagarria den babes sozialeko etxebizitzaren prezio handienarekin alderatuta (babes publikoko etxebizitzaren gehieneko prezioak eta errentak eta zuzkidura-bizitokien kanona zehazteari buruzko 2022ko ekainaren 30eko Agindua), 361 puntuko aldea dago ehunekotan.
- **Etxebizitza libre baten eta etxebizitza babestu baten arteko aldeak antzekoak dira alokairuaren prezioari dagokionez, 300 portzentaje-puntu inguru** (babes sozialeko etxebizitzaren hileko alokairuaren prezioa azalera-eskubidean: 5,84 €/m<sup>2</sup>; merkatu libreko alokairuaren hileko prezioa: 17,50 €/m<sup>2</sup>).

- Si se atiende a las previsiones del Plan General del año 2010, y considerando el supuesto de construcción de toda la vivienda pública programada, se obtendrían solo un incremento de 10.249 viviendas (VPPS y VPPT), lo que aproximaría al 75% el objetivo total de vivienda pública marcado por el OSU (14.070 viviendas). Sin embargo, hay que recordar que casi la mitad de la vivienda protegida programada en el plan vigente, se prevé en dos ámbitos periféricos; MA.08 Antondegi que se propone desclasificar y AL.20 Aduritz-Akular que se propone reformular, lo que hace necesario repensar y reestudiar la estrategia de planificación de la vivienda protegida del Municipio.

#### DINÁMICA INMOBILIARIA DEL PARQUE DE VIVIENDAS

- **En los últimos 30 años (1991-2021), se ha incrementado el parque residencial del municipio en 20.822 viviendas**, un incremento de 28,17 % respecto al año 1991.
- El efecto del boom inmobiliario habido en el contexto general entre los años 2001 a 2008, es perceptible en el municipio con una actividad de construcción residencial muy fuerte, para pararse drásticamente en los dos quinquenios siguientes (se minoró en cada caso un 50 %), coincidiendo con el arranque y primeros años de vigencia del actual PGOU.
- Con respecto al dimensionado del **Plan General** vigente en términos de oferta de nueva vivienda, **se ha ejecutado el 64,24 % de la vivienda libre prevista**; sin embargo, **de la vivienda de protección social sólo se ha ejecutado un 31,68 %**, y de vivienda tasada un 4,08 % de lo previsto.
- Con respecto a las actuaciones edificatorias de ordenación directa del Plan General durante el período 2010-2020 se han realizado un total de 861 operaciones de nuevas viviendas. El origen de estas actuaciones es el siguiente: 1) 308 proceden de divisiones y segregaciones; 2) 330 se corresponden con cambios de uso; 3) 183 son procedentes de sustituciones, rehabilitaciones integrales y reformas; y, finalmente, 4) las 40 restantes se corresponden con otras actuaciones.

#### EL MERCADO DE LA VIVIENDA

- **El precio medio de compra de la vivienda libre en el Municipio se estima en 5.387,50 €/m<sup>2</sup>.** Si establecemos la equidistancia con el precio de la vivienda pública de protección social máximo aplicable (*Orden de 30 de junio de 2022, sobre determinación de los precios y rentas máximas de las viviendas de protección pública y el canon de los alojamientos dotacionales*), se evidencia un **diferencial de 361 puntos porcentuales**.
- **Las diferencias con respecto al precio de alquiler son similares, oscilando alrededor de 300 puntos porcentuales** (precio mensual de alquiler de la vivienda de protección social en Derecho de Superficie: 5,84 €/m<sup>2</sup>; precio mensual de alquiler del mercado libre: 17,50 €/m<sup>2</sup>).







- Etxebizitza librearen gehieneko prezioak, salmentakoak zein alokairukoak, Kontxako badiaren inguruko auzoetan biltzen dira, eta nabarmen murrizten dira hiri-aldiriko auzoetan.

### PLAN OROKORRAREN BIZITEGI-KUANTIFIKAZIOA ETA DIMENSIONATZE POTENZIALA

- Indarrean dagoen **Plan Orokorrak 16.415 etxebizitza berri ezarri zituen guztira, eta horietatik % 24,80 egikaritu dira, 4.072 etxebizitza, hain zuzen**. Hala, 12.343 etxebizitza daude egiteke; horietatik ia % 70ek nolabaiteko babesa dute (% 47,91 BOE eta % 20,43 ET).
- LAGek ezarritako kalkulu-irizpide arruntaren arabera, HAPO berriaren bizitegi-ahalmena 8.296 etxebizitzakoa da. Hala ere, LAG horiek **etxebizitzen hasierako parkearen % 10aren baliokide den bizitegi-edukiera antolatzeak aukera ere ezartzen dute. Parametro hori 9.509 etxebizitzari ematen dira, 2022. urtea erreferentziatzat hartuta.**
- Kontuan hartzen badugu hiriko etxebizitza berrien batez besteko ekoizpena urtean 800 unitate ingurukoa dela, **LAGetatik ateratzen den neurriak hamar urtekoak baino zerbait gehiago egitea ahalbidetuko luke**, eta hori ez da nahikoa, errealista baita pentsatzea Plan Orokor berriaren indarraldia epe luzeago batez luzatuko dela. Oraingoak, adibidez, hamahiru urteko indarraldia du, eta indarririk gabe utzi baino lehen beste hainbat urte izango ditu, berrikuspena behin betiko onartzearekin batera.

- Los precios máximos de la vivienda libre, tanto de venta como de alquiler, se concentran en los barrios bañados por la bahía de La Concha, minorándose significativamente en los barrios más periféricos de la ciudad.

### LA CUANTIFICACIÓN RESIDENCIAL Y DIMENSIONADO POTENCIAL DEL PLAN GENERAL

- **El Plan General** del año 2010 estableció un dimensionado total de **16.415 viviendas nuevas**, de las **que se han ejecutado un 24,81 % que equivalen a 4.072 viviendas**, de forma que quedarían 12.343 viviendas pendientes de ejecutar, de las cuales, casi un 70 % tiene algún tipo de protección (47,91 % VPO y 20,43 % VT).
- De acuerdo con el criterio ordinario de cálculo establecido por las DOT, la capacidad residencial del nuevo PGOU es de 8.296 viviendas. Sin embargo, las mismas DOT establecen también la posibilidad de ordenar una **capacidad residencial equivalente al 10 % de su parque inicial de viviendas, parámetro que se ajusta a 9.509 viviendas tomando como referencia el año 2022.**
- Si tenemos en cuenta que la producción media de nueva vivienda en la ciudad es aproximadamente de 800 unidades/año, **el dimensionado que resulta de las DOT permitiría atender solo poco más de diez años**, lo que se entiende como insuficiente dado que es realista pensar que la vigencia del nuevo Plan General se prolongará por un periodo mayor de tiempo. El actual por ejemplo, tiene ya trece años de vigencia y acumulará alguno más antes de su derogación con la aprobación definitiva de su Revisión.

## HELBURUAK

- Donostiako **etxebizitza-eskaera potentziala modu egokian eta anitzean erantzutea.**
- Plan Orokorra tresna egokiz hornitzea, **Donostia hiri eskuragarria** izan dadin.
- **Hiri Elkartasunaren Helburua ezartzea** etxebizitzaren ekoizpenean, **etorkizun sozial gisa.**
- Arreta berezia behar duten auzo kalteberetan hiri-berroneratzea bultzatzea.
- Bizitegi-tipologiaren eredu berriei erantzutea.
- **Familia-etxebizitzaren erabilera turismo-presiotik babestea.**

## OBJETIVOS

- **Cubrir de manera adecuada y diversificada la potencial demanda de viviendas** de Donostia / San Sebastián.
- Dotar al Plan General de los instrumentos adecuados para hacer de **Donostia / San Sebastián una ciudad asequible.**
- **Implementar el Objetivo de Solidaridad Urbana como horizonte social** en la producción de vivienda.
- **Impulsar la regeneración urbana** en los barrios vulnerables que necesitan especial atención.
- Atender la cobertura de los diferentes nuevos modelos de tipologías residenciales.
- **Preservar el uso de la vivienda familiar de la presión turística.**



## IRIZPIDEAK

- Plan Orokor berriaren dimentsio kuantitatiboa mailakatzea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ezarritako mugaren arabera, diagnostikoan hautemandako premiekin bat etorritik, datozen 15 urteetarako etxebizitza-eskaera potentzialari dagokionez.
- **Etxebizitzaren eskaintza kualitatibo potentzialari erantzutea** Plan Orokorrean, udalerrri osoan eta hura osatzen duten auzoetan etxebizitza-modalitateak eta -tipologiak modu orekatuan txertatzeko.
- Planteamenduan dentsitate dinamikoaren edo dentsitate sozialaren printzipioa aplikatzea. Dentsitate dinamikoak edo dentsitate sozialak, dentsitate estatikoaren aldean, etxebizitza babestu sozial edo tasatu gehiago lortzeko aukera ematen du eraikitako sabai-kopuru bererako, etxebizitza libreak eginez lortuko liratekeen aldean.
- **Etxebizitza sozialak ekoizteko mekanismoak aktibatzea: 1) Erreserbak; 2) Kalifikazioa eta 3) Hiri Elkartasunaren Helburua 20 urtetik beherako epean lortzea ahalbidetuko duten eskuraketak.**
- **Etxebizitza sozialen erreserbak plangintzan doitzea**, hiri-erlaketako jarduketetan, Plan Orokor berriaren proposatzen diren hirigintza-jarduketan azterketa ekonomikoan egon behar duen bideragarritasun ekonomikoaren eta arrazoizko onuraren printzipioaren arabera.
- Plan Orokor berriaren eraikuntza-jarduketa jakin batzuetan, hirigintza-antolamenduan **lurzoruaren kalifikazioa arautzen duten mekanismoak ezartzea, hirian etxebizitza babestuaren presentzia orokorra bermatzeko**, hirigintza-erlaketako jarduketetan ezartzen diren erreserbak alde batera utzita.
- Plan Orokorra arautzen dituen eta zentzuzko dentsifikazioa onartzen duten hiriko eremuetan **areagotze sozialaren printzipioa aplikatzea**, etxebizitza sozialen erabileraren baldintzapeko eraikigarritasuna handituz.
- **Dentsitate estrategikoan oinarritutako etxebizitza-eredu baten alde egitea**, herritar gehienak trenbide-lotura duten 5 ardatz handitan bilduko dituen, irisgarritasuna eta mugikortasuna erraztu ahal izateko.
- **Auzo-bihotzak aintzat hartzea**, hiriz osatutako hiria osatzen duen udal-mosaiko baten erdigune eta identitate-zati gisa, bakoitzak bere nortasuna duela. Auzo-bihotzetan auzo horietako merkataritza-ehuna zainduko da, eta merkataritza-kaleak eta bizitegi-kaleak ezarriko dira, kasu bakoitzean beheko solairuetarako ezarritako jarduerak sustatzeko.

## CRITERIOS

- Graduar el dimensionado cuantitativo del nuevo Plan General, de acuerdo con el margen establecido en las Directrices de Ordenación Territorial, en coherencia con las necesidades detectadas en el diagnóstico respecto a la potencial demanda de vivienda para los próximos 15 años.
- **Atender una potencial oferta cualitativa** de la vivienda en el Plan General que integre de manera equilibrada las diferentes modalidades y tipologías de vivienda en el conjunto del municipio y en los barrios que lo componen.
- Aplicar en el planteamiento, el **principio de la densidad dinámica o densidad social**. La densidad dinámica o densidad social, frente a la densidad estática, permite, para una misma cantidad de techo construido, conseguir un mayor número de viviendas protegidas sociales o tasadas, frente a las que se obtendrían con respecto a la vivienda libre.
- **Activar los diferentes mecanismos de producción de vivienda social: 1) Reservas; 2) Calificación y 3) Adquisición** que posibiliten lograr alcanzar el Objetivo de Solidaridad Urbana en un plazo no superior a 20 años.
- **Modular las reservas de vivienda social en el planeamiento**, en las diferentes actuaciones de transformación urbana, de acuerdo al principio de la viabilidad económica y el beneficio razonable que ha de estar presente en el balance económico de las actuaciones urbanísticas que se proponen en el nuevo Plan General.
- **Implementar** en determinadas actuaciones edificatorias del nuevo Plan General, los diferentes mecanismos que regulan **la calificación del suelo en la ordenación urbanística**, que permitan garantizar una presencia general en la ciudad **de la vivienda protegida**, más allá de las reservas que se establezcan en las actuaciones de transformación urbanística.
- **Aplicar, el principio de intensificación social**, en aquellas áreas de la ciudad reguladas por el Plan General que admitan una densificación razonable, mediante la adjudicación de un incremento de edificabilidad condicionada al uso de vivienda social.
- Apostar por un **modelo de vivienda basado en la densificación estratégica** que concentre a la mayoría de población en 5 grandes ejes con conexión ferroviaria para poder facilitar la accesibilidad y movilidad.
- **Reconocer los corazones de barrio**, como partes centrales e identitarias de un mosaico municipal que conforma una ciudad de ciudades, con su identidad propia en cada una de sus partes. En los corazones de barrio se preservará el tejido comercial de estos barrios estableciendo calles comerciales y residenciales, donde se fomente en cada caso la actividad marcada para las plantas bajas.





## 1.5. JARDUERA EKONOMIKOEI DAGOKIENEZ

### DIAGNOSTIKOA

- Hiriaren profilekonomikoari dagokionez, eta familiaren errenta berariaz aztertuta, Donostia Euskadiko eta Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik dago. Gainera, **udalerrria erakargune argia da, lana dela-eta fluxuak erakartzeari dagokionez**. Hala ere, datu orokor horiek etenak islatzen dituzte hiriko auzoetako egoera aztertuz gero. Errentari dagokionez, Altza da % 80ko mugaren azpitik dagoen auzo bakarra. Langabezia-tasa zehatz-mehatz aztertuta, Altza, Intxaurren, Loiola, Martutene eta Mirakruz-Bidebieta auzoek udalerriko batez bestekoa baino tasa handiagoa dute.
- Donostiak egoera desberdina du jarduera ekonomikoak ezartzeko ereduari dagokionez**. Enplegatuen kopuruaren eta auzo bakoitzeko establezimendu-kopuruaren arteko proportzioa aztertuta, alde nabarmena antzematen da auzoen ereduaren (Ibaeta, Añorga edo Miramon-Zorroaga) eta Erdialdea, Gros, Antigua-Ondarreta, Amaraberri, Egia, Altza, Intxaurren eta Mirakruz-Bidebieta auzoen ereduaren artean; izan ere, auzo horietan establezimenduko enplegatuen ratioak txikiagoak dira eta establezimendu txikiak dira nagusi.
- Jarduera ekonomikoak motaren arabera aztertuz gero, Donostia, industria-ondoko profil nabaria duen hiria da. Auzoka identifikatzen diren salbuespenak eta berezitasunak izan ezik, zerbitzuen sektoreak pisu espezifiko nabarmena du. Hiriko auzo bakoitza aztertuta, berezitasun aipagarri batzuk bereiz daitezke, besteak beste merkataritza- eta ostalaritza-jarduerak Erdialdea eta Gros auzoetan duen pisua, administrazio publikoaren presentzia Erdialdea, Amaraberri, Egia eta Intxaurren auzoetan, espezializazio txikiko industriaren ehunekoa Altzan eta Martutenen, eta espezializazio handiko industria 4.0-ra bideratutako enplegu-kopurua Miramon-Zorroagan.


Horri dagokionez, hirigintza-estandarrei buruzko Dekretuak lurzoruak taldekatzeko aukera ematen du, estandar horiei dagozkien jarduketan kontura eskuratzeko, eta, subsidiarioki, administrazioak berak eskuratzeko, aipatutako jarduketan kontura. Hala, lurzoruak lotzeko mekanika bat ezartzen da, hasiera batean metodo egokia izan daitekeena aipatu ditugun arazoak bideratzeko. Alde batetik, irtenbide egokia ematen die hirigintzako esku-hartzeak hiri-lurzoruan sortzen dituen legezko beharrei, beti konplikatu eta zaila baita. Bestalde, lurraldea okupatzeko estrategia eta eredia gauzatzeko aukera ematen du; izan ere, aukera ematen du herritar guztien zerbitzurako izaera orokorreko zuzkidura-lurzoruak lortzeko hirigintzako ekitatezko banaketaren bidez, horiek bestela desjabetze bidez soilik lor daitezke.

**Sistema horren osaerak eta Plan Orokor berriaren kudeaketan txertatzeak, alde batetik, plangintzak sistema orokor gisa kalifikatuko dituen lurzoruak zehaztea eskatzen dute,** bestetik, eragindako jarduketan mugaketa eta prozedura osoa antolatuko duten parametro eta baldintzen zehaztasuna. Lehenengo gaiari dagokionez, **Aurrerakin-dokumentu honetan aipatzen dira, hartutako antolamendu-ereduaren arabera, espazio libreen sistema orokor gisa ulertu eta kalifikatzeko xedea duten lurzoruak,** eta Plan Orokorrak programatzen dituen jarduketekin lotuz gero pixkanaka lortzeko multzokatuta geratuko direnak. Bigarren eta hirugarren errekerimenduak Plan Orokorrean garatuko dira, beti ere antolamendu xehatua ezartzen bada eta sortutako betebeharrak ebaluatuta badaude, baita bidezko lotura programatzea ahalbidetzen duten parametro ekonomikoak eta lurzoruaren balioa ere. Nolanahi ere, Plan Orokorrean horri buruzko iradokizun batzuk jasotzen dira, Plan Orokorrak horiek aurrerago garatzeko eta aintzat hartzeko.

**Hori guztia kontuan hartuta, 150.000 m<sup>2</sup> inguruko espazio libreen sistema orokorrerako lurzoruaren zuzkidura-multzoa aurreikusi da,** Landerron, Aduritz-Akularren lurzoru

**La conveniencia de abordar esta problemática en el Plan General aconseja ya que desde el documento de Avance, se visualicen alternativas,** dado que, al tratarse de un sistema de carácter estructural, puede afectar al modelo de ordenación que se proponga.

Sobre ello, el Decreto de estándares urbanísticos plantea la posibilidad de agrupar suelos para ser obtenidos a cargo de las actuaciones que a los mismos se deban, y subsidiariamente por la propia administración con cargo final también a las mencionadas actuaciones. Así, se plantea una mecánica de vinculación de suelos que a priori, puede ser un método adecuado para encauzar la problemática comentada. Pues por un lado, da solución adecuada a las necesidades legales que se derivan de la intervención urbanística en el suelo urbano, siempre complicada y difícil. Y, por otro lado, posibilita la ejecución de la estrategia y modelo de ocupación del territorio, pues permite plantear la obtención de suelos dotacionales de carácter general al servicio de toda la población por la vía de la equidistribución urbanística, que, de otra forma, solo podrían obtenerse mediante expropiación.

**La configuración de este sistema y su incorporación a la gestión del nuevo Plan General precisa de la concreción por un lado, de los suelos que el planeamiento calificará como sistema general,** y, por otro, de la delimitación de las actuaciones afectadas y también de la precisión de los parámetros y condiciones que ordenarán todo el procedimiento. Con respecto a la primera cuestión, **se apunta desde este documento de Avance los suelos cuya vocación, de acuerdo con el modelo de ordenación adoptado, son entendidos y calificados como sistema general de espacios libres** y que quedarán agrupados para su obtención progresiva mediante vinculación a las actuaciones que se programen por el Plan General. El segundo y tercer requerimiento serán desarrollados por el Plan General, toda vez que se establezca la ordenación pormenorizada, y se tengan evaluadas las obligaciones a devengar, así como los parámetros económicos y de valor de suelo que permitan programar una vinculación equitativa. En todo caso, se apuntan desde el Avance del Plan General una serie de sugerencias en relación a ello para su desarrollo y consideración por el Plan General.

**Por todo ello, se prevé un conjunto de dotaciones de suelo para el sistema general de espacios libres de unos 150.000 m<sup>2</sup>,** en Landerro, al sur del sector de suelo urbanizable de

urbanizagarriaren sektorearen hegoaldean. Sistema orokorre buruzko proposamena marrazten duten planoetan ageri da.

**Hori guztia kontuan hartuta, bi lurzoru-poltsa aurreikusi dira. Aurrerakinak, gutxi gorabehera, 183.924 m<sup>2</sup>-ko espazio libreen sistema orokor gisa identifikatzen ditu,** Landerroko eremuan, Aduritz-Akular lurzoru urbanizagarriaren sektorearen hegoaldean eta Sasoategi eremuan, Pasaiaiko udalerriarekin mugan. Sistema orokorre buruzko proposamena marrazten duten planoetan ageri da, eta eremu-kode hauekin identifikatu dira:

- SRS-AL-01 Landerro: 152.216 m<sup>2</sup>s.
- SRS-AL-01 Sasoategi: 31.708 m<sup>2</sup>s.

Aipatutako lotura sustatuko duen sistema juridiko eta ekonomikoari dagokionez, honako iradokizun hauek aipatzen dira lan-esparru orokor gisa:

- Aplikatzekoa den legeriak ezarritako gutxienekoa baino azalera handiagoko sistema orokorren erreserbak ezarri ahal izango dira.
- Udalak edozein unetan aurreratu ahal izango du lurzorua, jarduerak gauzatu aurretik. Horri laguntzeko, Plan Orokorrak aintzat hartuko ditu eragiketa horietarako esparru ekonomiko eta juridiko gisa balio duten parametroak.
- Lotutako eremuen artean balioak parekatzeko orduan, antolamendu xehatuaren zehaztapenean aplikatutako haztapen-koefizienteetan aintzat hartutako lurzoruaren balio ekonomikoaren desberdintasunak aplikatuko dira.
- Hurbiltasuna dela eta, Aduritz-Akularren eremua iradokitzen da, bi poltsa horietako lurzoruaren eragin-balioa zenbatesteko arrazoizko erreferentzia gisa.
- Egiten diren balioespen ekonomikoetan kontuan hartuko dira hirigintza-ekintzak sortutako gainbalioetan erkidegoak duen partaidetzari dagokion % 15eko kenkaria eta sistema orokorren urbanizazioak eta egotz daitezkeen gainerako kargak sortzen duten kostu zenbatetsia.
- Lurzoruaren eragin-balioak kalkulatzeko kontuan hartutako eraikigarritasuna guztizko eraikigarritasuna izango da, hau da, sestra gainean eta sestra azpian esleitutakoa.

Aduritz-Akular, tal y como se indica en los planos que dibujan la propuesta de sistemas generales.

**De acuerdo con todo ello, se prevén dos bolsas de suelo que el Avance identifica como sistemas generales de espacios libres de, aproximadamente, 183.924 m<sup>2</sup>,** ubicados en el ámbito de Landerro, al sur del sector de suelo urbanizable de Aduritz-Akular y en la zona de Sasoategi, colindando con el municipio de Pasaia. Se dibuja en los planos que grafían la propuesta sobre sistemas generales y se identifican con los siguientes códigos de ámbito:

- SRS-AL-01 Landerro: 152.216 m<sup>2</sup>s
- SRS-AL-02 Sasoategi: 31.708 m<sup>2</sup>s

En cuanto a la construcción del sistema jurídico y económico que propiciará la vinculación comentada, se apuntan las siguientes sugerencias como marco general de trabajo:

- Podrán establecerse reservas de sistemas generales de superficies superiores a la mínima establecida por la legislación aplicable.
- El Ayuntamiento podrá anticipar la obtención del suelo en cualquier momento anterior a la ejecución de las propias actuaciones. En apoyo de ello, el Plan General estimará los parámetros que sirvan de marco económico jurídico para estas operaciones.
- En la equiparación de valores entre ámbitos vinculados, se aplicarán las diferencias de valor económico de suelo apreciadas en los coeficientes de ponderación aplicados en la determinación de la ordenación pormenorizada.
- Dada su proximidad, se sugiere el ámbito de Aduritz-Akular como referencia razonable para la estimación del valor de repercusión de suelo en ambas bolsas.
- Las valoraciones económicas que se efectúen tendrán en cuenta la deducción del 15 % correspondiente a la participación de la comunidad en las plusvalías generadas por la acción urbanística, y los costes estimado que devenga la ejecución de la urbanización de los sistemas generales y resto de cargas que pueden ser imputables.
- Se procurará que la edificabilidad tenida en cuenta para la estimación de los valores de repercusión de suelo será la total, es decir, la asignada tanto sobre rasante como bajo rasante.



## 1.5. HURBILEKO ESPAZIO LIBREEN SAREA

Etxebizitzetatik hurbil dauden parke eta plazen sistema da biztanleei aisialdi-zerbitzua emateko lehenengo lekua, eta, aldi berean, pertsonak espazio librea eta landaredira hurbiltzeko aukera ematen duena. **“Hurbileko espazio libreak” dira.**

Donostiak **badu hurbileko espazio libreen sare zabala udalerrri osoan zehar banatuta.** Hala ere, biztanleek ez dituzte espazio libre horiek guztiak erabiltzera bultzatzen duten kalitatezko espaziotzat hartzen, hainbat arrazoiengatik: tamaina edo forma desegokiak (txikiak edota gutxi aprobetxatzeko modukoak), malda handiegia, iristeko zailtasuna (kokapenaren orografiatik edota kokapenagatik edo modu multimodalean erraz iristeko modukoa ez izateagatik), espazioaren kualifikazio falta (programa, hiri-altzari edota landaretza desegokiak edota urriak), gune estalien falta eta abar.

Hiri-espazio libre berriei buruzko proposamenak, hain zuzen, horiek bizilagunengandik hurbilago egotea lortu behar du, eta garapen-eremu esanguratsuenetan harremanetarako espazio zibikoak definitu.

**Honakoa proposatzen da hurbileko espazio libreei dagokienez:**

- **urbanizazio-kalitatea eta programa hobetzea.**
- **kale berdeetatik eta ardatz-zibikoetatik sartzea erraztea.**

Bizitegi-garapeneko edo-eraldaketa eremu berrien hurbileko espazio libre berriei buruzko proposamena hau da:

- **hiriko espazio libre berriak lehendik dauden osagarri gisa proiektatzea,** eta udalerriko auzoek inguruko lurralde naturalarekin dituzten loturak eta harremanak ezartzea.
- **horiek bizilagunengandik hurbilago egotea lortzea,** harremanetarako espazio zibikoak definitzea.
- **hurbileko espazio libreak antolatzea, nortasun-espazioak definituz.**



## 1.5. LA RED DE ESPACIOS LIBRE DE PROXIMIDAD

El sistema de parques y plazas próximos a las viviendas constituye el primer lugar de servicio lúdico a la población y es, a la vez, el que permite el acercamiento de las personas al espacio libre y a la vegetación. **Son lo que llamamos “espacios libres de proximidad”.**

Donostia / San Sebastián ya **cuenta con una amplia red de espacios libres de proximidad distribuidos por todo el municipio.** Sin embargo, la población no percibe la totalidad de estos espacios libres como espacios de calidad que inciten a su uso, fruto de distintas cuestiones: tamaño o forma inadecuados (pequeños y/o poco aprovechables), pendiente excesiva, dificultad de acceso (por la orografía y/o situación del emplazamiento o por no ser fácilmente accesible de manera multimodal), falta de cualificación del espacio (programa, mobiliario urbano y/o vegetación inadecuados y/o insuficientes), etc.

La propuesta respecto a los nuevos espacios libres urbanos debe caracterizarse, precisamente, por conseguir una mayor proximidad de estas piezas a la población residente, definiendo en los ámbitos de desarrollo más significativos espacios cívicos de relación e intercambio.

**La propuesta del Avance respecto a los espacios libres de proximidad existentes es:**

- **mejorar su calidad de urbanización y programa;**
- **facilitar su acceso a través de calles verdes y ejes cívicos.**

La propuesta respecto a los nuevos espacios libres de proximidad **de los nuevos ámbitos de desarrollo residencial o de transformación** es:

- **proyectar los nuevos espacios libres urbanos como complementarios de los existentes,** estableciendo los vínculos y contactos de los diferentes barrios del municipio con el territorio natural del entorno;
- **conseguir una mayor proximidad de estas piezas a la población residente,** definiendo espacios cívicos de relación e intercambio; y
- **ordenar los espacios libres de proximidad definiendo espacios de identidad.**





## 1.6. BERDEGUNEEN ARTEKO LOTURA

Oso garrantzitsua da berdeguneak elkarrekin lotzea, hiriko espazio libreetatik lurralde-parkeetara jarraitu ahal izateko ibilbide berdeen sare baten bidez.

Planak horretarako sistema bat sortzea aurreikusi beharko du, mugatzen diren dimentsio desberdineko berdeguneen (lurralde-parkeak, erreferentzia-espazioak eta hurbileko espazioak) arteko lotura bermatuko duena. Sistema horretan, funtsezkoak dira:

- **Hiria inguruko landa-eremuarekin lotu behar duten lurralde-loturen egitura orokorra definitzea.** Barrualdeko eta kanpoko loturak, hiri-paisaiaren eta paisaia naturalaren arteko erlazio pribilegiatu horri eusteko.
- **Barneko sare berdea eratzea.** Funtsezko garrantzia du ardatz-zibikoen eta zuhaitzez estalitako kaleen barne-sarea eraikitzeak (mugikortasunari buruzko proposamenetan ere kontuan hartzen da), udalerrri barruan hainbat fluxu ahalbidetzen baititu, eta lehen mailako espazio sinboliko eta funtzionala ezartzen baitu. Hori bere tamaina eta loturagatik udalerriko egungo hiri-paisaian orientazio berria izan behar du.

Lehenengoari dagokionez, **proposatutako Azpiegitura Berde eta Urdinean landa-bide nagusiak eta bigarren mailakoak jaso dira, lurralde-mailan biztanleriaren osasun-konektore gisa (1. maila).** Adierazi bezala, garrantzitsua da sare hori barneko sare berdearekin lotzea (hiri-egiturari dagokiona, hau da, 2. mailako). Horregatik, lotura-tarte batzuk identifikatu eta proposatu dira, bai eta lotura horiek gertatzen diren hiri-ingurunetik natur ingurunera iristeko puntuak ere. Etorkezuneko faseetan, bi inguruneen arteko harremana baloratzea proposatzen du Planak, eta sarbide horietan egiten diren paisaia-jarduketak identifikatzea, ingurunea beharrik gabe artifizialtzea eta batetik bestera bat-batean ez igarotzea ekar dezaten.


## 1.6. LA INTERCONEXIÓN DE LAS "PIEZAS VERDES"

Es de vital importancia **interconectar las piezas verdes mediante una red de itinerarios verdes** que permita establecer las continuidades desde los espacios libres urbanos hasta los parques territoriales.

El Plan deberá prever la formación de un sistema que garantice la interconexión entre las áreas verdes de diferente dimensión que se delimitan (parques territoriales, espacios de referencia y espacios de proximidad), y en la que destacan dos elementos clave:

- **La definición de una estructura general de conexiones territoriales** que deben interconectar la ciudad con el espacio rural del entorno. Unos elementos de conexión interior-exterior que permitan mantener esta privilegiada relación entre paisaje urbano y natural.
- **La constitución de una red verde interior.** La construcción de una red interior de ejes cívicos y calles arboladas (incluida también en las propuestas sobre la movilidad) tiene una importancia primordial, al permitir flujos diversos en el interior del municipio, y establecer un espacio simbólico y funcional de primer orden, que, por su extensión y comunicación, debe constituir una nueva orientación en el paisaje urbano actual del municipio.

Respecto a la primera, **en la Infraestructura Verde y Azul propuesta se recogen una serie sendas rurales principales y secundarias, a modo de conectores de salud población a nivel territorial (Nivel 1).** Tal como se indicado, se considera de importancia la conexión de esta red con la red verde interior (la correspondiente al entramado urbano; es decir, al Nivel 1). Por ello se han identificado y propuesto unos tramos de interconexión, así como los puntos de acceso al medio natural desde el medio urbano en los que se producen dichas conexiones. El Plan propone, en fases futuras, valorar la relación existente entre ambos medios, e identificar actuaciones paisajísticas en dichos accesos para que no supongan una artificialización innecesaria del entorno y la transición de uno a otro no se produzca de manera abrupta.





Hiri-mailan, azpiegitura berdearen eta urdinaren bilbeak 1. eta 2. mailako nukleo-eremuekin lotzea du helburu, hiri-biodibertsitatea (intsektuak, hegaztiak, ugaztun txikiak) sustatzen duten konektoreen bidez horiek izanik,aldi berean, biztanleriaren osasun-konektore gisa funtzionatzen dutenak. Helburua da herritarrei osasun-zirkuitu berdea eskaintzea, non pertsonak ibiltzeko eta mugitzeko aukera izango duten biodibertsitate handiagoa eta kutsadura akustiko eta aire-kutsadura gutxiago izatearen babesean.

Ikuspegi horren bidez, hiriguneetan interes bereziko konektoreak antzeman eta mugatu nahi dira, ezaugarri aproposak dituztenak, hala nola oinezkoentzako edo erdioinezkoentzako kaleak, bidexkak, bidegorria eta zuhaitzak dituztenak. Udalerrian egiten diren joan-etorrien ohiko modua eta ohitura aldatzeak duen garrantziaz jabeturik, **lehenik eta behin, motorrik gabeko mugikortasunaren aldeko apustua egin behar da**, bi puntuen arteko ibilbidea gaur egungoa baino hobea izan dadin. Desplazamenduari dagokionez, **bi tokien arteko distantziarik laburrena ez da lerro zuzena, ibilbide atseginena duena baizik**. Era berean, ur-iturriak, babes- eta atsedeen-elementuak eta desfibriladoreak jasotzea aurreikusten da.

**Hala, herritarrek aukera izango dute, modu jasangarrian eta itzal naturalaren babesean**, beren auzoetan zehar konektore berdeen bidez elkarguneetara edota ingurune naturalera joateko. Gainera, ibilbide horietan klima-babesleku bigun eta gogorak egon daitezke (adibidez, parkeak edo osasun-zentroak).

Beraz, hiri-mailako konektore horiek klima-aldaketara egokitzea errazten dute, eta klima-aldaketaren ondorioz gertatzen diren eta gero eta ohikoagoak diren gertakarien eragina murrizten laguntzen dute (bero-boladak, adibidez). Eta, halaber, hiri-biodibertsitatearen galera geldiarazten laguntzen dute.

Hasierako proposamen batean (HAPOren Aurrerakin-faseari dagokiona), Donostiako **Azpiegitura Berde eta Urdina osatzen duten konektoreak hiru motatakoak dira:**

- **Nagusiak:** bidegorriak, oinezkoentzako bideak edo haietatik hurbil dauden bideak, eta hir-ibilbideen eta sare lineal berdearen zati diren ardatzak dira. Nukleo-eremuak edo hiriko gune garrantzitsuenak lotzen dituzte.
- **Lehen mailakoak:** bizikletentzako edota oinezkoentzako bideak dituzten ardatzak dira, hiri-ibilbideen eta sare lineal berdearen zati direnak. Ardatz nagusien eta nukleo-eremuen arteko konektibitatea ahalbidetzen dute.
- **Bigarren mailakoak:** bidegorria duten oinezkoentzako bideak edo hiri-ibilbideen zati diren ardatzak dira. Sare nagusiarekin eta azpiegitura berdeko elementu berezi batzuekin lotzeko aukera ematen dute.

A escala urbana, la trama de la infraestructura verde-azul tiene como objetivo la conexión con las zonas núcleo de nivel 1 y 2 mediante conectores que fomenten la biodiversidad urbana (insectos, aves, pequeños mamíferos) y que, a su vez funcionan como **conectores de salud poblacional**. Se trata de poder ofrecer a la ciudadanía un circuito verde de salud, donde las personas tengan la posibilidad de caminar y moverse al amparo de una mayor biodiversidad y una menor contaminación acústica y del aire.

Este enfoque busca encontrar y delimitar en las zonas urbanas conectores de especial interés que aglutinan idealmente atributos como ser calles peatonales o semipeatonales, senderos, que tengan carril bici y arbolado, conscientes de la importancia de cambiar el modo y la costumbre habitual de los desplazamientos dentro del municipio, y **apostando, en primer lugar, por la movilidad no motorizada, haciendo del recorrido entre las partes un trayecto cualitativamente mejor que el actual**, y afirmando que, en términos de desplazamiento, **la distancia más corta entre dos lugares no es la línea recta, sino la que tiene el trayecto más agradable**. Asimismo, se contempla la inclusión de fuentes de agua, elementos de protección y descanso y desfibriladores.

**De este modo, la ciudadanía tiene la posibilidad de desplazarse, sosteniblemente y al amparo de sombra natural**, a lo largo de sus barrios a través de conectores verdes hasta los espacios de encuentro y/o el entorno natural, con posibles refugios climáticos blandos y duros (como, por ejemplo, los parques o los centros de salud).

Por tanto, estos conectores de nivel urbano facilitan la adaptación al cambio climático, ayudando a reducir el impacto de eventos, cada vez más frecuentes, derivados del cambio climático, como pueden ser las olas de calor. Y, también, contribuyen a frenar la pérdida de biodiversidad urbana

En una primera propuesta (correspondiente a la fase de Avance del PGOU), **los conectores que componen la infraestructura verde y azul de Donostia / San Sebastián se plantean de tres tipos:**

- **Destacados:** son ejes con carril-bici, con presencia o proximidad a vías peatonales, que forman parte de los itinerarios urbanos y de la **red lineal verde**. Conectan o discurren por **zonas núcleo** o lugares clave de la ciudad.
- **Principales:** son ejes con carril-bici y/o zonas peatonales, que forman parte de los itinerarios urbanos y tienen presencia de la **red lineal verde**. Permiten la conectividad **con los ejes destacados** y las **zonas núcleo**.
- **Secundarios:** son vías peatonales con bidegorri o que forman parte de los itinerarios urbanos. Permiten la conexión con la red principal y algunos **elementos singulares** de la Infraestructura Verde.



## 1.7. JARRAITASUNA ETA EGOKITZAPENA

Egokitzeari eta arintzeari dagokienez, Donostiak, habitat gisa, kalitate nabarmena du, eta horri eutsi behar zaio.

**Klima-aldaketaren arazoaz jabeturik** eta haren aurkako borrokan Udalak duen konpromiso sendoaren ildotik, Azpiegitura berde eta urdinaren proposamena osatzeko (3. mailaren barruan) hau proposatzen da:

- **Aterpe klimatiko gogorren eta bigunen sarea antolatzea, biodibertistateak funtsezko eginkizuna baitu bero-boladetan temperatura baretzeko.**
- **Errekak babesteko udal-proposamenean** adierazitako elementuak jasotzea.
- **Hiri-hondartzak** jasotzea.

Azpiegitura berdearen eta urdinaren proposamenaz gain, beste hau ere proposatzen da:

- Planaren ondorengo faseetan, **klima-aldaketaren ikuspegitik ordenantzak egitea**, klima-aldaketa arintzeko neurriak garatzeko.
- Planaren ondorengo faseetan, **ordenantzetan eta hiri-diseinuetan ezarri beharreko jasangarritasun-irizpideak lantzea.**
- **Ordenantzen bidez, diseinu-irizpideak txertatu naturan oinarritutako irtenbideak ezartzeko.**
- **Ibaien ertzak birnaturalizatzeko eta ubideak berreskuratzeko irizpideak sartzea antolamendu edota berrantolaketa berrietan.** Horren ildotik, eredu-eta alternatiba-proposamen gisa jasotako antolamenduetan, dokumentu hau idatzi aurretik edo aldi berean egin den proposamena ez den kasuetan, egituratzailea izateaz gain, arintze-elementu gisa, ibai-ibilgu batzuen jatorrizko trazadura berreskuratzea eta beste batzuk kentzea proposatu da. (ikus, adibidez, Añorgako lotuneak okupatutako lurzorua berrantolaketa eta Urdintzuko (Loiolako Kuartelak)).
- Era berean, proposatutako antolamendu edota berrantolamendu berrietan, irizpide nagusietako bat lurraldea **ez artifizializatzea** da, hiri-diseinuari eta espazio libreei dagokienez, lurzoru berriak ez okupatzeko eta artifizializatzeko estrategia orokorraz haratago.
- **Planaren ondorengo faseetan, ordenantzetan eta hiri-diseinuetan naturan oinarritutako irtenbideak ezartzeko irizpideak jasotzea.**

## 1.7. CONTINUIDAD Y ADAPTACIÓN

En términos de adaptación y mitigación, Donostia / San Sebastián como hábitat posee una calidad destacable que debe mantenerse.

Conscientes de la **problemática del cambio climático** y en línea con el fuerte compromiso municipal en la lucha contra el mismo, para completar la propuesta de Infraestructura verde y azul se propone (dentro del Nivel 3):

- **Ordenar una red de refugios climáticos no sólo duros, sino también blandos, puesto que la biodiversidad juega un papel fundamental en la amortiguación de la temperatura en olas de calor.**
- Recoger los elementos indicados en la **propuesta municipal para la protección de arroyos.**
- Incluir las **playas urbanas.**

Más allá de la propuesta de Infraestructura Verde y Azul, además, se propone:

- Elaborar, en fases posteriores del Plan, **ordenanzas desde la perspectiva del cambio climático**, que desarrollen medidas para la mitigación.
- **Introducir**, en fases posteriores de elaboración del Plan, **criterios de sostenibilidad a implementar tanto en ordenanzas como en diseños urbanos.**
- **Incorporar criterios de diseño mediante ordenanza para implementar las soluciones basadas en la naturaleza.**
- Introducir **criterios para la renaturalización de los bordes fluviales y recuperación de cauces en las nuevas ordenaciones y/o reordenaciones.** Al hilo, en las ordenaciones recogidas a modo de propuestas de modelo y alternativas, en aquellos casos en los que no se trata de una propuesta existente previamente o en paralelo a la redacción de este documento, además de dar un papel vertebrador y como elemento de mitigación, se ha propuesto recuperar el trazado original de algunos cauces, así como destapar otros. (véanse, por ejemplo, la reordenación de los suelos ocupados por el nudo viario de Añorga o la de Cuarteles de Loiola (Urdintzu)).
- Asimismo, en las nuevas ordenaciones y/o reordenaciones propuestas, uno de los criterios principales es la **no artifizialización** del territorio, en lo que respecta al diseño urbano y los espacios libres, más allá de la estrategia general de no ocupación y artifizialización de nuevos suelos.
- **Introducir**, en fases posteriores de elaboración del Plan, **criterios para implementar soluciones basadas en la naturaleza en ordenanzas como en diseños urbanos.**





## 2. Donostia modu orekatuan eta osotasunean ekipatzea

**Ekipamenduak, beren izaera eta xedea direla eta, funtsezko elementu bihurtzen dira hiri-kokaguneen forma eta funtzionamendua eratzerakoan.** Garapen handiago eta zabalago duten beste erabileretan ez bezala (etxebizitza, industria eta jarduera ekonomikoa oro har), ekipamenduek ez dituzte definitzen, berez, hiri-ehunak, baina, aldiz, **ordezkaezinak dira** ehun horiek oso-osorik eratzeko. Kokapena, kalitate funtzionala eta arkitektonikoa bezalako alderdiak oso garrantzitsuak dira hiri-kokaleku berri bat eraikitzeko.

Hiri-ingurunean ekipamendu-piezak egoteak, herritarren bizitzarako beharrezkoak diren zerbitzu jakin batzuen estaldurarekin edo prestazioarekin lotutako faktoreei ez ezik, bereziki, espazioak eta ibilbideak beste erabilera edo ezarpen eraiki batzuen gaintik kualifikatzeko gaitasunari ere erantzun behar die.

Ekipamendu sistemaren eredu berriaren definizioa funtsezko lau irizpidetatik abiatuta egin beharko da:

- a) **Intentsitate-maila eta -hurrenkeraren desberdinen hierarkia baloratzea, ekipamendu mota desberdinek hiritzeko duten gaitasunean.** Beren izaera dela eta udalerrri osoari eta inguruko lurraldeari zerbitzu orokorra emateko izaera eta gaitasuna dutenak antzematea; esate baterako, erreferentzia-ekipamenduak. Eta gaitasun txikiagoa duten eta, nagusiki, ekipamenduaren hurbiltasunagatik kolektibo jakin baten beharrei erantzuten dieten beste ekipamendu batzuk. Kolektibo hori, askotan, bat dator Donostiako auzo batekin edo auzo-multzo batekin. Bestela, komeni da Plan berriak kontuan izatea beharrezkoa dela gordetako espazio nahikoak izatea, lurralde-garrantzizko eta udalez gaindiko ekipamenduen balizko eta etorkizuneko eskaerei erantzuteko, lurralde-kokapenagatik eta -xedegatik dagozkionak, bai eta etorkizunean bere bizi-ziklo erabilgarria osatuko duten udalerriko beste ekipamendu batzuk berri eta osorik birmoldatzeko beharrezkoak direnak ere.


## 2. Equipar Donostia / San Sebastián de forma equilibrada e integral

**Los equipamientos, por su naturaleza y finalidad, se convierten en elementos primordiales en la configuración de la forma y el funcionamiento de los asentamientos urbanos.** A diferencia de los otros usos de desarrollo mayoritario y extensivo - vivienda, industria y actividad económica en general - los equipamientos no definen, por sí mismos, tejidos urbanos, pero, en cambio, **su presencia es insustituible para la formación de estos tejidos de manera completa.** Aspectos como la posición, la calidad funcional y arquitectónica de los mismos, son cruciales en la construcción del nuevo asentamiento urbano.

La presencia de las piezas de equipamiento dentro del contexto urbano debe responder no sólo a los factores relacionados con la cobertura o prestación de determinados servicios necesarios para la vida ciudadana, si no también y muy particularmente a su capacidad de cualificar los espacios y los recorridos por encima de otros usos o implantaciones edificadas.

La definición del nuevo modelo del sistema de equipamientos deberá partir de cuatro criterios esenciales:








- a) **Valorar la jerarquía de diferentes niveles y órdenes de intensidad en la capacidad de creación de nueva urbanidad que contienen los diferentes tipos de equipamientos.** Identificar aquellos que, por su naturaleza, tienen un carácter y un alcance de servicio general para todo el municipio y su territorio del entorno, en lo que podríamos definir como los equipamientos de referencia y aquellos otros que tienen un alcance más reducido y que, mayoritariamente, vienen a atender las necesidades de un colectivo identificado por la proximidad al equipamiento y que, a menudo, coincide con un barrio o con un conjunto de barrios del municipio de Donostia / San Sebastián. De lo contrario, es recomendable que el nuevo Plan tenga presente también la necesidad de disponer de espacios suficientes de reserva para acoger otras posibles y futuras demandas de equipamientos de significación territorial y supramunicipales que le correspondan por su posición y misión territorial, así como los necesarios para la renovación y remodelación integral de otros equipamientos de municipio que en el futuro vayan completando su ciclo de vida útil.




Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren berrikuspenerako Aurrerakina



## Ekipamenduen proiektuaren proposamena Propuesta del proyecto de equipamientos

-  Ekipamendu-proposamen berriak  
Nuevas propuestas equipamentales
-  Ekipamendu-ontzeak  
Sistemas de equipamiento
-  Bide erabilera bat duten ekipamendu-turruak  
Espacios de equipamientos con otros usos
-  Hurbileko ekipamendua  
Equipamientos de proximidad
-  Erreferentziako ekipamendua  
Equipamientos de referencia
-  Antzinateko ekipamendua  
Equipamientos a recuperar
-  Turru urbanizazioan dauden ekipamendua  
Equipamientos en suelo no urbanizable



## Begirada Sektorialak Miradas Sectoriales



Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean Aurrerakina  
Avance del Plan General de Ordenación Urbana



- b) **Egungo zuzkidurak eta aurreikusitakoak osatzea, biztanleria-egoera posibleetatik sortuko diren behar berrien arabera.** Aurreikuspen horiek arreta berezia jarri behar dute eskari berrien alderdi kuantitatibo orokorrak antzemateko, eta bereziki, biztanleria berri horren eta lehendik dagoen biztanleriaren bilakaeraren ondoriozko adin-tarte esanguratsuenen arabera definitzen diren sektore-alderdiak. Oro har, hurbileko ekipamenduen erreserbari dagokionez, plangintza orokorreko dokumentu batek jarri behar duen arreta nagusia irakaskuntza-zentro berrien kokapenarekin lotuta dago, horien tamaina handiagoa delako, eta premia eskalarra izan ohi delako. Izan ere, askotan, hainbat eremuen metaketatik abiatuta – berez eskola baten premia ez dutenak –, eskola hori dimentsio txikieneko eremuetan bizi den biztanleria gehitzearen ondorioz sortzen da. Ildo horretan, eskola-premia berrietara egokitzea proposatzen da, maila desberdinei erantzuteko, haurtzaindegitik hasi eta batxilergoko irakaskuntzaraino, haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeetatik igarota.
- c) **Ekipamendu berrien kokapena ezartzea, udalerriko zenbait eremutan gertatzen diren gaur egungo desorekak zuzentzeko eta berrerekatzeko irizpideen arabera.** Aldi berean, kokapen berri horiek hiri-ehun berriak indartzeko duten ahalmena aprobetxatzeko berariazko borondatearekin antolatzea. Pieza berri horiek hurbiltasun eta irisgarritasun handiagoko eremu berrietan ezarri behar dira, lurzorua lortzeko erraztasun handiagoko aukera-irizpideen gainetik.
- d) **Azkenik, ekipamenduen erreserba berriak sistema konplexu baten zati gisa definitu behar dira, eta, sistema horren barruan, eginkizun bat garatuko dute, denboran aldatu egin daitekeena, planteatutako beharrak eta eskakizunak aldatzen diren heinean.** Sistemaren izaera ebolutibo horrek eta bere funtzionamenduak balizko aldaketa funtzionalen aurrean aldakortasun eta malgutasun handiena izatera behartuko du, eta horiek bereziki txertatu beharko dira erreserba berriak ezartzeko irizpideen barruan.

Donostiako HAPOk ekipamenduetarako estrategia lau baieztapen nagusi hauetan oinarrituko da:

- Ekipamenduen kalitatea eta kantitatea mantendu eta handitzea.
- Erreferentziako ekipamenduak nahita kokatzea.
- Ekipamenduak inguruko espazio libreekin lotzea.
- Dauden eta aurreikusten diren zuzkidurak osatzea.

- b) **Complementar las actuales dotaciones existentes y previstas en función de las nuevas necesidades que se generarán a partir de los posibles escenarios de población.** Estas previsiones deben tener especial cuidado en la identificación no sólo de los aspectos cuantitativos generales de las nuevas demandas, sino también y muy especialmente, de aquellos aspectos sectoriales que se definen en función de las franjas de edad más significativas de esta nueva población junto con la evolución de la población ya existente. En general, la principal atención que le debe corresponder a un documento de planeamiento general respecto a la reserva de los equipamientos de proximidad, es la que va vinculada a la localización de los nuevos centros de enseñanza, por la mayor dimensión de estas piezas, y por su condición escalar de la necesidad, donde a menudo a partir de la acumulación de diferentes sectores, que en sí mismos no llegan al umbral de la necesidad de una escuela, ésta aparece por la agregación de la población residente de los diferentes sectores de menor dimensión. En este sentido se propone un ajuste de las nuevas necesidades escolares, que atiendan a los diferentes niveles, desde la guardería, hasta la enseñanza del bachillerato, pasando por los centros de educación infantil y primaria.
- c) **Establecer la localización de los nuevos equipamientos en función de criterios de reequilibrio y de corrección de los actuales desajustes que se dan en determinados ámbitos del municipio** y, al mismo tiempo, disponer estas nuevas localizaciones con la voluntad expresa de aprovechar su capacidad de refuerzo de los nuevos tejidos urbanos. La localización de estas nuevas piezas debe centrarse sobre nuevos ámbitos de máxima proximidad y mayor accesibilidad, por encima de posibles criterios de oportunidad en la mayor facilidad para la obtención del suelo.
- d) Finalmente hay que **definir las nuevas reservas de equipamientos como parte de un sistema complejo dentro del cual desarrollarán un papel que podrá ser cambiante en el tiempo en la medida en que evolucionen las necesidades y los requerimientos planteados.** Este carácter evolutivo del sistema y su funcionamiento obligará a una máxima versatilidad y condición de flexibilidad a posibles cambios funcionales, que deberán ser especialmente integrados dentro de los criterios para el establecimiento de las nuevas reservas.

La estrategia respecto a los equipamientos en el Plan General de Donostia / San Sebastián se basará en las cuatro principales afirmaciones siguientes:

- Mantener e incrementar la calidad y cantidad de los equipamientos.
- Localizar de manera intencionada los equipamientos de referencia.
- Interconectar los diferentes equipamientos con los espacios libres de su entorno.
- Complementar las actuales dotaciones existentes y previstas





## 2.1. DONOSTIAKO EKIPAMENDUEN KALITATEA ETA KOPURUA MANTENDU ETA HANDITZEA

**Ekipamenduak herritarrei funtsezko zerbitzuak ematen dizkieten elementuak dira hirian**, eta horregatik dira hain garrantzitsuak zerbitzu horiek emateko orduan beren banaketa eta kokapen egokia. Kokalekuak, aniztasunak eta kalitate arkitektonikoak ekipamenduen ingurunea baldintzatuko dute. **Ekipamenduek, beren berezko banakako erabileraz gain, hiri-bilbea erakargarri egiten eta dinamizatzen duten elementu gisa funtzionatzen dute**, eta, beraz, haien hiri-balioa beren eginkizunak betetzetik haratago doa.

Aztertutako adierazleen arabera eta ekipamendu-sistemarako lurzoru-estandar mailarik handienei buruzko legedien arabera, **14.5m<sup>2</sup>/biztanleko (kalifikatutako eta erabiltzen ari diren m<sup>2</sup>) baino gehiago izanik, Donostiako zuzkidura-maila oso handia da**, eta ez dago gabezia nabarmenik. Gabezia horiek denboraren joanarekin eta estrategia orokor orekatu batekin ordezkatu dira. Estrategia horrek ia hiri osoa hartzen duen eguneroko zuzkidura-sare zabala bermatzen du. **Kiroldegiak, kultura-etxeak, osasun-zentroak eta ikastetxeak dira eguneroko ekipamendu-sare hori egituratzen duten piezak**. Sare hori zehatzagoak eta bereziagoak diren erabilera askok osatzen dute, eta, oro har, eskaintza zabala eta egokia ematen dute.

Indarrean dagoen Plan Orokorrak, 2010ean idatzitakoa, hiriko ekipamenduak zabalki antzematen ditu. Aurreikuspen gehienak bete egin dira, eta esan daiteke ia auzo guztiek dituztela ekipamendu-behar gehienak aseta. Egikaritze-maila handi horren ondorioz, gaur egun orube oso gutxi daude hutsik, are gutxiago leku estrategikoetan. Hori dela eta, ez da erraza, ez eta berehalakoa ere, eskaera berri batzuei erantzuteko lekua aurkitzea.

Premia berriek, hala nola biztanleriaren zahartzeak, berariazko ekipamenduak beharko dituzte, bai eta lehendik dauden batzuk egokitzea ere, eta hiri-garapen berriek ere behar bezala hornituta egon beharko dute, nahiz eta, kasu horretan, garapen berrietarako ekipamenduei buruzko eskakizun juridiko handiek erraz betetzen duten haien beharra.

**Ekipamendu mota desberdinen hierarkia-maila desberdinak eta urbanotasuna sortzeko gaitasuna kontuan hartzeko eta baloratzeko ezaugarri bat da pieza berrien erabilera eta kokapena erabakitze orduan**. Era berean, gomendagarria da Plan berriak kontuan izatea behar adina espazio izan behar duela egon daitezkeen ekipamendu-eskaerei erantzuteko, eta hori ez izateak ez eragozte edo zailtzea behar hiriaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren funtzioak ezartzea edo lekualdatzea.

## 2.1. MANTENER E INCREMENTAR LA CALIDAD Y CANTIDAD DE LOS EQUIPAMIENTOS

**Los equipamientos son en la ciudad elementos que dan servicios esenciales a la ciudadanía**, y es por ello que su adecuada distribución y posicionamiento urbano son muy importantes a la hora de ofrecer dichos servicios. Su posición, variedad, y calidad arquitectónica condicionarán el entorno en el que se encuentran. **Los equipamientos, más allá de su uso específico individual funcionan como elementos catalizadores y dinamizadores de la trama urbana**, por lo que su valor urbano va más allá del mero desempeño de sus funciones.

De acuerdo con los diferentes indicadores analizados y la lectura de las diferentes legislaciones respecto a los mayores niveles de estándares de suelo para sistemas de equipamientos, se puede considerar que con **más de 14,5 m<sup>2</sup>/habitante** (m<sup>2</sup> calificados y en uso), **el nivel de dotación de Donostia / San Sebastián es considerablemente alto**, sin que existan carencias destacables. Dichas carencias se han ido supliendo con el paso del tiempo y con una estrategia general equilibrada, que asegura una amplia red de dotaciones cotidianas de cercanía que abarca casi la totalidad de la ciudad. **Polideportivos, Casas de Cultura, Centros de salud y Centros educativos son las piezas vertebradoras de esta red de equipamientos cotidiana** que se complementa con numerosos usos más específicos y singulares, que dotan de una oferta por lo general variada y adecuada.

El plan general vigente, redactado en 2010, hace un amplio reconocimiento de los equipamientos de la ciudad, en el que la mayoría de las previsiones se han cumplido de forma que se puede llegar a afirmar que casi todos los barrios tienen cubiertas la mayoría de las necesidades de equipamientos. Este elevado grado de ejecución conlleva que hay en la actualidad muy pocos solares vacantes, menos aún en posiciones clave, por lo que no resulta fácil ni inmediato encontrar espacio para satisfacer algunas nuevas demandas.

Nuevas necesidades, como el envejecimiento de la población, requerirán de equipamientos específicos, así como la adaptación de algunos de los existentes, y los nuevos desarrollos urbanos deberán estar también adecuadamente equipados, aunque en este caso las elevadas exigencias jurídicas respecto de la dotacionales de equipamientos para los nuevos desarrollos cubren con holgura la potencial necesidad de los mismos.

**Los distintos niveles de jerarquía y la capacidad de creación de urbanidad de los distintos tipos de equipamientos es una característica para valorar y a tener en cuenta a la hora de decidir los usos y posición de las nuevas piezas**. De la misma forma, es recomendable que el nuevo Plan tenga presente la necesidad de disponer de espacios suficientes para acoger posibles demandas de equipamiento y que la no disponibilidad de dicho suelo, no impida o dificulte la implantación o traslado de funciones necesarias para el correcto funcionamiento de la ciudad.



## 2.2. ERREFERENTZIAKO EKIPAMENDUAK NAHITA KOKATZEA

**Donostia hiri orekatua da ekipamenduei dagokienez, oro har.** Modu homogineoan banaturik, zerbitzatu behar duten biztanleekiko, sareak hiri osoa hartzen du bere baitan, eta berezitasun-gune desberdinak ditu, non hiri- edo lurralde-erreferentziako ekipamenduak biltzen diren. Hiri polizentrikoa dela esan dezakegu, nahiz eta bere zentralitate guztiek ez duten esanahi eta garrantzi bera. Horrela, antolaketa zentrala duen hiri bat izan ordez, hirigune anitzeko hiria da, kulturalki dinamikoa dena, eta hainbat gune espezializatu dituena.

Mendebaldeko sektoreak, **Antigua eta Ibaetak, unibertsitate-eremua du.** Bertan, EHU, UNAV eta Musikeneko kanpusak **ikerketa-zentroekin batera daude**, eta hiriaren zati hori oso ingurune aktibo eta dinamikoa da. Hiriaren sarrera nagusietako batean duen kokapen estrategikoa dela eta, eta Antigua auzoko hiri-bilbearekin jarraituta, oso campus hiritarra da, baina, hiri-bilbearen ertzean kokatzen denez, baztertuta dago, batez ere urteko garai batzuetan eta eguneko ordu batzuetan. Etorkizunean metroa martxan jartzeak, Antigua-Ondarretan geltokia izango duenak, unibertsitatera gaitasun handiko garraio publikoan sartzea erraztuko du.

## 2.2. LOCALIZAR DE MANERA INTENCIONADA LOS EQUIPAMIENTOS DE REFERENCIA

**Donostia / San Sebastián destaca por ser una ciudad equilibrada en términos generales en lo que se refiere a los equipamientos.** Homogéneamente distribuidos, en relación con la población a la que han de servir, la red abarca toda la ciudad y cuenta con diferentes polos de especialización, en los que se concentran equipamientos de referencia urbana o territorial. Así, más que una ciudad con una organización central, es una ciudad multicéntrica con un núcleo culturalmente dinámico, y diversas zonas especializadas.


**El sector Oeste, Antigua-Ondarreta e Ibaeta, cuenta con la zona universitaria,** en la que los campus de la UPV-EHU y UNAV y Musikene (Centro Superior de Música del País Vasco), **conviven con centros de investigación,** haciendo de esta parte de la ciudad un entorno muy activo y dinámico. Su posición estratégica en una de las principales entradas de la ciudad, y en plena continuidad con la trama urbana del barrio del Antiguo, hacen de este un campus muy urbano, que, sin embargo, al posicionarse en el borde de la trama urbana se encuentra aislado sobre todo en algunas épocas del año y en algunas horas del día. La futura puesta en marcha del "Topo", con una estación en Antigua-Ondarreta, facilitará el acceso en transporte público de alta capacidad a la Universidad.

Campus horren osagarri gisa, Deustuko eta Mondragon Unibertsitateak aurkitzen dira; Deustukoa, Urumea ibaiaren ondoan dago, hiriaren erdialdean, eta bere kokapen zentrala indartuko du Erriberako trukagailua martxan jartzeari esker eta AHTa Adifeko geltokira iristeari esker; bestalde, Mondragon Unibertsitateak, Basque Culinary Centerrekin egingo du topo Miramongo parke teknologikoaren ondoan, eta, laster, Grosen, Manteo inguruan, Gastronomy Open Ecosystem (GOE) izeneko ekimenarekin.

**Hiriaren erdiko korridorean, Anoetan, hiriko kirol-ekipamendu handietako asko daude.** Pilotalekuak, igerilekuak, kiroldegia eta futbol-estadio bera dira Donostiako kirol-gune nagusia. Kirola egiteko eremu nagusietako bat da, hiri osoko biztanleak erakartzen dituena. Tamaina handiko ekipamenduak pilotzeak, beste erabilerarik ez izatearekin batera, ingurune monofuntzionala eta hiri-maila txikikoa izatea eragiten du, baina hiri-mugan dagoenez, ez du hiri-hutsune nabarmenik sortzen.

Complementario a este campus, se encuentran la Universidad de Deusto y la Universidad de Mondragón; la primera cuenta con una posición privilegiada junto al río Urumea, en el centro de la ciudad, que verá reforzada su posición central gracias a la puesta en marcha del intercambiador de Riberas, la estación de Euskotren de Easo, no muy lejos, y de la llegada del TAV a la estación de Adif; la segunda, la Universidad de Mondragon, se posiciona con Basque Culinary Center junto al parque tecnológico de Miramon y próximamente también en Gros, entorno de Manteo, con la iniciativa denominada Gastronomy Open Ecosystem (GOE).

**En el corredor central de la ciudad, en Anoeta, se concentran muchos de los grandes equipamientos deportivos de la ciudad,** frontones, piscinas, polideportivos y el mismo estadio de fútbol constituyen el principal polo deportivo de Donostia / San Sebastián. Es uno de los destinos principales a la hora de hacer deporte, atrayendo a población de toda la ciudad. La acumulación de equipamientos de gran tamaño, junto con la ausencia de otros usos, hace que sea un entorno monofuncional y de una escala poco urbana, pero su posición en el límite urbano, no genera vacíos urbanos significativos.







Hegoalderago, **Miramonen, osasun- eta ikerketa-gune nagusia dago**, unibertsitate-ospitalea eta Poliklinika Gipuzkoa elementu nagusi dituelarik Miramongo parke teknologikoaren ondoan. Ingurune hori ibilgailu pribatuaren bidez ondo komunikatuta dago lurraldearekin, GI-20tik sartzeko dagoen zuzeneko sarbideari esker. Hiri-bilbetik urrun dago, oinez edo bizikletaz ibiltzea eragozten duen topografia malkartsuko gune batean, eta garraio kolektiboko korridore nagusietatik urrun. Hori dela eta, ospitaleetako eta parke teknologikoko milaka langilek ibilgailu pribatua erabili behar izaten dute, horrek dakartzan ondorioekin. Irisgarritasuna eta bertara hainbat erara heltzeko aukerak funtsezkoak izango dira mugikortasun handia sortzen duten pieza berriak ezartzeko eta haietarako irisgarritasun jasangarria bermatzen saiatzeko, batez ere, garraio publikoaren bidez. Ingurune horietarako mugikortasun-planak lurralde-maila batetik hartu behar dira kontuan, ospitale-gune horren dimentsioak udal-maila nabarmen gainditzen baitu.


Azkenik, **hiriaren erdigunean ekipamendu adierazgarri eta kultural gehienak daude**. Erakundeetako egoitzak, administrazio-bulegoetako asko, museoak (San Telmo, Aquarium, Tabakalera, Koldo Mitxelena, Elizbarrutiko Museoa, Euskal Itsas Museoa Historiaren Etxea ...) eta espazio eszenikoak (Antzoki Zaharra, Victoria Eugenia antzokia edo Kursaal) inguru horretan daude. Hori dela eta, gehien erabiltzen den hiriko eremua da, eta turismoak, Donostiako hirian garrantzi handia duen jarduerak, presioa gehitzen du bertan.

Multipolaritate hori oso agerikoa da Donostian, ekipamenduen espezializazioarekin batera, auzoek izaera berezia izan dezaten eta erakargune bat izan dezaten laguntzen du. Horri esker, auzo horiek hiri- eta lurralde-sarean barneratu daitezke, eta aintzat hartu eta azalarazten dira. Hala ere, ekialdeko sektoreak, hiriko jendetsuenak, ditu gabezia gehien. Hurbileko ekipamendu-sarea badago ere, korridore horrek ez ditu behar adina erreferentziazko ekipamendu, gainerako eremu espezializatuekin alderatuta, hiri- eta lurralde-garrantzia izateko.

Más al sur, en **Miramón, se encuentra el principal polo sanitario y de investigación**, con el hospital universitario y la Policlínica Guipúzcoa como principales elementos junto al parque tecnológico de Miramón. Este entorno, bien comunicado con el territorio mediante el vehículo privado, gracias al acceso directo desde la GI-20, se encuentra en una posición algo alejada del continuo urbano, en una zona de topografía accidentada que dificulta el acceso a pie o en bici, y se encuentra alejado de los principales corredores de transporte colectivo, por lo que los miles de personas trabajadoras de los hospitales y el parque tecnológico se ven a menudo forzados a usar el vehículo privado para llegar a él con las consiguientes externalidades que esto conlleva. La accesibilidad y el acceso multimodal serán claves a la hora de posicionar nuevas piezas que generen mucha movilidad, y tratar de asegurar una accesibilidad sostenible hacia ellos, principalmente servida a través del transporte público. Los planes de movilidad a estos entornos deben contemplarse desde una escala territorial ya que la dimensión de este polo hospitalario supera ampliamente la escala municipal.

Por último, **en el centro de la ciudad nos encontramos con la mayoría de los equipamientos representativos y culturales**. Las sedes de las diferentes instituciones, muchas de las oficinas administrativas, así como los museos (San Telmo, Aquarium, Tabakalera, Koldo Mitxelena, Museo Diocesano, Museo Marítimo Vasco, Casa de la Historia...) y espacios escénicos (Antzoki Zaharra, Victoria Eugenia, o Kursaal) se encuentran en esta zona. Esto lleva a que sea la zona de la ciudad de uso más intensivo, al que el turismo, actividad de enorme relevancia en la ciudad de Donostia / San Sebastián, añade presión.

Esta multipolaridad, muy evidente en Donostia / San Sebastián, junto con la especiilización de los diferentes equipamientos, ayuda a que los diferentes barrios tengan un carácter diferenciado y un polo motor-atractor, que permite una integración de estos en la red urbana y territorial, dándole reconocimiento y visibilidad. Sin embargo, el sector Este, el más poblado de la ciudad, es el que cuenta con mayores carencias en este sentido. Si bien existe red de equipamientos de cercanía, este corredor cuenta con equipamientos de referencia insuficientes para poder dotarse de relevancia urbana y territorial en comparación con el resto de zonas especializadas mencionadas.





Antzeko zerbait gertatzen da Urumeako ibarraren bukaeran, Loiolatik aurrera, trenbidearen eta GI-20aren beste aldean. Hedapen azkarreko gunea da eta bertan Donostiako bizitegi-garapen berri gehienak aurreikusten dira, Martuteneraino hiri-jarraia sortzen delarik, baina ia ez du hiri edo lurralde erreferentziatzeko ekipamendurik. Gaur egun, gainera, gabezia handiak ditu hurbileko ekipamenduetan, hala nola kultura-, irakaskuntza- eta osasun-ekipamenduetan.

Bizitegi-eragiketa berriek aukera ematen dute, eta **Planaren garapenak aukera hori landu beharko du, hiri-eremu horietan erreferentziatzeko ekipamenduak ezartzeko aukera bilatuz**. Ekialdeko korridorean, **Aduritz-Akularren** jarduketak, HAPO berriaren **hiri-jarduketa nagusi** gisa, ekipamendu esanguratsu bat izan beharko du hiriarentzat edo lurraldearentzat birika berde berria izango den parke berria aintzat hartuta.

Loiolako hiri-jarraipenak Martuteneraino duen kokapen estrategikoak, lurralde-irigarritasun handia duen eta hirira sartzeko hegoaldeko atetik zein trenbidetik hurbil dagoena, leku aproposa bihurtzen du **Urumeako kultur ardatza** osatuko duten erreferentziatzeko ekipamenduak sartzeko. Ildo horretan, kultur ardatz hori eratzen laguntzeko, **ibaian zehar egin nahi diren garapen berriek** zuzkidura-partzelak aurreikusi ahal izango dituzte. Aipatutako ardatza, Kursaalarekin, Victoria Eugeniarekin eta Tabakalarekin hasi eta, ibai-pasealekuaren amaieran amaitu liteke Martutenen ekipamendu bat jarrita. Era berean, Urumean zehar dauden jarduketa horiek urarekin eta ingurumenarekin lotutako beste erabilera batzuk sortzeko aukera ematen dute, Kristinaeneako Ingurumen Baliabideen Zentroarekin eta dauden kirol-ekipamenduekin (Ur kirolak eta elkarten beste instalazio batzuk) bat etorritz. Ildo horretan, Loiolako Kuartelen (Urdintzu) jarduketa funtsezkoa, erdian eta lotuta egongo baita.

## 2.3. EKIPAMENDUAK INGURUKO ESPAZIO LIBREEKIN LOTZEA

Ekipamenduaren dimentsio soziala eraikinetik haratago doa, eta espazio publikoak eraikinen funtzionamenduan eragiten du. Modu egokian kokatuta eta lotuta, herritarren eguneroko bizitza garatzen duen zuzkidura-sare bat sortzen dute. Horregatik, garrantzitsua da erabileraren eta espazioaren arteko lotura hori sendotzea eta indartzea.

**Esan bezala, Donostiak zuzkidura-maila handia du, eta etorkizuneko garapenek osatzen eta mantentzen jarraitu beharko dute.** Pieza berrien kokapenari eta definizioari lotutako jarduketetan, garrantzitsua da espazio libreen sistemarekin koherentzia ezartzea, eta, alderantziz, espazio libreei eragiten dieten proposamenak, beste dokumentu batzuen bidez, ekipamenduen arabera ezarri beharko dira.

Hiri-ingurunean ekipamenduak egoteak herritarren bizitzarako beharrezkoak diren zerbitzu jakin batzuk ematearekin zerikusia duten faktoreei die erantzun behar die, baita **espazioak eta ibilbideak kualifikatzeko gaitasun estrategikoari** ere. Horren adibide bikaina da Urumea ibaia, ibaiko pasealekuarekin batera doazen ekipamendu-pieza guztiekin. Ardatz horrek Martuteneraino iristen den eta sendotze-prozesuan dagoen lurralde-eremu osoa egituratzen du. Korridore hori beste hiri-ardatz garrantzitsu batzuekin integratzea eta ekipamenduen arteko sinergiak sortzea lagungarria izango da espazio eta eraikinen sare zibikoa sendotzeko.

**Ekipamenduaren estrategia Planaren gainerako ardatz egituratzaileekin, mugikortasunarekin eta espazio libreekin (bai lehendik daudenekin, bai planteatutakoekin) batu eta koordinatzea ulertu behar da eremuak hiri barruko joan-etorrien erreferente gisa kualifikatuz.** Are gehiago, ekipamendu-sareak klima-babeslekuaren funtzioa izateko beharra ere jaso beharko duela kontuan hartuta.

Algo similar ocurre en la parte final de la Vega del Urumea, a partir de Loiola, al otro lado de las vías del tren y la GI-20. Zona de rápida expansión y en la que se prevén la mayoría de nuevos desarrollos residenciales de Donostia, generando un continuo urbano hasta Martutene, apenas cuenta con equipamientos de referencia urbana o territorial y que, además actualmente, presenta carencias en equipamientos de proximidad, como cultural, docente y sanitario.

**Las nuevas operaciones residenciales proporcionan una oportunidad que el desarrollo del Plan deberá trabajar buscando la posibilidad de permitirán introducir equipamientos de referencia en estos ámbitos urbanos.** En el corredor Este, la operación en **Aduritz-Akular**, como **principal actuación** urbana del nuevo PGOU, deberá poder contar con un importante equipamiento en la ciudad o el territorio apoyado en el nuevo parque previsto para la zona, un nuevo pulmón verde para la ciudad.

La posición estratégica del continuo urbano de Loiola hasta Martutene, gran accesibilidad territorial y cerca de la puerta de acceso sur a la ciudad y cerca de la línea de ferrocarril, hacen de esta zona el lugar idóneo para incorporar equipamientos de referencia que **completen el eje cultural del Urumea**. En este sentido, **los nuevos desarrollos previstos a lo largo del río** podrán prever parcelas dotacionales que apoyen la conformación de este eje cultural que comenzando con el Kursaal, Victoria Eugenia, Tabakalera podría culminar al final del paseo fluvial con un equipamiento en Martutene. Así mismo estas actuaciones a lo largo del Urumea abren la oportunidad de generar otros usos ligados al agua y al medio ambiente en línea con el Centro de Recursos Medio Ambientales de Cristina-enea y los equipamientos deportivos existentes (Ur kirolak y otras instalaciones de clubes). En este sentido, la operación de los **Cuarteles de Loiola (Urdintzu)** se presenta como **una pieza clave**, céntrica y conectada.

## 2.3. INTERCONECTAR LOS DIFERENTES EQUIPAMIENTOS CON LOS ESPACIOS LIBRES DE SU ENTORNO

La dimensión social del equipamiento trasciende al propio edificio, y el espacio público interviene en el funcionamiento de éste. Adecuadamente ubicados y conectados, generan una red dotacional en torno a la que se desarrolla la vida cotidiana de la ciudadanía. Es por ello importante consolidar y potenciar esta relación entre uso y espacio.

**Donostia / San Sebastián cuenta** como ya se ha indicado, **con un muy elevado grado de dotación, que los futuros desarrollos deberán seguir complementando y manteniendo.** En las actuaciones vinculadas a la localización y definición de las nuevas piezas, es importante que se establezcan en coherencia con el sistema de espacios libres, y recíprocamente, las propuestas que afecten a los espacios libres a través de otros documentos tendrán que establecerse con relación a los equipamientos.

La presencia de las piezas de equipamiento dentro del contexto urbano ha de responder, no solamente a los factores relacionados con la cobertura o prestación de determinados servicios necesarios para la vida ciudadana, sino también y muy particularmente, **a su capacidad estratégica de cualificar los espacios y los recorridos.** El Urumea representa un estupendo ejemplo de ello, con toda una serie de piezas equipamentales que acompañan el paseo del río. Este eje vertebrado todo un ámbito territorial que llega hasta Martutene y que está en proceso de consolidación. Integrar este corredor, con otros ejes urbanos importantes y generar sinergias entre los distintos equipamientos favorecerán la consolidación de una red cívica de espacios y edificios.

**La suma y coordinación de la estrategia equipamental con el resto de los ejes vertebradores del plan, movilidad y espacios libres, tanto existentes como planteados, han de entenderse cualificando los espacios como referentes de desplazamiento dentro de la ciudad de una forma intencionada.** Más considerando que la red de equipamientos deberá incorporar también la necesidad de albergar la función de **refugios climáticos.**



## 2.4. EGUNGO ETA AURREIKUSITAKO ZUZKIDURAK OSATZEA

Zenbait hiri-inguru eraldatzeko beharrezkoa da, **halaber, inguru horietan biziko diren biztanleei baliagarri izango zaizkien ekipamenduak izatea, bai eta inguruetan dauden gabeziak betetzea ere**. Herritarren kontsultak agerian utzi zituen Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egitean kontuan hartu beharko diren gabezia batzuk. Gabezia horiek ez dute zuzenean ekipamenduetarako erabilera zehatzik adierazten, baina, hala ere, HAPOk zuzkidurek egungo eta etorkizuneko beharrei erantzuteko erreserbak eta jarraibide egokiak ezartzen saiatu behar du.

**Gabezia horiek bi talde nagusitan bil daitezke: adierazgarritasun-gabezia eta gabezia funtzionalak.** Adierazgarritasun-gabeziak, lehenago azaldu den bezala, hiriko hainbat eremuen arteko nolabaiteko desoreka eragiten dute erreferentziako ekipamenduei dagokienez. Ekialdeko barrutiak ez du erdiko eta mendebaldeko eremuen bezalako espazio ezagunik. Gabezia funtzionalen ondorioz, hiriko zenbait inguruetan ekipamendu-eskari batzuk bete gabe daude, eta, batzuetan, adierazpen-gabezien alderantzizkoa da; izan ere, erdiko eremuak, besteak beste, gabeziak ditu eguneroko ekipamenduei dagokienez, hala nola kiroldegiei, baina hiri-inguruko beste auzo batzuetan, aldiz, ia beti daude.

Jarraian, antzemandako ekipamendu desberdinen gabezien azterketa egingo da, herritarren parte-hartzearen edo planaren bulegoaren beraren lanaren bidez. Plan Orokorren dokumentu berrian sartu beharko liritekeela uste da, eta plangintzako Aurrerakin dokumentu honetan zerrendatu dira.

Planaren garapenean, zenbait ekipamenduren kalifikazioari buruzko zehaztasun falta batzuk ere zuzendu beharko dira; adibidez, Larratxoko Kultur Etxea, eraikina Correos-ekin partekatzen duena eta gaur egun aparkaleku kalifikazioa duena.

## 2.4. COMPLEMENTAR LAS ACTUALES DOTACIONES EXISTENTES Y PREVISTAS

La necesaria transformación de algunos entornos urbanos, conlleva también la necesidad de incorporar en ellos **equipamientos que sirvan tanto a la población que va a residir en ellos, como para suplir las carencias existentes en sus alrededores**. La consulta ciudadana evidenció ciertas carencias que habrán de ser tenidas en cuenta en la elaboración del PGOU, que, si bien no indica directamente usos específicos de los equipamientos, ha de procurar dotar de reservas y establecer directrices adecuadas para que las dotaciones atiendan a las necesidades actuales y futuras.

Dichas **carencias se pueden englobar en dos grupos generales: carencias de significancia y carencias funcionales**. Las carencias de significancia suponen, como se ha explicado previamente, un cierto desequilibrio en cuanto a equipamientos de referencia entre distintas zonas de la ciudad, cuyo distrito Este carece de espacios reconocibles como sí tienen el sector central y oeste. Las carencias funcionales, suponen que hay demandas de equipamiento sin cubrir en algunos entornos de la ciudad. Esta carencia es a veces inversa a las carencias de significancia, pues nos encontramos con que la zona central, entre otras, tiene déficits en cuanto a equipamientos cotidianos como polideportivos, que, sin embargo, en otros barrios más periféricos están casi siempre cubiertos.

Se realiza, a continuación, una potencial cuantificación de los déficits de diferentes equipamientos detectados, ya sea a través de la participación ciudadana o del trabajo propio de la oficina del Plan, y que se considera que deberían incorporarse en el nuevo documento del Plan General que se redacte y que ahora se relacionan en este documento de avance de planeamiento.

En el desarrollo del Plan también se tendrán que corregir algunas inexactitudes en cuanto a calificación de algunos equipamientos; ejemplo de este caso es la Casa de Cultura de Larratxo, que comparte edificio con Correos y actualmente tiene calificación de aparcamiento.

### HEZKUNTZA-EKIPAMENDUAK

**Hiriak ikastetxe ugari ditu ia herritar guztiei zerbitzu ona ematen dietenak**. Ikastetxe publikoak, gainera, estrategikoki kokatuta daude hiriko gune irisgarrietan, eta beren inguruneak dinamizatzen dituzten hiriko erreferentzia-piezak dira. Zabalguneko eta Amarako zentroek hiri osoko biztanleei eskaintzen dieten zerbitzu orokorraren ondorioz, bertako ikastetxeak gainezka daude. Hori dela eta, dagoen eskaerari erantzun ahal izateko eta aurreikusitako hiri-garapeneke eremu horietara ekarriko duten herritar berriei zerbitzua emateko, Urumeako korridorean bigarren hezkuntzako institutu bat eraikitzea eskatu da. Berrito ere, Urdintzu-Loiolako Kuarteletako jarduketa aukera ona da ekipamendu hori ezartzeko, 10.000 m<sup>2</sup> inguruko lurzorua behar duen pieza berria txertatzeko.

### EQUIPAMIENTOS EDUCATIVOS

La ciudad cuenta con numerosos centros educativos que **dan buen servicio a casi la totalidad de la población**. Los centros educativos públicos, se encuentran además ubicados estratégicamente en las zonas accesibles de la ciudad y son piezas de referencia urbana que dinamizan sus entornos. El servicio general que los centros del Ensanche y Amara proporcionan a la población de toda la ciudad han llevado a que los centros educativos de esta zona estén muy saturados, por lo que se ha solicitado que se construya un instituto de secundaria en el corredor del Urumea que permita atender a la demanda existente y dar servicio a la nueva población que los desarrollos urbanos previstos traerán a esta zona. Nuevamente, la operación de Cuarteles de Loiola (Urdintzu) es una buena oportunidad para albergar este equipamiento, que necesitará una nueva pieza en torno a 10.000 m<sup>2</sup> de suelo.







Bestalde, Francisco Escudero Udal Musika Eskola eta Musika Kontserbatorio Profesionala euren edukieraren mugan daude gaur egun, beraz, Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalak 4.000 eta 7.000 m<sup>2</sup> bitarteko lursaila eskatu du erabilera horretarako. Ekipamendu horren hiri- eta lurralde-garrantzia dela eta, hiri-irisgarritasun handiko tokian kokatu beharko litzateke. Erdigunea kokalekua egokia litzateke funtzio horretarako, baina bertako lurzoru gabeziak egin dezake. Erabilerarik gabeko ekipamenduak aprobetxatzeko aukera egongo litzateke eskari hori edo besteren bat betetzeko edo Easoko trenbide-zabaltza azalera hori izateko aukera garatzeko.

**Plangintzako Aurrerakin honetan 10.000 etxebizitza inguru gehiago aurreikusteak berekin ekarriko du kasuan kasuko dagozkin hezkuntza-ekipamenduak ezartzea.** Sail eskudunak behar horiek zehaztu arte, Haur eta Lehen Hezkuntzako 5 ikastetxe berri eta Bigarren Hezkuntzako 4 ikastetxe beharko direla zenbatetsi daiteke.

#### OSASUN-EKIPAMENDUAK

**Osasun-zentroen sarea modu uniformean banatuta dago hiri osoan;** beraz, une honetan ez dago gabezia nabarmenik. Hala ere, muturrek, Añorgak eta Martutenek, ez dute ambulatoriorik edo osasun-zentrorik (Ondarretako eta Loiolako osasun-zentroetara joan beharra dago, hurrenez hurren), eta, ondorioz, joan-etorri asko egitera behartuta daude bertako bizilagunak. Eremu horietan egiten diren bizitegi-jarduketa berriek kontuan hartu beharko dute gabezia hori, eta, behar izanez gero, haietan osasun-zentroren baten aurreikuspena ere jaso beharko dute. Añorgan GI-20 errepidearen lotuneak okupatzen duen espazioaren berrantolamendua, mendebaldean, eta Loiolako Kuartelena (Urdintzu), ekialdean, tamainagatik erabilera horiek ezarri ditzaketen bi jarduketa dira.

Partzela handiak okupatu beharrik ez duten ekipamenduak dira, eta eraikin berean beste erabilera batzuekin bateragarriak izan daitezke, hirian txertatzea errazteko.

Bestalde, erreferentziazko osasun-ekipamenduei dagokienez, **unibertsitate-ospitaleak berariaz eskatu zuen egungo instalazioak ia 10.000 m<sup>2</sup>-tan handitzea,** eta, horretarako, ospitalearen hegoalderantz zabaltzea proposatzen da.

Por otro lado, la Escuela Municipal de Música y el Conservatorio Profesional están actualmente al límite de su capacidad, por lo que el Conservatorio Profesional ha solicitado una parcela de entre 4.000 y 7.000 m<sup>2</sup> para este uso. Dada la significancia urbana y territorial de este equipamiento, debería ubicarse en una posición de gran accesibilidad urbana. Una posición céntrica sería adecuada para esta función, pero la carencia de suelos en el entorno puede dificultarla. Cabría la posibilidad de aprovechar equipamientos en desuso para albergar esta u otra demanda o desarrollar la posibilidad de disponer esta superficie en la ordenación de la playa de vías de Easo.

**La previsión de en torno a 10.000 viviendas más que se realiza en el presente Avance de planeamiento comportará la necesaria dotación de las correspondientes piezas escolares,** que a la espera del establecimiento por el departamento competente en la materia se puede estimar que serán necesarios 5 centros nuevos de educación infantil y primaria y 4 centros de enseñanza secundaria.

#### EQUIPAMIENTOS SANITARIOS

**La red de centros sanitarios se encuentra uniformemente repartida por toda la ciudad,** por lo que no existen en este momento carencias notables. Sin embargo, los extremos, tanto Añorga, como Martutene, carecen de ambulatorios o centros de salud, (deben acudir a los centros de salud de Ondarreta y Loiola, respectivamente), lo que obliga a realizar desplazamientos. Las nuevas actuaciones residenciales que se lleven a cabo en estas zonas deberán tener en cuenta esta carencia e incorporar, en caso necesario, previsión de algún centro de salud en ellos. La reordenación de espacio ocupado por el nudo viario de la GI-20 en Añorga, en el oeste, y los Cuarteles de Loiola (Urdintzu), al este, son dos operaciones que, por su tamaño, podrían incorporar estos usos.

Son equipamientos que no tienen por qué ocupar grandes parcelas y que pueden ser compatibles con otros usos en el mismo edificio, facilitando su integración urbana.

Por su parte, en cuanto a equipamientos sanitarios de referencia, el **hospital universitario solicitó expresamente la posibilidad de ampliar sus actuales instalaciones en casi 10.000 m<sup>2</sup>,** para lo que se propone la ampliación hacia el sur de éste.





### KIROL-EKIPAMENDUAK

**Donostiako kiroldegien sareak ia hiri osoa hartzen du, Altzako Kiroldegiaren eraikuntza berriarekin.** Oro har, auzo mailan, posizio estrategikoetan kokatzen dira, erdiguneetan eta ondo komunikatuta, erreferentziazko hiri-piezen funtzioa betetz. Sareak, hala ere, gabezia nabarmenak ditu, hiriaren zenbait gunetan.

Erdialdeak ez du kiroldegirik. Easoko trenbide-zabaltza desagiteak aukera ematen du horretarako. 550 bat etxebizitzako jarduketa bat planteatzen da, eta horri esker posible eremu horretan kiroldegi bat ezartzeko zuzkidura-partzela bat eskuratzea, egun dauden gabezien aurrean.

Era berean, Martutenek eta Añorgak, pilotalekua eta futbol-zelaiak izan arren, ez dute ez kiroldegirik ezta antzekorik ere. Leku zehatz horietan lurzorurik ez dagoenez, HAPOk, pieza horiek kokatzeko, hirigintzako barne- eta eraldaketa-jarduketaz baliatzea proposatzen du.

Mendebaldeko korridorean, lotuneak hartzen dituen lurren eraldaketak aukera ematen du bertan kiroldegia ezartzeko. Kirol-ekipamendu horrek, kirol-zuzkidura maila hobetuko luke, ez bakarrik Añorgako egungo biztanleentzat, baita inguruko bizilagun berrientzat, baita ekialderago dauden Errotaburu eta Atotxaerrekako biztanleentzat ere. Era berean, Martutenen aurreikusitako garapenek, eremu horri, futboletik haratago kirola egin ahal izateko, kirol-ekipamendu bat ezarri ahal izateko balio beharko dute.

Azkenik, Txingurrigañan dagoen futbol-zelaia Merkaderera joango da. Zelai horrek futbola eta errugbia praktikatzeko ahalbidetuko du, beraz, hiri-mailan erreferente izango den kirol-gune bilakatuko da. Kirol zehatz batzuetarako pistei buruzko eskaerak (hondartzako volley, padle eta pickleball...) leku asko duen eremu horretan ezarri daitezke. Garraio publikoko korridore nagusietatik pixka bat aldentuta eta urrunduta dagoenez, hausnarketa egin behar da ekipamenduen eta mugikortasun jasangarriaren arteko erlazioari buruz.

### KULTURA-EKIPAMENDUAK

**Donostia kultura-ekipamenduei dagokienez, zuzkidura-maila oso handia duen hiria da.** Eguneroko sarea, ia hiri osoan zehar banatuta dauden eta espezialitate bereziak dituzten kultur-etxeek osatzen dute eta, oro har, hiriaren erdigunean dauden pieza esanguratsu batzuk sare horren osagarri dira. Bi sareek sistema bat osatzen dute, zerbitzuak gune bakar batean bildu gabe.

### EQUIPAMIENTOS DEPORTIVOS

**La red de polideportivos de Donostia / San Sebastián abarca ya casi la totalidad de la ciudad con la reciente construcción del nuevo Polideportivo de Altza.** Se ubican generalmente en posiciones estratégicas a nivel de barrio, céntricas y bien comunicadas, cumpliendo con su función de piezas urbanas de referencia. Esta red, sin embargo, cuenta con carencias significativas en algunas partes de la ciudad.

El centro urbano, espacio de significancia para la ciudad, no cuenta con un polideportivo. El desmantelamiento de la playa de vías de Easo genera una oportunidad en este sentido. Se plantea una operación con cerca de 550 viviendas y que permitiría conseguir una parcela dotacional que podría albergar un polideportivo en esta zona, supliendo las carencias existentes.

De igual forma, Martutene y Añorga, aunque disponen de frontón y campos de fútbol, carecen también de estos tipos de instalación, polideportivos o similares. Ante la carencia de suelos disponibles en estos lugares concretos, el PGOU propone aprovechar las operaciones urbanísticas interiores y de transformación para ubicar estas piezas.

En el corredor Oeste la transformación de los suelos ocupados por el nudo viario proporciona una oportunidad para dotar al entorno de un polideportivo. Un equipamiento deportivo en esta ubicación mejoraría el nivel de dotación deportiva no solo a los actuales habitantes de Añorga, sino a los potenciales nuevos vecinos de la zona, así como a los de Errotaburu y Atotxaerrekako, más al este. De igual modo, los desarrollos previstos en Martutene deberán servir para poder dotar este ámbito de un equipamiento deportivo que permita la práctica del deporte más allá del fútbol.

Por último, el campo de fútbol de existente en Txingurrigaña se trasladará a Merkader, al sur de la GI-20. Este campo permitirá la práctica tanto del fútbol como del rugby, por lo que está llamado a convertirse en un espacio deportivo referente a nivel urbano. Las distintas demandas en cuanto a pistas de deporte específico (Volley playa, padle y pickleball...) podrían ubicarse en esta zona que cuenta con abundante espacio. Su posición algo apartada y alejada de los principales corredores de transporte público obliga a hacer una reflexión en cuanto a la relación entre equipamiento y movilidad sostenible.

### EQUIPAMIENTOS CULTURALES

**Donostia / San Sebastián es una ciudad extraordinariamente dotada en cuanto a equipamientos culturales.** La red cotidiana, compuesta de casas de cultura, dotadas cada una de una especialidad diferente y distribuida por casi toda la ciudad, se complementa con algunas grandes piezas significativas, ubicadas generalmente en la zona más céntrica de la ciudad. Ambas redes forman un sistema en el que las piezas se complementan, sin concentrar los servicios en una única zona.





Horrek nolabaiteko desoreka sortzen du, inguruko auzoek gabeziak baituzte zentzu horretan. HAPOk proposatzen dituen hiri-garapen berriek aukera ematen dute haietan kultura-ekipamendu esanguratsuak naiz auzo-mailako ekipamenduak ezartzeko. Era horretan, auzo guztiak sistemaren barne integratzea ahalbidetzen da. Esan bezala, Aduritz-Akular eta Loiolako Kuartelak (Urdintzu) horretarako aproposak dira. Urdintzuren kasuan kokapena oso estrategikoa da, bi trenbideetatik hurbil (Euskotren eta Renfe) eta, beraz, gaitasun handiko garraio kolektibotik gertu, hiri- eta lurralde-irrigarritasun handiko posizioan. Beraz,, hiri-mailako ekipamendu kulturala izan dezake.

Bestalde, garapen berriek, bai ekialdean, bai mendebaldean eta baita Urumean ere, kultur etxeen sarea egokitzea eskatuko dute, ziurrenik euren eskaintza handitu beharko baitute kokaleku berriekin. Zentzu horretan, Añorga da egungo saretik aldeniena.

Kalifikazioari dagokionez, zehaztasun falta batzuk ere zuzendu beharko dira, esate baterako, Larratxoko Kultur Etxeari dagokiona aparkalekutzat jotzen baita une honetan.

#### ASISTENTZIA-EKIPAMENDUAK

**Laguntza-ekipamenduen sarea nahiko zabala bada ere, nahiko polarizatua dago** (laguntza-ekipamendu gehienak Berio-Antigua eta Ategorrieta-Intxaurren inguruetan daude; irrigarritasun gutxi biko eremu dira, eta nahiko baztertuak), beraz, **HAPOko Aurrerakin honek sare hori zabaltzea proposatzen du, gaur egun eginkizun horiek betetzen dituzten baina ekipamendu gisa kalifikatuta ez dauden ekipamendu batzuk aintzat hartuta.** Ekipamendu horietako asko Ategorrieta inguruan daude, Jose Elosegiri hiribidetik hurbil, nagusiko bizitegikoa den inguru batean. Horrela, San José de la Montaña, Pro Maioerem – San Ignacio adineko pertsonen egoitzak edo Matia – Lamourous fundazioa, gaur egun jardura ekonomiko gisa kalifikatuak, ekipamendu-sarean jaso daitezke, eta, hala, lurzorua birbaloratzeak funtzio horiek urrunago eramatea ekidin daiteke.

Esto genera un cierto desequilibrio pues los barrios periféricos tienen carencias en este sentido. Los nuevos desarrollos urbanos que propone el avance del PGOU abren la oportunidad a incorporar en ellos equipamientos culturales significativos y de escala de barrio de modo que todos los barrios queden integrados en el sistema. Tal como ya se ha mencionado, tanto Aduritz-Akular como Cuarteles de Loiola (Urdintzu) son dos áreas propicias para ello. La estratégica ubicación de Cuarteles de Loiola (Urdintzu), cerca de las 2 líneas de tren (Eusko Trenbideak y Renfe) y, por tanto, al transporte colectivo de alta capacidad, hacen que esté ubicado en una posición de gran accesibilidad urbana y territorial, por lo que podría contar con un equipamiento cultural de escala urbana.

Por otra parte, los nuevos desarrollos, tanto en el este, como en el oeste, así como en el Urumea, exigirán una adecuación de la red de casas de cultura, que probablemente tendrá que ampliar su oferta con nuevas ubicaciones. Añorga es en este sentido el que más apartado está de la red actual.

También se tendrán que corregir algunas inexactitudes en cuanto a calificación, como es el caso de la Casa de Cultura de Larratxo, que tiene calificación de aparcamiento en estos momentos.

#### EQUIPAMIENTOS ASISTENCIALES

**Si bien la red de equipamientos asistenciales es bastante amplia, existe una polarización** (la mayoría de los equipamientos asistenciales se concentran en la zona de Berio-Antigua y Ategorrieta-Intxaurren; dos zonas poco accesibles, y un tanto aisladas) **y el presente avance del PGOU se propone ampliar dicha red con el reconocimiento de algunos equipamientos que actualmente cumplen dichas funciones, pero que no están calificados como equipamiento.** Muchos de estos equipamientos se encuentran en el entorno de Ategorrieta, cerca de la Avenida Jose Elosegiri, un entorno mayoritariamente residencial. Así, las residencias de personas mayores San José de la Montaña, Pro Maioerem – San Ignacio, o la fundación Matia – Lamourous, actualmente calificadas como actividades económicas, podrían pasar a formar parte de la red de equipamientos, evitando así que la posible revalorización del suelo desplace estas funciones a posiciones más alejadas.

Biztanleriaren zahartzea errealitate bat da, eta datozen urteetan erantzun bat eman beharko zaio, gertaera horrek gure gizartearen osakeran eta sortzen diren beharretan duen garrantziaren arabeko neurriekin. **Gizarte Ekintzak azpimarratu du beharrezkoa dela Zahartze Osasuntsuko Zentroak izatea,** zahartze aktiboa, gizartearen integratua eta, beraz, hurbilekoa ahalbidetuko duten ekipamenduak, eta horrek, aldi berean, erdiguneko hiri-kokapena eskatzen du, aurreikusitako hiri-garapenak baloratu beharrekoa.

#### BESTELAKO EKIPAMENDUAK

**Gainerako ekipamenduetarako, lurzoru-eskaintza behar bezain zabala eta horien erabilaren arabeko kokapen egokia bermatu behar da.** Egungo eskaintza handitu ahal izango da etorkizuneko beharren arabera.

Hurrengo urteetan Loiolako kuartel militarra lekuz aldatuko da.

Bestalde, Intxaurren dagoen Guardia Zibilaren kuartelak hainbat kalifikazio ditu: bizitegikoa, berdegunea eta ekipamenduak, etab.. Hala ere, gune hori elementu bakar gisa ulertzeak pieza osoa ekipamendu bakar gisa kalifikatzeko beharra adierazten du. Horrek hiri-pieza horren kudeaketa erraztu lezake, zentraltasun handikoa, baina biztanle gehienentzat helezina.

Azkenik, Planaren garapenak arretaz begiratu beharko du, gaur egungo Donostiako Emakumeen Etxeak behar duen lekua izan dezan. Izan ere, Amara kaleko 11, 13. eta 17. zenbakietan kokatuko dela aurreikusten da, baina Easoko trenbide-zabaltzaren hiri-garapenak dakarren aukera-eremuan ere kokapen nagusia eta irrigarria aurki dezake.

El envejecimiento de la población es una realidad que tendrá que ser respondida en los próximos años con medidas acordes a la importancia de este hecho en la composición de nuestras sociedades y en cuanto a las necesidades derivadas. **Desde Acción Social se han remarcado la necesidad de contar con Centros de Envejecimiento Saludable,** equipamientos que favorezcan un envejecimiento activo, integrado en la sociedad, y por ello cercano, lo cual exige a su vez una posición urbana central que los desarrollos urbanos previstos deberán valorar.


#### OTROS EQUIPAMIENTOS

**Para el resto de los equipamientos, se ha de garantizar una oferta de suelo lo suficientemente amplia y una adecuada ubicación** en relación con el uso de los mismos, pudiendo ampliar la oferta actual dependiendo de las necesidades futuras.

El traslado del cuartel militar de Loiola, efectivo en los próximos años. Por su parte el cuartel de la Guardia Civil de Intxaurren, está hoy en día calificado con una variedad de calificaciones, residencial, espacio verde, equipamientos, pero la comprensión de esta zona como un único elemento, sugiere la necesidad de calificar toda la pieza como un único equipamiento. Esto podría facilitar la gestión de dicha pieza urbana, de una gran centralidad, pero inaccesible a la inmensa mayoría de la población.

Finalmente, el desarrollo del Plan deberá quedar vigilante ante la necesidad de mayor espacio de la actual Casa de La Mujer de Donostia / San Sebastián que previsiblemente se espera se sitúe en los números 11, 13 y 17 de la c/ Amara, pero que podría encontrar también ubicación central y accesible en el área de oportunidad que supone el desarrollo urbano de la playa de vías de Easo.







## 3. Hiri- eta lurralde-mugikortasunerako azpiegiturak antolatzea

**Azpiegiturak oinarritzko eginkizuna betetzen dute Euskal Herriko lurralde, hiri eta herrien antolamenduan.** Donostiaren kasuan, garraioaren lurralde-azpiegituren antolamenduak, batez ere errepide eta trenbideenak, hiriko zenbait tokitan hiri-jarraitutasuna baldintzatzen du. Indarrean **dagoen HAPOn berrikuspen-prozesua, bai hiriko bai lurraldeko azpiegitura horiek birpentsatzeko eta hirigintza doituagoa eta egokiagoa diseinatzeko unea da.** Hirigintza honek, hiri-ehunaren kohesio handiagoa ahalbidetzeaz gain, mugikortasun osasungarriaren bidezko distantzia laburreko joan-etorriak ahalbidetzearen aldeko apustu argia egingo du.

Azpiegitura horien plangintzak, alde batetik, kanpo-konexio hobeak bermatzeko aukera, eta, bestetik, udalerraren barne-kohesioa eta haren alderdien arteko lotura hobetzeko aukera eman behar dio hiriari. Azpiegitura horien proiektua planean sartuko da, ez etorkizunean egin beharreko lurzoru-erreserba gisa, baizik eta hiri-eredu berri honetarako gaur egungo egiturazko elementuak erabiliz.

Alde horretatik, mugikortasun-, bide- eta trenbide-azpiegiturak hiri egituratu baten estrategia orokor baten parte direla ulertzen da, Donostiako kanpo-lurraldearekin ondo lotuta dagoena eta,aldi berean, mugikortasun osasungarria bultzatuz barrutik hobeto konektatuta dagoena.

**Donostiak egitura geografiko duala du, ibai-hiri batek eta muino-hiri batek osatua.** Itsasertzeko frontean elkartzen diren hiru korridoretan egituratzen da (ekialdekoa, mendebaldekoa eta Urumea ibarra). **Hiriaren euskarriaren espezifikotasun horrek, mugikortasun-sistemen jarraitutasuna baldintzatzen du, batez ere korridoreen arteko harremanetan.** Hiriak tamaina jakin bat hartu duen heinean, zeharkako konexioak beharrezkoak bihurtu dira. Hala ere, lotura horiek eraginkortasun handiagoz egin dira lurralde-harreman batzuetarako eta garraio-modu batzuetarako. **Alde horretatik, mugikortasun-sistamarako proposamenak osasunaren aldeko apustua egiten du;** oinezko edo bizikletazko joan-etorriak erraztuko dituen mugikortasun osasungarria sustatzera zuzentzen da, bere erabilera zalantzan jarriko ez duen sare bat ahalbidetzeko asmoz.

### 3.1. MUGIKORTASUN OSASUNGARRIA: ARDATZ ZIBIKOEN ETA KALE BERDEEN SAREA

**Aurrerapenaren helburuetako bat eguneroko erabilera eta erakarpen-polo nagusiekiko (lantokiak, prestakuntza, merkataritza, jarduera ekonomikoaren kontzentrazio-esparrua edo konkurrentzia handiko ekipamenduak) konexioa ahalbidetzen duen sare bat finkatzea da,** hiriaren euskarriaren ezaugarri dualak ezarritako baldintzak gaindituz. Halaber, bide-sistema motaren ezarpena zuzenean lotuko zaio sistema horien gainean aurreikusten diren hirigintzako erabileren erregulazio eta banaketa arrazionalari.

Testuinguru horretan, identifikatutako mugikortasun osasungarriko sistema bi eskalatan lan egiten duen sare batek osatzen du: hiri hurbileko ingurunearekin lotzen duen lurralde-sarea eta hiri-eskala.

## 3. Ordenar las infraestructuras de la movilidad urbana y territorial

**Las infraestructuras desempeñan un papel básico en la ordenación del territorio, de las ciudades y pueblos del País Vasco.** En el caso de Donostia / San Sebastián, la ordenación de las diferentes infraestructuras territoriales de transporte, fundamentalmente las viarias y ferroviarias, están condicionando la continuidad urbana en algunas partes de la ciudad. Este proceso **de revisión del PGOU vigente es el momento de repensar estas infraestructuras tanto urbanas como territoriales y diseñar un urbanismo más ajustado y adecuado** que permita una mayor cohesión del tejido urbano y además **apuesta de modo claro por una movilidad saludable,** aquélla que permite los desplazamientos de corta distancia por medios no motorizados.

La planificación de estas infraestructuras debe suponer para la ciudad, por una parte, una oportunidad de garantizar unas mejores conexiones externas y, por otra, la ocasión para mejorar la cohesión interna del municipio y su interrelación entre las diferentes partes, incorporando al Plan el proyecto de estas infraestructuras, no como una reserva de suelo a ejecutar en el futuro, sino haciendo uso de los mismos elementos estructurales existentes para este nuevo modelo urbano.

En este sentido, las infraestructuras de movilidad, vial y ferroviaria se entienden formando parte de una estrategia general de ciudad vertebrada y bien relacionada con el territorio exterior de Donostia / San Sebastián y a la vez, mejor interconectada internamente a través del impulso de la movilidad saludable.


**Donostia / San Sebastián presenta una estructura geográfica dual formada por una ciudad fluvial y otra colinar,** estructuradas en tres corredores (este, oeste y Vega del Urumea) que confluyen en el frente litoral. **Esta especificidad del soporte de la ciudad condiciona la continuidad de sus sistemas de movilidad especialmente en las relaciones entre corredores.** A medida que la ciudad ha adquirido un cierto tamaño, las conexiones transversales se han ido identificando como necesarias. Sin embargo, estas conexiones se han producido con mayor efectividad para algunas de las relaciones territoriales y para algunos modos de transporte. En este sentido **la propuesta para el sistema de movilidad pone en primer plano una apuesta por la salud;** se dirige a fomentar la movilidad saludable que favorezca los desplazamientos a pie o en bicicleta, con voluntad de posibilitar una red que no cuestione su uso.

### 3.1. MOVILIDAD SALUDABLE: RED DE EJES CÍVICOS Y CALLES VERDES

**La apuesta del Avance para este modo persigue la consolidación de una red que permita su uso cotidiano y la conexión con los principales polos de atracción (centros de trabajo, formación, comerciales, área de concentración de actividad económica o equipamientos de alta concurrencia)** superando los condicionantes impuestos por la condición dual característica del soporte de la ciudad. Así mismo, el establecimiento de los diferentes tipos de sistemas de la vialidad irá directamente unido a la regulación y distribución intencionada y racional, de los usos urbanísticos que sobre estos mismos sistemas se prevén.

En este contexto, el sistema de movilidad saludable identificado queda conformado por una red que funciona en dos escalas: la territorial que relaciona la ciudad con su entorno cercano y la urbana.





**Hiri-mota:**  
Ibai-hiria  
Muino-hiria

**Tipo de ciudad:**  
Ciudad fluvial  
Ciudad colinar

**Hiri dual**  
**Ciudad dual**

Hirigunea  
Área urbana

Eskala A3 1/35.000  
Escala



## LURRALDE-MAILAKO MUGIKORTASUN OSASUNGARRIAREN SAREA

Sare honen **lurralde-eskala** bi aurreikuspenen bidez garatzen da:

- **bizikleta-sarearen eta udalerrri mugakideen arteko konexioa identifikatzea**, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean aurreikusitako hiru korridoreetan; Donostia-Irun, Donostia-Mutriku eta Donostia-Beasain;
- eta mugikortasun osasungarriko sare berde bat definitzea.



Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektorialean aurreikusitako korridoreen identifikazioa.

Identificación de los corredores previstos en el Plan Territorial Sectorial de vías ciclistas de Gipuzkoa.

### ZEHAZPIDEAK / LEYENDA:

- 1. ibilbidea / Itinerario nº1: Donostia - Irun
- - - 1. ibilbidearen adarrak / Ramales del 1º itinerari
- 2. ibilbidea / Itinerario nº2: Donostia - Mutriku
- - - 2. ibilbidearen adarrak / Ramales de 2º Itinerari
- 3. ibilbidea / Itinerario nº3: Donostia - Beasain
- - - 3. ibilbidearen adarrak / Ramales del 3º Itinerari
- 4. ibilbidea / Itinerario nº4: Debarroa / Valle del
- - - 4. ibilbidearen adarrak / Ramales del 4º Itinerari

### LURRALDE-MAILAKO BIZIKLETA-SAREA

Eskala honetako bizikleta-sareak aukera ematen du lurralde-plangintzan identifikatutako korridoreetatik igarotzen diren bizikleta-ibilbideekin konektatzeko (ekialdeko korridorea, Pasaia eta Oiartzunerantz, Urumeako ibarra Astigarraga, Hernani eta Andoainera eta mendebaldeko korridorea, Usurbil eta Lasarte-Oriara). Pixkanaka gauzatzen ari den sare horri esker, udalerrri mugakideetara eta, gainera, udalerrriaren ertzetan dauden lantokietara (Eskuzaitzeta, Astigarragako industrialdea eta Pasaia portua) sarrera bermatuko da.

## LA RED DE LA MOVILIDAD SALUDABLE DE ESCALA TERRITORIAL

La **escala territorial** de esta red se desarrolla a través de dos previsiones:

- la **identificación de la conexión de la red ciclista con los municipios contiguos** en los tres corredores previstos por el Plan Territorial Sectorial de vías ciclistas de Gipuzkoa; Donostia-Irún, Donostia-Mutriku y Donostia-Beasain;
- y la **definición de una red de movilidad saludable verde**.



### RED CICLISTA DE ESCALA TERRITORIAL

La red ciclista que se identifica a esta escala permite la conexión con los recorridos ciclistas que trascurren por los corredores identificados en el planeamiento territorial (corredor este hacia Pasaia y Oiartzun, Vega del Urumea hacia Astigarraga, Hernani y Andoain y corredor oeste hacia Usurbil y Lasarte-Oria). Esta red, que poco a poco va materializándose, permitirá el acceso a los municipios limítrofes y además a los centros de trabajo situados en los bordes del municipio: Eskuzaitzeta, el polígono de Astigarraga y el Puerto de Pasaia.





MUGIKORTASUN OSASUNGARRI BERDEAREN SAREA

Mugikortasun osasungarri berdearen sarea udalerriko ingurune naturalean garatuko da: Mendizorrotz, Ulia, udalerriko hegoaldeko arku eta Lauaizeta. Ereku natural horietako bakoitzean definitzen diren ibilbideak erabilera ludiko handiena dutenak dira eta bide publikoei dagozkie. Sare horri esker, udalerrri mugakideetako sarearekin konektatu ahal izango da, eta ibilbide horien artean dagoen hiri-sarearen bidez, hiriko mugikortasun osasungarriaren sare berdea eratu ahal izango da.

Garrantzizkotzat jotzen da sare hori hiriarekin lotzea. Dokumentazio grafikoak ingurune naturalerako oinezkoentzako eta bizikletentzako sarbidetzat jotzen diren puntuak identifikatzen ditu. Etorkizuneko faseetan, planak, behar ez diren artifizializazioak baztertuko dituzten paisaia-jarduerak identifikatuko ditu natura-ingurunerako sarbide horietan. Jarduera horietarako ezartzen den helburua, bi guneen arteko harremana balioan jartzea eta batetik besterako igarobidea modu jarraian gertatzea da. Ingurune naturalera iristeko puntu hauek identifikatzen dira:


RED DE MOVILIDAD SALUDABLE VERDE

La red de movilidad saludable verde se desarrollará en el entorno natural del municipio: Mendizorrotz, Ulía, arco sur del municipio y Lauhaizeta. Los recorridos que se definen en cada uno de estos ámbitos naturales son los de mayor uso lúdico y corresponden a caminos públicos. Esta red permitirá la conexión con la red de los municipios colindantes y a través del entramado urbano existente entre los diferentes recorridos se posibilita la conformación de la red verde de la movilidad saludable de la ciudad.

Se considera de importancia la conexión de esta red con el entramado urbano. La documentación gráfica identifica aquellos puntos que se entienden de acceso peatonal y ciclista al entorno natural. En fases futuras el plan identificará actuaciones paisajísticas en estos accesos al medio natural sin que ello suponga una artifizialización innecesaria de estos entornos. El objetivo que se establece para estas actuaciones es el de valorar la relación existente entre ambos medios y que la transición de uno a otro no se produzca de manera abrupta. Se identifican estos puntos de acceso al entorno natural:

*Ezkerrean: Aurreikusitako ingurune naturalerako ateen kokapena.*  
*A la izquierda: Posición de las puertas al entorno natural previstas.*

- 1- Igelto - Ondanera
- 2- Igelto - Pokuenbeg
- 3- Igelto - Pimegi
- 4- Oriamendi - Miramón
- 5- Oriamendi - Marubena
- 6- Lauaizeta - Marubena
- 7- Lauaizeta - Altza
- 8- Malinao - Lauaizeta
- 9- Malinao - Paina
- 10- Ula - Auzonietak
- 11- Ula - Mirtegetako parkea
- 12- Ula - Mendia bidea
- 13- Ula - Marbo






## HIRI-MAILAKO MUGIKORTASUN OSASUNGARRIKO SAREA

Hiri-eskalako mugikortasun osasungarriko sareak bizikleta-bideak biltzen ditu; lurralde-plangintzan eta deskribatutako sare berdean identifikatutako hiru korridoreetatik datozen bizikleta-bideak eta hirian jarraitzen dutenak. Hiru ardatz horiek, hiria ekialdetik mendebaldera modu eraginkorren komunikatu nahi duten, zeharkako konexio desberdinekin osatzen dira, hiru korridoreak lotuko dituen bizikleta-sare nagusia osatuz. Saihesbiderako aurreikusitako izaera aldaketa Ekialdeko Barrutiaren eta Urumeako Ibarren arteko lotura estrategiko bihurtzen da. Bestalde, Urumeako ibarren eta mendebaldeko korridorearen arteko erlazioa ahalbidetzen duten beste hiru lotura nagusi daude: Zorroaga-Miramón-Añorga, Errondo-Berabera eta Morlans-Pío Baroja.

## LA RED DE MOVILIDAD SALUDABLE DE ESCALA URBANA

La red de movilidad saludable de escala urbana agrupa las vías ciclistas que provienen de los tres corredores identificados por el planeamiento territorial y la red verde descrita y continúan en la ciudad. Estos tres ejes se complementan con diferentes conexiones transversales que buscan comunicar la ciudad de este a oeste de manera eficaz, completando una red ciclista principal que relacione los tres corredores. El cambio de carácter previsto para la variante se convierte en conexión estratégica entre Distrito Este y la Vega de Urumea. Otras tres conexiones fundamentales permiten la relación entre la Vega del Urumea y el corredor Oeste: por Zorroaga-Miramón-Añorga, por Errondo-Berabera y por Morlans-Pío Baroja.




Garatu beharreko bizikleta-sare nagusiaren irudia.

Imagen de la red ciclista principal a desarrollar.

Aurreikusitako mugikortasun-sistema osasungarriaren trazadura, oinez edo bizikletaz egiten diren joan-etorriak errazten dituen ardatz zibikoen eta kale berdeen sare bat bultzatzean oinarritzen da. Kale berdeetan zuhaitziak dira nagusi. Auzo bakoitzeko kaleetan pertsonen eguneroko bizitzaren jardura identifikatzen dutenak, ardatz zibikoak dira. Hori dela eta, pertsonen eguneroko bizitzarako oinarritzko merkataritza-jardura biltzen duen hiri-eremuetatik eta auzo-ekipamenduetatik igarotzen da identifikatutako mugikortasun osasungarriko sarea.

Gainera, auzoen arteko loturen hautaketa irisgarritasunaren eta genero-ikuspegiaren irizpideen bidez egiten da. **Ibai-hiriaren eta muino-hiriaren arteko etenak konexio bertikalen bidez konpontzen dira, sarearen erabilera ahalik eta kolektibo gehienei errazteko.** Ildo horretan, udalerrriak duen Mugikortasun Bertikalerako Planak proposatutako jarduerak onartu dira, ezarritako irizpideetan aldaketa batzuk sartuz. Hauek dira aurreikusitako konexio bertikalak:



Ibai- eta muino-hiriaren arteko etenak gainditzeko aurreikusitako mugikortasun bertikaleko konexioak.

Conexiones de movilidad vertical previstas para salvar las discontinuidades existentes entre la ciudad fluvial y la ciudad colinar.

El trazado del sistema de movilidad saludable previsto queda determinado por el interés de impulsar una red de ejes cívicos y calles verdes que favorece los desplazamientos a pie o en bicicleta. Las calles verdes son aquellas donde la presencia del arbolado es relevante. Se entienden como ejes cívicos, aquellos que identifican la actividad de la vida cotidiana de las personas en las calles de cada barrio. Por ello, la red de movilidad saludable identificada transcurre por las áreas formadas por el tejido urbano que concentra la actividad comercial básica para la vida cotidiana de las personas, y la presencia de los equipamientos de barrio.

Además, la elección de las conexiones entre barrios se establece a través de criterios de accesibilidad y perspectiva de género. **Las discontinuidades entre la ciudad fluvial y la ciudad colinar se solventan a través de conexiones verticales** buscando facilitar el uso de la red a la mayoría de los colectivos posibles. En este sentido, se han asumido las actuaciones propuestas por el Plan de Movilidad Vertical que el municipio dispone introduciendo algunas variaciones de acuerdo a los criterios establecidos. Las conexiones verticales previstas son:





Hiriko zati batzuetan, eta batez ere Erdialdean, bizikidetzaz arazoak sortzen diren eremuak identifikatzen dira (txirrindulariak vs oinezkoak). Gune horietarako, oinezkoentzako lehentasuna duten kale batzuk aurreikusten dira, beraz, bi mugikortasun moduak elkarrengandik bereizten ahaleginduz, gatazkak murrizteko helburuarekin. Gune hauek bereziki Erdialdea, Gros eta Antigua-Ondarretan kokatzen dira.

**Halaber, aurrerakin honetan aurreikusitako garapen berriek, mugikortasun osasungarriko aukera berriak irekiko dituzten zeharkako loturak ezartzeko aukera ematen dute.** Kuartelen antolamenduak eta Saihesbide berriaren izaerak, adibidez, Urumeako ibarra Ekialdeko korridorearekin lotu ahal izango dute, eta orain arte zailak izan diren mugikortasun osasungarriko konexioak eskainiko dituzte. Garapen berriek ingurune batzuen eta beren ingurune hurbilenaren arteko loturak hobetzen lagunduko dute ere bai; Añorgako korapiloaren antolamenduaren bidez, Zubiberri (Infernua) eta Añorgatikiren arteko lotura, Oletatik Pasaiarako konexioaren bidez eta honen trenbidearen paraleloan, edo Aduritz-Akularren garapenak Molinaorekin edo Pasai Antxorekin izan ditzakeen konexioen bidez.


Algunas partes de la ciudad y especialmente en el centro se identifican zonas donde surgen problemas de convivencia (ciclistas vs peatones); para estas zonas se prevén algunas calles con prioridad tratando así de segregar ambos modos de manera que se reduzca la conflictividad. Estas zonas se sitúan sobre todo en la zona Erdialdea, Gros y Antigua-Ondarreta.

Así mismo, **los nuevos desarrollos previstos en este avance brindan la oportunidad de establecer uniones transversales que abrirán nuevas oportunidades para la movilidad saludable.** La ordenación de Cuarteles y el carácter de la nueva Variante por ejemplo, podrán conectar la vega de Urumea con el corredor Este proporcionando así conexiones para la red de movilidad saludable hasta ahora complicadas. Los nuevos desarrollos también ayudarán a enlazar algunos ámbitos con su entorno más próximo; es el caso entre Zubiberri (El Infierno) y Añorgatikiki a través de la ordenación del nudo de Añorga, la conexión de Oleta hacia Pasai y en paralelo al ferrocarril o las conexiones que el desarrollo de Aduritz-Akular puede suponer con Molinao o Pasai Antxo.

Oinezkoen lehentasuneko kaleak.  
Calles de prioridad peatonal propuestas.







Aurreikusitako bizikleta-sarearen aurreikuspenak.

Previsiones de la red ciclable prevista.

Txomiñenetik Loiolako Erriberarainoko lotura bigunak izaera estrategikoa ere badu Urumearen Ibarra hiriaren erdialdearekin lotzeko. Hurrengo faseetan, Planak haren bideragarritasuna aztertu ahal izango du, bide-sarbidearen zein Adifeko trazaduraren paraleloan igarotzeko eta Euskotreneko aldageltoki berriarekin erlazioa izan dezan.

**Hiriko jarduera-zentroetara** (lantokietara, osasun-zentroetara, ikastetxeetara eta merkataritza-zentroetara) **sarbide abermatzea, sistema antolatzeko beste irizpide bat izan da.** Proposatutako sarea zabala da, eta kontuan hartzen du bizikleta-sareak eraginkorra izan behar duela; beraz, pertsona bat lantokira joaten denean azkar eta erraz iritsi ahal izan beharko da, ibilgailu pribatua erabiltzeko zalantzarik planteatu ez dezan. Bizikleta-sarea udaleko bizikleta-zerbitzuaren eta bizikleta-aparkalekuen aurreikuspen egoki batekin osatu beharko da. Aurreikusitako sistemarekin bat etorritik, geltokientzako egokiak diren kokaleku hauek identifikatzen dira.

**Deskribatutako mugikortasun osasungarriko sareari dagokionez, Planak merkataritza- eta ekonomia-jardueren kokapena sustatzeko eta bultzatzeko neurriak ezarriko ditu,** eta, aldi berean, oinezkoen zirkulazioarekin bateragarriagoak diren jarduerak finkatzeko baldintzak arautuko ditu, ibilgailuen behar handiagoa sortzen duten jardueretatik aldentuz. Urbanizazio-proiektuek, bestalde, oinezkoentzako lehentasuna duten kaleak izatea bultzatuko duten irizpideak aplikatzen saiatuko dira. **Kale zibikoak (berdeak, oinezkoak eta bizikletak) proposatzearen helburua, ibilgailuen trafikoaren erabilera oinezkoen pasealekuekin orekatzea** eta bide horietako batzuk hiri-formaren adierazgarritasunerako eta erabilerak sustatzeko funtsezkoak direla ulertzea da.

La conexión blanda desde Txomiñenea hasta Riberas dispone también de un carácter estratégico para la conexión de la Vega del Urumea con el centro de la ciudad. En fases posteriores el Plan podrá estudiar su viabilidad de modo que trascurra en paralelo al acceso viario a la Ciudad y al trazado de Adif y tenga relación con el intercambiador de Adif y Euskotren.

**Asegurar el acceso a los centros de actividad** (centros de trabajo, centros sanitarios, centros educativos y centros comerciales) **de la ciudad ha sido otro criterio utilizado para la ordenación de este sistema.** La red propuesta es extensa y atiende a la necesidad de que la red ciclista debe ser eficaz, de modo que cuando una persona va a su centro de trabajo pueda llegar rápido y fácil para que no tenga dudas de utilizar el vehículo privado. La red ciclista deberá completarse con una previsión adecuada del servicio de bicicleta municipal y aparcamientos de bicicletas. En coherencia con el sistema previsto se identifican los siguientes como emplazamientos adecuados para la situación de estas estaciones.

**Sobre esta red de movilidad saludable descrita, el Plan establecerá medidas de fomento y estímulo de la localización de las actividades comerciales y económicas,** a la vez que regulará normativamente las mejores condiciones para el asentamiento de actividades más compatibles con el tráfico peatonal, rehuendo de aquellas actividades que generen mayor presencia del vehículo rodado. Los proyectos de urbanización, por su parte, procurarán aplicar criterios que tengan en cuenta el carácter fundamentalmente en favor del peatón de estas áreas. **La propuesta de las calles cívicas (verdes, peatones y bicicletas) parte de la pretensión de equilibrar el uso del tráfico rodado con el paseo peatonal** y entender que algunas de estas vías son esenciales para la representatividad de la forma urbana y por la potenciación de los usos.





# Plan bat daukagu! ¡Tenemos un plan!

Planak mugikortasun-sareko kaleen izaera garatuko du, deskribatutako hierarkia kontuan hartuta; hiri-ardatz nagusietan integratzen diren lurralde-ardatzek bidegorria eta oinezkoentzako espaloiak dituztela ziurtatu beharko dute. Era berean, zeharkako ardatz nagusiak eta sare nagusia lotzen duten "konektoreak" deitzen direnak osatzen duten sarean, bizikleta-

El Plan desarrollará el carácter de las calles de la red de movilidad teniendo en cuenta la jerarquía descrita; los ejes territoriales que se integran en los ejes urbanos principales deberán asegurar la existencia del carril bici junto con la acera peatonal. De igual modo se preverá la sección de los carriles bici que constituyen los principales ejes transversales y los

erreien sekzioa aurreikusiko da. Gainerako bizikleta-sarea, "banatzaileak" deiturikoak, nahitaez berezia izango da hurrengo atalean azaltzen diren superetxadien bide egituratzailearekin bat datorrenean, eta, ahal den neurrian, oinezkoen saretik berezita gainontzekoetan. Kalearen sekzioak bereizketarik onartzen ez badu, abiadura txikian (30 km/h) funtzionatzen duen bide-sarean txertatuta geratuko da.

denominados "conectores", que mallan la red principal. La red de ciclista restante, formada los llamados "distribuidores", será necesariamente diferenciada cuando coincida con el viario estructurante de las supermanzanas que en el siguiente apartado se explican y en la medida de lo posible diferenciada de la red peatonal en otros casos. Si la sección de la calle no permitiera su segregación quedará integrada en la red viaria que funciona a baja velocidad (30 km/h).

*Txomiñenea-Loiolako Erriberak lotura biguna.*


*Conexión blanda Txomiñenea -Riberas de Loiola.*



Avance de la revisión del Plan General de Ordenación Urbana de Donostia / San Sebastián

*Bizikletak alokatzeko geltoki berrien aurreikuspena, aurreikusitako sistemaren arabera.*

*Previsión de nuevas estaciones de alquiler de bicicletas acorde al sistema previsto.*






### 3.2. BIDEEN EGITURA BERRIAREN ANTOLAMENDUA

Hirigintza-antolamenduko udal-planaren dokumentuak hiri-mugikortasuneko plana idaztea erraztuko duen dokumentua izan behar du, bideetarako hierarkia logiko bat ezarriz, ondoren mugikortasunari buruzko simulazioak egin ahal izateko, eta gainerako mugikortasun motordunen aurrean, mugikortasun osasungarriarekiko lehentasun-baldintza batzuk ezarriz.

Helburu argi horrekin, **bide-egitura berriaren antolamenduak bi eskala ditu: bata, bide-azpiegitura handiei dagokiona, eta, bestea, bide eta kaleen ehunari dagokiona.** Hiriko bide-azpiegitura handiak finkatuta eta martxan daude dagoeneko. Hala ere, Plana berrikusteko prozesua irekitzeak beste leihotzat irekitzen dio dauden bide-azpiegiturak duten zeregina berriz pentsatzeko aukerari, eta trazadura batzuk izango duten eginkizun berriari buruz gogoeta egiteko. Ildo horretan, aurrerapenaren **helburua hiriko bide-azpiegitura arrazionalizatzea da, hiri-azpiegiturak bere inguruneari egokitutako izaera har dezan, eta, batez ere, orain okupatzen duten lurraldea ahal den neurrian berreskuratzen joateko.**

*Aurreikusitako mugikortasun osasungarriaren sarea.*

*Red de movilidad saludable prevista.*



- Ardatzak  
Ejes
- - Ardatzak egiteke  
Ejes pendientes de ejecución
- Konektoreak  
Conectores
- - Konektoreak egiteke  
Conectores pendientes de ejecución
- Banatzaileak  
Distribuidores
- - Banatzaileak egiteke  
Distribuidores pendientes de ejecución

### 3.2. LA ORDENACIÓN DE LA NUEVA ESTRUCTURA VIARIA

El documento del Plan de ordenación urbanística municipal debe ser un documento que facilite la redacción del Plan de **movilidad urbana**, estableciendo una jerarquía lógica para el viario sobre la que poder disponer después las simulaciones respecto a la movilidad y estableciendo, de principio, unas condiciones de prioridad respecto a la movilidad saludable, sobre los demás medios de movilidad motorizada.

Con este objetivo **claro la ordenación de la nueva estructura viaria juega en dos escalas: una la correspondiente a las grandes infraestructuras viarias y la otra la relativa al tejido de vías y calles.** Las grandes infraestructuras viarias de la ciudad se encuentran consolidadas y en pleno funcionamiento. Sin embargo, la apertura del proceso de revisión del Plan abre una ventana a la posibilidad de repensar el papel de las infraestructuras viarias existentes para reflexionar sobre el nuevo papel que algunos trazados podrán asumir. En este sentido, **el Avance busca racionalizar la infraestructura viaria de la ciudad de modo que estas adquieran un carácter adecuado a su entorno y sobre todo en la medida de lo posible poder abordar la recuperación del territorio que ahora ocupan.**



# Mugikortasun Osasungarria

## Movilidad Saludable

### Mugikortasun osasungarriaren sarea

#### Red de movilidad saludable

- Sare nagusia  
Red principal
- Lotar-sarea  
Red colectora
- Banaketa-sarea  
Red distributiva
- Italde inguririk  
Espazioko sarrerak
- Aragoi/lekualde mekanizak eta funtzioak  
Rampas/escaleiras, metroak eta funtzioak
- Goi-eta behe-hiria lotzen dituen igogailua  
Accesorio de conexión entre la ciudad alta y la baja
- Goi-erdi behe-hirian berran-tokurako igogailua  
Accesorio para la conexión interna en la ciudad alta o la baja
- Olinpikoentzako libetasuna (dunen kalak)  
Carriles con prioridad peatonal

### Natura-sarea

#### Red natural

- Italde naturalak  
Centros naturales
- Ingurune naturaleneko atalak  
Puntos de acceso natural

### Gune erakargarriak

#### Centros atractores

- Auto-biluzak  
Coronación de barrio
- Lan-eremuak  
Centros de trabajo
- Ekipoeremuak  
Equipamientos

### Begirada Sektorialak

#### Miradas Sectoriales



Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aurrerakina  
Avance del Plan General de Ordenación Urbana



Bide-sare hori lehen mailako kanpoko ibilgailu-sare batek osatzen du (A-15, A-1, AP-1 eta A-8; autobia, autobidea eta bigarren ingurabidea, hurrenez hurren). Sare horrek udalerría, eskala handieneko eskualde- eta lurralde-ingurunearekin lotzen du. Bigarren maila batean kokatzen dira saihesbidea (GI-20) eta GI-40 errepidea, Urumeako ibarra Herrerako korapiloarekin lotzen duena, eta horien eta lehen mailako kanpo-sarearen arteko konexioak bermatzen dituena.

**Saihesbidea, bai trazaduran, bai sarbide-korapiloetan, hiria inguratzeko asmoarekin eraiki zen errepide-arteria bat da, horregatik, bide-azpiegitura izaera du ibilbide osoan. Orain dela hamarkada batzuk, hiriaren hazkundeak bere trazaduraren ertza gaintu zuen, eta, beraz, gaur egun hiri-jarraituan zehar igarotzen da, eraiki zen bide-azpiegituraren izaera berarekin.**

Azken hamarkadan, Illunbe eta Herrerako lotunearen artean GI-40 errepidea sendotu egin da, eta, horri esker, zati horretan, saihesbiderako beste izaera bat aurreikusi daiteke, eta, bide-konexio azkarrerako gaitasuna galdu gabe, berriro programatu ahal izango da, aukera hauek emanez:

- trazaduran zehar, **bizitegi zein jarduera ekonomikoko erabilerak ezartzea**, gaur egun bi ertzen artean dauden etenak josteko;
- zuzkidurak eta espazio libreak sartzea, bai bizitegirako eta jarduera ekonomikorako aurreikuspen berriei, bai inguruko hiri-ehunen ekipamendu eta espazio libreei erantzuteko.
- Horrez gain, **bidearen ebaketa, Urumeako ekialdeko korridorearen eta ibarraren arteko loturak bermatzen dituen mugikortasun osasungarriaren zeharkako ibilbide berri bati leku egin ahal izateko, birpentsatu behar da.**

Esta red viaria queda conformada por una red rodada exterior de primer nivel (A-15, A-1, AP-1 y A-8; autovía, autopista y Segundo Cinturón respectivamente) que relaciona el municipio con su entorno comarcal y territorial de mayor escala y un segundo nivel constituido fundamentalmente por la conocida como Variante (GI-20), la GI-40 que conecta la Vega del Urumea con el nudo de Herrera y las conexiones entre estas y la red exterior de primer nivel.

**La Variante es una arteria viaria que se construyó con vocación de circunvalación**, tanto en su trazado como en los nudos de acceso. Por ello está dotada de un carácter de infraestructura viaria en todo su recorrido. **Hace ya algunas décadas, el crecimiento de la ciudad ha superado el borde de su trazado por lo que actualmente transcurre a través del continuo urbano con el mismo carácter de infraestructura viaria con el que se construyó.**

La consolidación de la GI-40 entre Illunbe y el nudo de Herrera en la última década permite la previsión, en dicho tramo, de un nuevo carácter para la Variante que, sin perder la capacidad de conexión viaria rápida, irá unido a su reprogramación permitiendo:

- disponer a lo largo de su trazado tanto usos residenciales como de actividad económica que permitan coser las discontinuidades actualmente existentes entre ambos bordes;
- incluir dotaciones y espacios libres que vayan respondiendo tanto a las nuevas previsiones residenciales y de actividad económica a las que se dé cabida como a las necesidades en cuanto a equipamientos y espacios libres de los tejidos urbanos circundantes;
- así como **repensar la sección de la vía con el fin de dar cabida a la movilidad saludable generado una nueva avenida transversal** que apoye las conexiones entre el corredor este y la Vega de Urumea.

La consecución de este objetivo deseable para la regeneración de algunas partes de la ciudad pasa por la evaluación de su factibilidad en cuanto a las consecuencias que la premisa puede

Hiriko zati batzuen berroneratzea lortzeko desiragarri den helburu honek, eragin ditzakeen ondorioei dagokienez, aurrera eramateko dauden aukerak ebaluatu behar dira. Horretarako, **dokumentu honen eranskinean jasotzen da aurkeztutako saihesbiderako proposamen horren azterketa eta ebaluazioa.** Azterlanak erabilitako ebaluazio-metodologia garatzen du, baita proposamena garatzeko egokitzat jotzen diren neurri osagarriak eta gomendioak ere. Txosten honek Aurrerakin honetan ere sartzen diren beste proposamen batzuk ere ebaluatzen ditu; Añorgako korapiloaren arrazionalizatzea, Xabier Lizardiren AP-8rako irteera kentzeko aukera, eta GI-20tik Altzako ingururako sarrera berria.

**Bide eta kaleen ehunaren egitura aztertzeke, aurrerago jorratuko diren superetxadiak antolatuko dira.**

## BYPASSA ETA HAREN ALTERNATIBAK

**Saihesbiderako aurreikusitako hiri-etorbidearen izaera berria dela eta**, bide-sistema egokitu behar da, GI-20ko esku-hartzeak lekualdatutako zirkulazioa xurgatu ahal izateko. Beraz, bypass bat aurreikusi behar da. Bypass honetarako hainbat aukera aztertu ahal izango dira:

- **GI-40a etenik gabeko gaitasun handiagoa duen bide bat bilakatzea.**
- **lurpeko beste bide alternatibo batzuk aurreikustea.**

GI-20 eraldatzearen ondorioz lekualdatutako trafikoak hartu ahal izateko, GI-40a gaitzea ezinbestekoa da, eta horretarako, 80 km/h-ko abiadurako errepidea bihurtu behar da, gehienez ere 2.250 ibilg/hr/errei bakoitzeko, hiru errei noranzko bakoitzeko duena, eta elkargunerik ez duena. Azken ezaugarri hori dela eta, lotuneak beste maila batean egin behar dira, Martuteneko egungo biribilguneak, ibaia eta 27. poligonoko sarrera gainetik gaintutako dituen azpiegitura berri bat aurreikustera behartuz.

Aurrerakinaren ondorengo garapenak aurreikuspen hori lortzeko bideak aztertu beharko ditu. Inbertsioa txikiagoa izan daiteke, hiriko eta gainerako lurraldeko mugikortasuna kudeatzeko politiken bidez ibilgailu pribatuaren erabilera-maila murrizten den neurrian. Ildo horretan, errepide-sareko trafikoaren intentsitatea gutxitzeak, GI-40an hirugarren erreia ez jartzea ekar lezake.

generar. Con tal fin se recoge **anexo a este documento el estudio y evaluación de esta propuesta para la Variante que se presenta.**

El estudio desarrolla la metodología de evaluación utilizada así como las medidas complementarias y recomendaciones que para el desarrollo de la propuesta se estiman oportunas. Este informe evalúa también otras propuestas que también se incluyen en este Avance: la racionalización del nudo de Añorga junto con la posibilidad de eliminación de la salida a la AP-8 en Xabier Lizardi, así como un nuevo acceso al entorno de Altxa desde la GI-20.

**La atención a la estructura viaria del tejido de vías y calles se trabajará a través de la ordenación de supermanzanas** que se aborda más adelante.

## EL BYPASS Y SUS ALTERNATIVAS

El nuevo carácter de avenida urbana previsto para la Variante exige ajustar el sistema viario que permita absorber los tráficos desplazados por la intervención en la GI-20. Es necesario por tanto la previsión de un bypass. Se podrán barajar diferentes alternativas para este bypass:

- **la transformación de la GI-40 en una vía de mayor capacidad continua y sin interrupciones**
- **la previsión de otros trazados alternativos subterráneos.**

Capacitar la GI-40 con el fin de poder acoger los tráficos desplazados por la conversión de la GI-20 supone concebir la GI-40 como una vía de velocidad de 80 km/h, con una capacidad máxima de 2.250 veh/hr/carril, tres carriles por sentido y ninguna intersección. Esta última característica exige que los enlaces se produzcan a distinto nivel, lo que significa prever una infraestructura nueva que sobrepase, por encima, las actuales rotondas de Martutene, el río y la entrada al Polígono 27.

El desarrollo posterior del Avance deberá estudiar las vías para la consecución de esta previsión. Se podrá considerar que la inversión podrá ser menor en la medida en la que mediante políticas de gestión de la movilidad en la ciudad y en el resto del territorio se reduzca el grado de utilización del vehículo privado. En este sentido, una disminución de intensidad de tráfico en la red viaria podría implicar no ser necesario el tercer carril en la GI-40.



## SAIHESBIDEARENTZAT IZAERA BERRIA

Helburua Illunbe eta Herrerako lotunearen arteko saihesbidearen zatia kale itxurako hiribidea bihurtzea da, egun duen **autobia izaeraren aldatuz**. Planaren garapenean zehaztuko da izaera hori. Illunbetik Erriberaraino 50 km/h-ko bide-konfigurazioa aurreikusten da. Bide hori, Erriberara iristean, 30 km/h-ko kale batean bilakatuko da Herreraraino, trafikoa banatzeko behar diren biribilguneak eta semaforizazioak txertatuz. Aldaketa horiek egun bertatik pasatzen den zirkulazioa arinduko du, ziur asko Bypass-era joango dena.

**Esan bezala, hiribide izaera berriak era askotariko aukerak emango ditu.** Mugikortasunari dagokionez, aurreikuspen horrek, bide hori hiriko bide-sarearen parte izatea ekarriko du, **mugikortasun osasungarrirako eta garraio publikorako hirian zeharkako lotura irekia eta eraginkorra ahalbidetuz**. Hala, hiri-irisingarritasun handiagoa lortuko da, erdialdeko eta ekialdeko korridoreen artean. Gaur egun lotura hiri-ehun konplexu baten bidez egiten da (Egia eta Mandasko Dukea kaleetatik, Mons pasealekuarekin lotuz eta Ametzagañatik zeharkatuz Ategorrieta etorbidera iritsi arte, edo Ategorrieta etorbidetik, Karmengo Ama Birjinara sartuz Fernando Sasiainetik Egia edota Mandasko kaleraino. Intxaurren iparraldea (Zarategi) eta Intxaurren hegoaldea (Sagastieder) deskribatutako hiri-ehun horren inguruan antolatzen dira, Urumeako ekialdeko korridorera edo ibarrera iristeko. Altzako inguru guztia Ategorrieta etorbidearen edo gaitasun handiko bidearen menpe dago.

## UN NUEVO CARÁCTER PARA LA VARIANTE

Se trata de convertir el tramo de Variante entre Illunbe y el nudo de la Herrera en una avenida urbana con configuración de **calle y no de autovía como la que actualmente dispone**. Este carácter se concretará en el desarrollo del Plan previendo desde Illunbe una configuración de una vía de 50 km/h que al llegar a Erribera se integra como una calle más, a 30 km/h, implementado las rotondas necesarias para distribuir el tráfico más las semaforizaciones pertinentes hasta llegar al tramo de Herrera. Estas restricciones disuadirán el tráfico de paso actual que previsiblemente se trasladará al Bypass.

Como ya se ha señalado, **el carácter de avenida urbana proporcionará oportunidades diversas**. En cuanto a la movilidad, esta previsión permitirá incorporar esta vía a la red rodada de ciudad **posibilitando en la ciudad una conexión transversal permeable y efectiva para la movilidad saludable y el transporte público**. Se alcanzará así una mayor accesibilidad urbana transversal en la ciudad entre el corredor central y el Este que actualmente se produce a través de un tejido urbano complejo (a través de la calle Egia y Mandasko Dukea / Duque de Mandas conectando con Paseo Mons y cruzando por Ametzagaña hasta llegar a la avenida Ategorrieta, o desde la avenida Ategorrieta accediendo a Virgen del Carmen a través de Fernando Sasiain hasta la calle Egia y/o Mandasko Dukea / Duque de Mandas. Intxaurren norte y sur pivotan sobre este entramado descrito para acceder al Corredor este o Vega del Urumea. Todo el entorno de Altza depende a la Avenida Ategorrieta o el viario de alta capacidad).



*Gi-40tik bypassa aktibatzeak aukera ematen du saihesbidearen gaur egungo izaera aldatzeko. La activación del bypass por la Gi-40 permite de la reversión del actual carácter de la Variante.*



## BIDE AZPIEGITUREN OPTIMIZAZIOA


**Mugikortasun-azpiegituren lurzoru asko kontsumitzen dute, batez ere duela hamarkada batzuk eraikitakoek.** Horrela sortu zen GI-20a, bai trazaduran, bai sarbideetan. **Aurrerakin honen helburuetako bat mugikortasun-azpiegituren lurzoria optimizatzea da,** pertsonak erdigunean jarriko dituen hiri-eredu berria sortzeko planifikazio bat bultzatuz. Testuinguru horretan, saihebidetako sarbideak berrikustea planteatu da, hala nola: Añorgako edo Illunbeko lotunerako proposamenak, bai eta AP-1 autobidearen bidez Altzan sartzeko lotune berrirako proposamena ere.

## SUPERETXADIEN ANTOLAMENDUA

Aurrerakinean proposatzen den hiri barruko ibilgailu-sarearen antolamendu berria, hierarkizatutako dagoen sarea finkatzea eta osatzea da. Sare horrek hiri-mailako mugikortasuna antolatzen du, maila txikiagoko kaleak arintzea ahalbidetuz, eta horrela, mugikortasun osasungarriaren aldeko apustua eginez.

**Superetxadiez osatutako sarean oinarritzen da proposamena.** Donostiako oinarri topografikoak eta sektorez sektore egindako plangintzak era askotariko formaz osatuta dagoen hiria eratu dute bere hedapenaren zati handi batean. Haietako gehienak, hiriaren oinarri topografikoak mugatzen dituelarik. Horietako jarduketa batzuk, isolatuak eta itxiak dira, haien arteko hiri-jarraitasunik gabekoak. Haien mugak, hiriaren mugikortasun gehiena jasaten duten superetxadiak definitzen dituzten hiri-giltzarriak dira. Horrela, gainerako kaleak etxebizitzetara sartzeko elementu gisa utzi nahi dira, alderantzizko lehentasuneko bide-espazio gisa.

Barneko ibilgailu-sare horrek kale nagusien bide-egitura (hiri-sarea) bereizten du, eta hiri-zirkulazioa kanpoko ibilgailu-saretik tokiko sareraino banatzen du; ahal den neurrian, superetxadiak sortuz. Superetxadietan kaleak etxebizitzetara sartzeko elementutzat hartzen dira, bide lasaiak gisa, Superetxadi batzuetan izan ezik, non garraio publikoa igartzeko bigarren mailako ibilgailu-kaleak aurreikusten diren.



## LA OPTIMIZACIÓN DE LAS INFRAESTRUCTURAS VIARIAS


**Las infraestructuras de movilidad son grandes consumidoras de suelo, especialmente aquellas construidas hace ya algunas décadas.** La GI-20 fue concebida así tanto en su trazado como en sus accesos. **Optimizar el suelo de las infraestructuras de movilidad para generar una nueva urbanidad que ponga en el centro de la planificación a las personas es uno de los objetivos de este Avance.** En este contexto es en el que se ha planteado una revisión de los accesos a la Variante que ha derivado en las propuestas para el actual enlace de Añorga o el de Illunbe así como la propuesta para el nuevo nudo de acceso a Altza a través de la AP-1.

## LA ORDENACIÓN EN SUPERMANZANAS

La propuesta en el Avance respecto a la nueva ordenación de la red viaria rodada interna urbana pasa por consolidar y completar una red jerarquizada que ordena la movilidad a nivel de ciudad y permite ir liberando la red de calles de menor escala para la movilidad saludable (con preferencia por las bicicletas y los itinerarios peatonales) y la vida urbana.

**La apuesta consiste en una red formada por supermanzanas.** El apoyo topográfico y el planeamiento por partes del municipio de Donostia / San Sebastián, hecho sector a sector, en gran parte de su extensión, han configurado una ciudad que es un verdadero mosaico de formas, donde la mayor parte de ellas se delimitan por el soporte de la ciudad. Algunas de las actuaciones son autistas y cerradas con poca continuidad urbana entre unas y otras y donde el límite se convierte en bisagra urbana definida por estas grandes supermanzanas que soportan la mayor parte de la movilidad urbana. Se busca así dejar el resto de las calles como elementos de acceso a las viviendas, espacio viario de prioridad invertida.


Esta red rodada interior reconoce una estructura vial de calles principales (red urbana) que distribuyen el tráfico urbano desde la red rodada exterior hasta la red local, generando en la medida de lo posible supermanzanas. En las supermanzanas las calles se conciben como elementos de acceso a las viviendas, mediante espacios viarios pacificados, salvo en algunas supermanzanas donde se prevén calles rodadas de carácter secundario para habilitar el paso del transporte público.







*Planak garatu beharko dituen bide-aurreikuspenak.*  
*Las previsiones viarias que el Plan deberá desarrollar.*




### 3.3. TREN-AZPIEGITURAREN ANTOLAMENDUA. GELTOKIAK ETA ZENTRALITATE-EREMUAK

Komunikazio-azpiegiturei dagokienez, trenak da, zalantzarik gabe, gainerako aukerekin alderatuta gaitasun eta jasangarritasun handiena duen garraibide kolektiboa. **Adifek eta Euskotrenek osatzen duten trenbide-sare ona dauka Donostiak.**


### 3.3. LA ORDENACIÓN DE LA INFRAESTRUCTURA FERROVIARIA. ESTACIONES Y ÁREAS DE CENTRALIDAD

En cuanto a las infraestructuras de comunicación, el ferrocarril es sin duda el medio de transporte colectivo con mayor capacidad y más sostenible respecto a las demás alternativas. **Donostia / San Sebastián está dotada de una buena red de ferrocarril formada por la red de Adif y la de Euskotren.**

*Barneko ibilgailu-sare nagusia.*  
*Red rodada interior principal.*



*Eskala lokaleko barne ibilgailu-sarea.*  
*Red rodada interior escala local.*






# Ibilgailuen Mugikortasuna Movilidad Rodada

## Bide-hierarkia Jerarquía viaria

- Lurralde-sarea  
Red territorial
- Hiri-sarea  
Red de ciudad
- Auzo-sarea  
Red de barrio
- Bypass berria  
Nuevo bypass



## Begirada Sektorialak Miradas Sectoriales



Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aurrerakina  
Avance del Plan General de Ordenación Urbana





**Bi sareak finkatuta daude eta hiriko zati handi batean, hirigunea barne, elkarrengandik distantzia egokira banatuta dauden geltoki asko dituzte.** Gainera, eguneratze-prozesu garrantzitsua jasaten ari dira: Euskotreneko sarea, trukeak erraztuko dituen Metroaren saihasbideak osatuko du; bi lerroen arteko intermodalitatea Herrerako nodoaren aurreikuspenarekin hasi zen lantzen, eta, orain, Erriberako trukagailuaren aurreikuspen berriarekin jarraipena eman nahi zaio; Gainera, Adifen zein Euskotrenen azpiegituren eguneratze-prozesu horretan, geltokien irisgarritasuna eta bizikleta sarearekiko intermodalitatea hobetzen ari dira.

Aurrerakin honek proposamen gutxi ditu trenbide-sarearen euskarri fisikoa hobetzeko. Hala ere, trenbide-sareak eskaintzen duen aukera adierazi nahi du. Gaur egun, gaitasun handiko garraio publikoaren bidez, eta mugikortasun jasangarriagoa sustatzeko zerbitzuen maiztasun egokia doitu, trenbide-sistemak badu hiriko zeharkako harremanak bermatzeko ahalmena (Adif Urumeako ibarraren eta Ekialdeko korridorearen artean igarotzen da, eta Euskotren hiruretan).

Zenbait geltokien hobekuntzaren ondorioz sortzen diren aukerak ere baliatu ahal izango dira, baita sarean gertatzen diren aldaketen ondorioz sortzen direnak ere, hala nola, Easoko geltokia lurperatzean sortzen den zentralitate-eremua edo abiadura handia iristearen ondoriozko aukera, geltokia eta haren ingurua berregituratu eta berritzearen ondorioz.

Oinezkoen irisgarritasun-arloan aurreikusitako jarduketak trenbideko garraio publikoaren sarearen hedapena hobetzen ere laguntzen dute. Geltokien hedapenak hobera egiten du muino-hirian; Aieten (Antigua-Ondarretarekin eta Erdialdearekin duen mugan), Añorgan (Miramonekin duen loturan), Intxaurren (Erriberarekiko harremanean), Martutenen (Loiolako trukatzailarekiko hobekuntzan) eta Altzan (Oletako sakonarekiko loturan).

Irudiak, oinezkoen irisgarritasunari dagokionez aurreikusitako jarduketaren ondorioz trenbideko garraio publikoaren sarearen estalduraren hobekuntza erakusten du.

### 3.4. MUGIKORTASUNA, GARRAIO PUBLIKOA ETA APARKALEKUA

**Autobus bidezko garraio publikoaren arloko jarduketak egungo lineen optimizaziotik, hiriko zeharkako etorbide berriak eskaintzen dituen zeharkako lotura-aukera berrietara igaroko dira.** Planak bermatu beharko du etorbide berri horren diseinuak garraio publikoari laguntzeko irizpideak izango dituela: autobusak errei eksklusiboa izango duen ebaketa baten bidez, bide eta estazio berriak aurkitzeko espazio publiko egoki baten bidez, egungo sarea osatu ahal izateko.

**Ambas redes están consolidadas y disponen de un buen número de paradas distribuidas a una distancia adecuada entre ellas por gran parte de la ciudad incluido el centro urbano.** Además, están siendo sometidas a un proceso de actualización importante: la red de Euskotren se verá complementada por la variante del Metro que facilitará algunos intercambios; la intermodalidad entre ambas líneas ya se comenzó a abordar con la previsión del nodo de Herrera y ahora con la nueva previsión del intercambiador en Riberas; además, tanto la infraestructura de Adif como la de Euskotren están siendo sometidas a un proceso de actualización importante ya que se está mejorando la accesibilidad de las estaciones y se trabaja por mejorar la intermodalidad con la red de bici.

La propuesta de este Avance a la mejora del soporte físico de la red de ferrocarril es menor. Sin embargo, no se puede dejar pasar la ocasión para señalar la oportunidad que la red ferroviaria existente brinda. Actualmente, esta red ya dispone de la potencialidad de apoyar las relaciones transversales en la ciudad (Adif transcurre entre la Vega de Urumea y el corredor Este y Euskotren lo hará por los tres) a través de un modo de transporte público de alta capacidad fomentando la posibilidad una movilidad más sostenible simplemente ajustando una frecuencia de servicios adecuada.

Se podrán aprovechar también las oportunidades derivadas de la mejora de algunas estaciones, así como aquellas derivadas de los cambios en la red: el área de centralidad que surgirá de liberar la estación de Easo o la oportunidad derivada de la llegada de la alta velocidad con la consecuente reestructuración y renovación de la estación y de su entorno.

Las actuaciones previstas en materia de accesibilidad peatonal también apoyan la mejora de la cobertura de la red de transporte público de ferrocarril. Las coberturas de las estaciones mejoran en la ciudad colinar, más concretamente; en Aiete (en su límite con Antigua-Ondarreta y Erdialdea), en Añorga (en su conexión con Miramon), en Intxaurren (en su relación con Riberas), en Martutene (que se mejora respecto al intercambiador de Loiola) y en Altza (en su conexión con la Vaguada de Oleta).

La imagen muestra la mejora de la cobertura de la red de transporte público de ferrocarril derivada de las actuaciones previstas en materia de accesibilidad peatonal.

### 3.4. MOVILIDAD, TRANSPORTE PÚBLICO Y APARCAMIENTO

**Las actuaciones en materia de transporte público (autobús) pasarán por la optimización de las líneas actuales a las nuevas posibilidades de conexión transversal que la nueva avenida transversal de la ciudad podrá proporcionar.** El plan deberá asegurar que el diseño de esta nueva avenida incorporará criterios de apoyo del transporte público; ya sea a través de la definición de una sección en la que el autobús disponga un carril exclusivo o a través de la previsión de un espacio público adecuado para la localización de las nuevas vías y estaciones que permitan completar la red existente.




# Garraio Publikoa Transporte Público

## Trenbide-sarea Red ferroviaria

-  Trenbideak  
Líneas ferroviarias
-  Abiadura handiko linea  
Línea de alta velocidad
-  Abiadura handiko linea - alternatibak  
Línea de alta velocidad - alternativas
-  Galtoki intermodala  
Estación intermodal
-  Trenbideak  
Estaciones
-  Tren geltokiaren estazioa  
Estación de estación
-  Tren geltokiaren estazioa 500 m-ko  
Cobertura de las estaciones de tren a 500 m

## Autobus publikoen sarea Red de autobuses públicos

-  Autobus geltokiak  
Estaciones de autobuses
-  Autobus geltokiak  
Paradas de buses
-  Autobus geltokiaren estazioa 200m-ko  
Cobertura de las paradas de buses a 200 m
-  Garraio publikoaren azalera berria  
Nueva zona de transporte público



## Begirada Sektorialak Miradas Sectoriales



Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aurrerakina  
Avance del Plan General de Ordenación Urbana






**Barneko bide-sarearen mugikortasun-arterien definizioan, proposamen honek superetxadietako bide- eta kale- ehuna jasotzen du.** Tamaina handiko superetxadien barruan, bigarren mailako bide-sarea aurreikusi beharko da, garraio publikoarentzako pasabidea bermatuz.

**Aparkalekuaren strategiari dagokionez, Planak beharrezkoak diren aparkaleku-plazak hornitzeko proposamena jaso beharko du, bide publikotik aparkalekuak libratu ahal izateko eta hiri-espazioen kalitatea hobetzeko.** Planak aurreikusten dituen zabalpen gune nagusietan, gehienbat eraldatze- eta zabaltze-jardura berriak kokatzen diren espazioetan, aparkaleku plaza berrien hornidurara egokitutako araudia aurreikusiko da, bide publikoan ibilgailuen ahalik eta presentzia txikiena bermatzeko.

En la definición de las arterias de movilidad de la red rodada interior esta propuesta recoge la estructuración del tejido de vías y **calles en supermanzanas.** En el interior de las supermanzanas de mayor entidad se han previsto calles rodadas secundarias donde se podrá habilitar el paso del transporte público.

Respecto a la estrategia del aparcamiento, el Plan deberá incorporar la propuesta de dotación de las plazas de aparcamiento **necesarias, de forma que se puedan liberar aparcamientos de la vía pública, por una mejor calidad urbana del espacio urbano.** En los espacios donde se localiza la mayor parte del crecimiento del Plan y donde sitúan mayoritariamente las nuevas actuaciones de transformación y extensión, se preverá una normativa ajustada a la dotación de las plazas de aparcamiento de las nuevas actuaciones que garantice la menor presencia de vehículos en la vía pública.

*La imagen muestra la mejora de la cobertura de la red de transporte público de ferrocarril derivadas de las actuaciones previstas en materia de accesibilidad peatonal.*  
*La imagen muestra la mejora de la cobertura de la red de transporte público de ferrocarril derivadas de las actuaciones previstas en materia de accesibilidad peatonal.*



*Ezkerrean : Garraio publikoa: trenbide-estaldura eta Dbus estaldura.*  
*A la izquierda: Transporte público: cobertura ferroviaria y cobertura Dbus.*



Barneko ibilgailu-sarearen hierarkizazioari esker, Salgaien Hiri Banaketa (SHB) erregulatu ahal izango da hiria egituratzen duen sarearen gainean, quick-commerce-a kontrolpean mantenduz. Horretarako, ibilgailu-sare nagusian bermatuko den banaketa-sare bat planteatzearen estrategia garatu beharko du Planak, sare horretatik abiatuta, banaketa mugikortasun jasangarriaren bidez egiteko.

La jerarquización de la red rodada interna permitirá también poder regular la Distribución Urbana de Mercancías (DUM) sobre la red gris que estructura la ciudad sin dejar a que el quick-commerce se ordene espontáneamente. Para ello el Plan deberá desarrollar la estrategia para dirigir el posicionamiento de una red de distribución urbana de mercancías constituida apoyada en la red principal de la red rodada principal a partir de la cual la distribución se lleve a cabo a través de una movilidad sostenible.







## 4. Etxebizitzaren proiektua behar bezala dimentsionatzea

Plan Orokor berriaren bizitegi-proiektuko dimentsionamenduaren aldeko apustua **hazkunde-eredu mugatu, trinko eta kalitatezkoan oinarritzen da. Horrek esan nahi du "bizitzeko hiri bat"** aukeratu behar dela, bizileku onaren protagonismoa aldarrikatuz, bai hiri finkatuan, bai hazkunde berrietan; arreta berezia jarri behar zaie aisialdiari (espazio zibikoak, espazio naturalak, kultura-espazioak, kirol-espazioak), merkataritzari (kanpoko kokapen eta aniztasunari erreparatuta) eta mugikortasunari (barruko eta kanpoko).



Plan berriak bere egiten ditu Donostiako herritar guztiek etxebizitza eskuratzeko duten eskubidearen bermeari buruzko **printzipioak** eta hiriaren hazkunde-ereduari buruzko jasangarritasun-printzipioa. Izan ere, eredu horrek, besteak beste, **hazkunde trinko eta orekatuko eredu bat hartzea eskatzen du**, arrazoizkoagoa den eraikigarritasuna eta lurzoru-azalera txikiagoa okupatzea etorkizuneko etxebizitza-beharrei erantzun ahal izateko.

Illo horretatik, Planak errespetatu egiten ditu lurraldearen ahalmenak arkitektura-kantitate jakin bat eusteko, eta, horretarako, indarrean dagoen bitartean izan dezakeen etxebizitza-eskariari erantzuteko aukera emango duen estaldura-tartea emango duen eskaintza bat eskainiko du. Horretarako, etxebizitzarako behar adinako lurzoru-eskaintza izango du, bizitegi-eskari potentzialaren eta lurzoruaren prezioa garestitzearen ondorioz Donostiako biztanleen bizilekuarekiko eragin negatiboa izan dezaketen gehiegizko marruskadurak ez eragiteko.

## 4. Dimensionar de forma adecuada el proyecto de la vivienda

La apuesta del nuevo Plan General respecto al dimensionado del proyecto de la vivienda se basa en **un modelo de crecimiento acotado, compacto y de calidad, esto supone asumir la opción por "una ciudad para vivir"**, con un protagonismo por la buena residencia, tanto en la ciudad consolidada como en los nuevos crecimientos; con especial atención al ocio (espacios cívicos, espacios naturales, espacios culturales, espacios deportivos), al comercio (atendiendo a la diferente posición y variedad del mismo) y a la movilidad (interior y exterior).



El nuevo Plan hace suyos los principios sobre la garantía del derecho del acceso a la vivienda para el conjunto de la población de Donostia / San Sebastián y el principio de sostenibilidad respecto al modelo de crecimiento de la ciudad, que entre otros criterios, implica la adopción de un **modelo de crecimiento compacto y equilibrado, de densidades más razonables**, y que tiende a ocupar una menor superficie de suelo para poder dar cobertura a las futuras necesidades de vivienda.

En este sentido el Plan está atento a respetar las capacidades del territorio para incluir una determinada cantidad de arquitectura, modelando una oferta que pueda dar un margen de cobertura que permita atender la potencial demanda de vivienda durante su periodo de vigencia, disponiendo de una oferta de suelo destinado a la vivienda suficiente, para que la potencial demanda residencial no genere derivadas que puedan incidir negativamente en el encarecimiento del precio del suelo y, como consecuencia, afectar a la capacidad de acceso a la residencia por parte de los vecinos de Donostia / San Sebastián.





Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko etxebizitzaren eskaintza garatuko den ildo nagusien alderdi nagusiak egungo baliabideak optimizatzeko faktoreei eta antolamendu berrien kokalekuen hiri-espazioaren kalitatearen hobekuntza orokorrari arreta handiagoa emateari begira planteatzen dira. **Laburbilduz, hauek dira HAPO berriaren ereduak definitzen dituzten ardatz edo jarduera-ildo nagusiak:**

- **Barneko kalifikazioa aldatzeko apustu sendoa.** Erreferentzia-esparru orokor bat definitu behar da, egungo hiriaren barruan "hiria berregitea" dei dezakegun horretan oinarritua.
- **Eskaintza osagarria bizitegitarako lurzoruetan,** etorkizunean egingo den etxebizitza-merkatu baten beharrezko tartea behar bezala bete ahal izateko. Tarte hori handitu egin beharko da, hiriguneko eremua modu logikoan agortzen delako.



- **Indarrean dagoen plan orokorraren egungo erreferentzia-markoari eustea** hiria eraikitzeko dokumentu egoki eta baliagarri gisa, indarraldiko urte hauetan izan den bezala.
- **Arreta berezia eskaintzea egungo etxebizitza-parkea birgaitzeari eta berrerrabiltzeari,** lehendik dagoen bizitegi-multzoa eraberritzeko eta hobetzeko neurriak ezarri, eta, aldi berean, alokairuko etxebizitzaren eredu zentzuzko aukera gisa sartuz neurritzeko eta hedagarriak ez diren aukeretara egokitu nahi den plan baten barruan.

Los aspectos que definen las líneas maestras en las que se desarrollará la oferta de la vivienda del Plan General de Ordenación Urbana, se plantean atendiendo a factores de optimización de los recursos actuales y a una mayor atención en la mejora general de la calidad del espacio urbano en el que se localizan. En resumen, **los principales ejes o líneas de actuación** sobre los que se definen los modelos del nuevo PGOU, son los siguientes:

- **Una apuesta decidida por la recalificación interior.** Se trata de definir un marco de referencia general fundamentado en lo que podríamos llamar "rehacer ciudad" dentro de la ciudad actual.
- **Una oferta complementaria en los suelos de extensión residencial** que permita cubrir con suficiencia el margen necesario de un futuro mercado de vivienda que debe tender a incrementarse por un lógico agotamiento del espacio del área central urbana.



- **El mantenimiento a grandes rasgos del marco de referencia actual del vigente Plan General** como un documento adecuado y válido para la construcción de la ciudad tal como lo ha sido en estos años de vigencia.
- **Una atención particularizada a la rehabilitación y reutilización del parque de viviendas actual,** implementando medidas que favorezcan la reforma y mejora del conjunto residencial existente, y a la vez incorporando el modelo de la vivienda de alquiler como una opción coherente dentro de un plan que se quiere ajustado a las opciones para el crecimiento medido y no extensivo.



- Azkenik, Planak neurri egokiak eta beharrezkoak aurreikusten ditu, haren eskaintza orokorrean **etxebizitza publikorako jardueren sustapena bermatuko dutenak, modalitate guztietan,** berme osoz erantzun ahal izateko hiriaren egungo gizarte-errealitatean dauden beharrian eta aukera guztiei.

**Planaren apustua, argi eta garbi, barne-hazkundearen aldeko apustua da, hiria dagoen tokian hiria egitea eta zerbitzu eta zuzkidura publikoak izatea.** Hiri-birziklapenaren eta barne-hazkundearen aldeko apustua lurzoru urbanizagarriaren sektoreetan jarritako lurzoru kopuruan islatzen da; izan ere, sektorearen azalerari dagokionez, eraldaketarako bizitegi-lurzoruen eskaintza osoaren herena baino zertxobait gehiago dira (lurzoru osoaren % 35,85 eraldaketa-jarduketetan), eta planak eskaintzen dituen etxebizitza berrien ehunekoari dagokionez, ez dira heren batera iristen, % 27an geratzen dira.

Etxebizitzaren eskaintza kualitatiboari dagokionez, **Plan Orokorrean** aurrerakinak etxebizitza sozialaren aldeko apustu argia egiten du; izan ere, guztira, **12.038 etxebizitza berrien eskaintzatik, gutxienez % 53,46 babestutako etxebizitzak izango dira, eta gehienez % 46,54 etxebizitza libreetara bideratu ahal izango dira.**



- Finalmente el Plan prevé las medidas oportunas y necesarias que garanticen, en el conjunto de la oferta general del mismo, **el fomento y la promoción de actuaciones destinadas a la vivienda pública en sus diferentes modalidades,** con la finalidad de poder atender, con garantías, el amplio abanico de necesidades y de opciones presentes en la realidad social actual de la ciudad.

**La apuesta del Plan es claramente una apuesta por el crecimiento interior, es hacer ciudad allá donde ya existe la ciudad y está dotada de servicios y dotaciones públicas.** La apuesta por el reciclaje urbano y el crecimiento interior se refleja en la contenida cantidad de suelo puesto a disposición en los sectores de suelo urbanizable, que en términos de superficie de sector se sitúan en poco más de un tercio de la oferta total de suelos residenciales de transformación (un 35,85 % del suelo total en actuaciones de transformación) y que en términos de porcentaje de nuevas viviendas que ofrece el Plan, no llega ni a un tercio y se queda escasamente en un 27 %.

Por lo que respecta a la oferta cualitativa de viviendas, **el Avance del Plan General hace una apuesta clara por la vivienda social,** ya que en el conjunto, **de la oferta total de 12.038 viviendas nuevas, un mínimo de 53,46 % serán viviendas protegidas,** frente a un máximo del 46,54 % que se podrán destinar a viviendas libres.



## 4.1. BIZITEGI-PROIEKTUAREN EREDUA ETA ESKAINTZA PLANEAN

Hiri-antolamenduko Plan Orokorra hirigintza-dokumentu nagusia da, eta bertan ezartzen da hurrengo urteetan Donostiako udalerriko etxebizitzaren udal-mailako estrategia garatzeko erreferentzia-esparrua.

Bilakaera demografikoari buruzko ziurtasunik eza eta hazkunde berriak hartzeko lurzoru erabilgarriaren izaera mugatua direla eta, gaur egun, eta oro har, Euskadi osorako, paradigma aldaketa ematen ari da, plangintza orokorrarekiko eta, bereziki, hirien neurriarekiko. **Baldintza berezi horrek hirigintza mota berri bat planteatzera garamatza, eta, tradiziozkoa ez bezala (“eskariari estaldura ematea”), “eskaintza modu eraginkorrean kudeatzea” du oinarri.** Hala, Planak egingo duen proposamena, etxebizitzei eta jarduera ekonomikoari dagokienez, modu kuantitatibo eta kualitatiboan, udalerraren garapen-egoera desberdinei aurre egiteko tresna izango da.

Hazkunde demografiko hori udalerraren dinamikotasun esanguratsu baten potentzial gisa eta etxebizitza nagusien antzeko ehunekoei eustean oinarritzen da. Aurreikuspen demografikoei dagokienez, esan behar da ez dagoela ziurtasunik udalerriko etorkizuneko biztanleriari dagokionez, erkidegoko beste udalerrri batzuekin gertatzen den bezala; izan ere, egungo hazkunde naturalak nahiko ongi eusten dio biztanleriari, eta migrazio-mugimenduen mende dagoen hazkundeak, egungo egoera ekonomikoarekin batera, ziurgabetasun handia du.

1. **El distrito Este** más Gros y Ategorrieta, que incluye los ámbitos situados en el corredor este, correspondiente a distrito este (Altza, Intxaurren, Mirakruz-Bidebieta) y los barrios de Gros y Ategorrieta-Ulia.
2. **La vega del Urumea** que se corresponde con las actuaciones de los barrios que conforman la vega del Urumea: Amara, Amaraberri, Loiola, Martutene.
3. **El corredor de Añorga**, este grupo lo forman los ámbitos que se sitúan entre los barrios Añorga, Antigua-Ondarreta e Ibaeta a lo largo del eje del río Añorga.
4. **El corredor transversal** que será el grupo formado por los ámbitos de oportunidad surgidos de la reestructuración de la variante una vez se lleve a cabo el bypass.
5. **Y finalmente lo que hemos venido en llamar constelación de ámbitos residenciales** que es el ámbito conformado por diversos ámbitos que no se pueden relacionar en ninguno de los anteriores grupos.

La propuesta de crecimiento residencial del Avance de Plan se estructura en base a las diferentes Unidades de Planificación Residencial (UPR) que se describen a continuación.





## 5. Jarduera ekonomikoen dibertsifikazioa, konplexutasuna eta areagotzea

Argitaratutako adierazle berrienen arabera, **Donostia Espainia osoko hiri adimendunen zerrendako laugarren postuan dago, eta Euskadiko lehenengoan. Horrek lotura zuzena du ezagutzen oinarritutako ekosistema baten pixkanakako garapenarekin eta berrikuntzan eta 4.0** Industriaren eredua ezartzeko azken urteotan emandako bultzadarekin. Zalantzarik gabe, datozen urteetan, dinamika horrek jarraituko du, gero eta intentsitate handiagoarekin. Hori dela eta, hiriaren hirigintza-plangintza orokorrean jasotako lurralde- eta hiri-eredua berrikusi behar da, bai eta hura egokitu eta doitu ere, aldaketa-prozesu horri behar bezala laguntzeko.

Deskribatutako egoeran, **izaera estrategiko zein proiektualak, Plan Orokor berriaren jarduera ekonomikoen proiektua gidatu eta definitzen dute.** hauek dira:

- **Bizitegi-hiria ekoizpen-hiria ere bada.** Jarduera ekonomikoen eta enplegu-jardueren ehuneko handiena bizitegi-hiriaren zati batean aurkitzen da. Funtzioen hibridazioa aspalditik dago hiriko zenbait gunetan, eta Erdialdea, Amara, Gros, Antigua-Ondarreta edo Ibaeta bezalako eremuetan hiri mistoaz hitz egin behar dugu dagoeneko. Hala ere, gainerako auzoetako ekoizpen-sarea, batzuetan beste batzuetan baino gehiago, sufritzen ari denez, **Planak jarduera ekonomikoaren ezarketa ahalbidetu eta erraztuko du, batez ere behe-solairuetan, udalerrri osoan hiri heterogenoaren eredua indartuz.**
- **Jarduera produktiboetarako lurzoru berriaren kalifikazioa ez da jarduera ekonomikoetarako proiektuaren proposamenaren oinarritzko ezaugarria.** Funtsean, eraikita dagoen hiritik sortzen da, lehendik dauden jarduera-eremu eta -espazioetatik, zein urbanizazioaren eta komunikazio-azpiegituren ondorioz aurretik okupatuta dauden lurzoruetatik.
- **Gaur egun indarrean dagoen planak,** Aldirietan, komunikazio-azpiegituretatik hurbil eta bizitegi-funtziotik bereizita kokatzen diren jarduera-eremuen inguruan **duen proposamena onartzen da,** baina horien birkualifikazioa eta eraginkortasuna sustatzen da.


## 5. Diversificación, complejidad e intensificación en las actividades económicas

De acuerdo con los indicadores más recientes publicados, **Donostia / San Sebastián se encuentra en la cuarta posición de ciudades inteligentes de todo España y la primera de Euskadi.** Ello está relacionado directamente con el **desarrollado paulatino de un ecosistema basado en el conocimiento, la innovación y el impulso dado estos años a la implantación del modelo de Industria 4.0.** Sin duda, esta dinámica continuará, y cada vez con mayor intensidad en los próximos años, lo que obliga a una revisión del modelo territorial y urbano plasmado en el planeamiento urbanístico de la ciudad y su adaptación y ajuste, al objeto de acompañar adecuadamente este proceso de cambio.

En el escenario descrito, **las ideas de carácter estratégico-proyectual que inspiran y definen el proyecto de las actividades económicas del nuevo Plan General son las siguientes:**

- **La ciudad residencial es también ciudad productiva.** El mayor porcentaje de actividades económicas y de empleo se localiza en una parte de la ciudad residencial. La hibridación de funciones hace tiempo que existe al punto de que en ámbitos concretos como Erdialdea / Centro, Amara, Gros, Antigua-Ondarreta o Ibaeta, debemos hablar ya de ciudad mixta. Sin embargo, el tejido productivo en el resto de barrios, en algunos más que en otros, está sufriendo por lo que **el Plan apostará por posibilitar y facilitar implantaciones, especialmente en las plantas bajas, potenciando a lo largo de todo el municipio, el modelo de ciudad heterogénea.**
- **La calificación de nuevo suelo para actividades productivas no es la variable principal que sustenta la propuesta del proyecto para actividades económicas.** Esta emerge fundamentalmente de la ciudad ya construida, de las áreas y espacios de actividad ya existentes y de los suelos ya intervenidos, sea por la urbanización o por las infraestructuras de comunicaciones.
- **Se asume el modelo heredado del Plan vigente** caracterizado por espacios de actividad en la periferia, cerca de las infraestructuras de comunicaciones y separados de la función residencial, pero se interviene en ellos en busca de su recualificación y eficiencia.





Jarduerak guztira behe oinean, 100 m-ko radio batean

Total actividades en Planta baja en un radio de 100m

1	1
100	100

Jarduerak hiri-bilbean  
Actividades en la trama urbana

Hirigunea  
Área urbana

Eskala A3 1/25.00  
Escala



- **Ezarpen berrien proposamenerako, gaur egungo hiri-ehuna erabiltzea proposatzen da, lehendik dauden eta hiri-traman kokatzen diren lurzorua erabiliz**, eta beste erabilera batzuekin, bizitegi erabilera barne, bizikidetzaren bermatuz.
- Esan bezala, **plan berriaren logikak lehendik dagoen hiria berreraerabiltzeko irizpideekin lan egiten du**, honako hauetan zehaztuta: hiri-berroneratzea (Igara), erabilera areagotzea, bertikalki nahiz horizontalki (Miramon eta 27. poligonoa), funtzioak areagotzea (Illunbe) eta lurraldea birziklatu eta birmoldatzea (Herrera eta Txingurriagaña). Proposamen horiek guztiak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamendurako artezpideetan (LAG) ezarritakoarekin bat datoz.
- Etxebizitzaren proiektuaren ildo beretik, **jarduera ekonomikoaren proiektuak ere aniztasuneko, heterogeneotasuneko eta konplexutasuneko irizpideak ditu ezaugarri**.

Lehen aipatutako estrategiaren ezaugarri dira **aplikazio-premisa hauek**:

- **Lurzoru naturalaren eragina eta kontsumoa nabarmen murriztea proposatzen da**. Plan Orokorren irizpide nagusia ingurune fisikoaren ondasun preziatu eta mugatu gisa babestea baita.
- **Halaber, nekazaritza eta abeltzaintza jardueren ekonomikoaren proiektuaren zati gisa hartzea proposatzen da**, itxuraz exogenoak diren baina proposatzen den antolamendu ereduaren ideiarekin bat datozen arrazoiengatik. Hona hemen horietako batzuk: lurraldean izaera egiturazaila duten lurzorua dira (gogoan izan udal-azaleraren % 17 hartzen dutela); udalerrira deskribatzen duen mosaiko organikoaren oinarritzko zatia dira; Donostiako paisaia definitzen dutenak eta kulturaren eta tradizioaren oinarriak dira; hirilurraren kontrapuntua da, ingurune naturala zaintzen laguntzen dute, balio natural handiko eremuen eta elementuen erabilera bateragarri onena baitira; udalerriko elikagai-auto-hornikuntza ere laguntzen dute.
- Jarduera ekonomikorako **egungo esparruak indartu nahi dira, erabilera eta lurzoruaren erabilpena areagotuz**, hiriaren eraginkortasuna hobetu nahi da.
- Dagoeneko urbanizatuta dauden eremuak osatu nahi dira, baita bizitegiak ere, erabilera aniztasun eskasak dakartzan ondorio negatiboak arintzeko.
- **Zentralitate berriak** proiektatzen dira, batez ere aldirietako hiri-ehunetan.
- **Ehunak eta jarduerak sakabanatzea saihesten da**.
- **Hiriko auzoen arteko oreka ekonomikoa nahi da**. Funtzioak ondo banatzen dituen hiria bidezkoagoa eta kalitate handiagokoa da.
- Epe laburrean aldaketak egiteko malgutasuna eta gaitasuna ahalbidetu nahi da.
- Erabilera, **funtzioen eta sistemen hibridazioa ere erraztu nahi da**.
- Ezagutzan, teknologian eta berrikuntzan, Donostia dinamismo handiena duten hirien artean bereizten duten **jardueren klusterra** bultzatzea.
- **Jarduera-kluster berriak erakarriko dituen** eta inbertsioa eta enpresen-sorkuntza erraztuko duten **talentua eta adimena** erakartzea.
- **Turismo-jardueren lehen mailako sektore ekonomiko estrategikotzat** hartzea.
- Plan Orokorren arauari dagokionez ere, interesgarria izango da ekoizpen-erabilera birdefinitzea eta jardueren ekonomiko eta produktiboak antolatzeko eta garatzeko moduekin eta behar berriekin lerrokatzea.

- **Para el caso de nuevas implantaciones, el nuevo Plan pretende introducirlas en el tejido urbano ya existente o aprovechando suelos ya intervenidos y que son intersticios de la trama urbana actual**, forzando su coexistencia con otros usos, incluso con el uso residencial.
- Como decimos, **la lógica del nuevo Plan opera con criterios de reutilización de la ciudad existente**, concretados en actuaciones de regeneración urbana (Igara), de intensificación de usos tanto en horizontal como en vertical (Miramon y Polígono 27), de redensificación de funciones (Illunbe) y de reciclado y reconversión del territorio (Herrera y Txingurriagaña), presupuestos todos ellos alineados con lo establecido en las directrices de ordenación territorial del País Vasco (DOT).
- En la misma línea que el proyecto de la vivienda, el de **la actividad económica también está caracterizado por criterios de diversidad, heterogeneidad y complejidad**.

La estrategia antes esbozada se caracteriza por las siguientes **premisas de aplicación**:

- **Se propone reducir sustancialmente la afectación y consumo de suelo natural**. Es criterio principal del Plan General salvaguardar el medio físico como bien preciado y finito.
- También **se propone la consideración de la actividad agrícola y ganadera como parte del proyecto de la actividad económica**, motivado en razones aparentemente exógenas pero alineadas con la idea del modelo de ordenación que se propugna. Algunas de ellas son las siguientes: son suelos que tienen un carácter eminentemente estructurante en el territorio (recuérdese que ocupan el 17% de la superficie municipal); son parte básica del mosaico orgánico que describe el Municipio; son definidores del paisaje y herederos de la cultura y la tradición de Donostia / San Sebastián; ponen el contrapunto a la ciudad urbana; ayudan a preservar el medio natural pues son el mejor uso compatible de los ámbitos y elementos de alto valor natural; contribuyen también al autoabastecimiento alimentario del municipio.
- Se intenta potenciar los actuales ámbitos destinados a actividad económica, intensificando los usos y dando mayor aprovechamiento al suelo. Se pretende optimizar la eficiencia de la ciudad.
- Se aspira a complejizar las áreas ya urbanizadas, también las residenciales, con el objetivo de atenuar los efectos negativos que se derivan del monouso.
- Se proyectan **nuevas centralidades**, especialmente en los tejidos urbanos periféricos.
- **Se evita la dispersión de tejidos y actividades**.
- **Se ambiciona el reequilibrio económico entre los diferentes barrios de la ciudad**. Una ciudad equitativa en lo funcional es una ciudad más justa y de mayor calidad.
- Se pretende posibilitar la flexibilidad y capacidad de realizar cambios en el corto plazo.
- También se quiere **facilitar la hibridación de usos, funciones y sistemas**.
- Potenciar los **clúster de actividades** que singularizan a Donostia / San Sebastián como una de las ciudades de mayor dinamismo del estado en conocimiento, tecnología e innovación.
- **Atraer talento e inteligencia que desarrolle nuevos clúster de actividad** y con ello inversión y emprendimiento.
- Considerar **la actividad turística como sector económico estratégico de primer orden**.
- También, en cuanto a la normativa del Plan General, resultará de interés redefinir los usos productivos y alinear aquella con los modos de organización, desarrollo y necesidades de las actividades económicas.



Azken batean, bai hiri mailan, bai espazio sozial edo pribatiboetan, **malgutasuna eta zeharkakotasuna izango dira ekonomia-errealitate hibrido eta aldaketa etengabe dagoen funtsezko faktoreak**, eta hirigintza-plangintzak ezin du hori alde batera utzi. Lanak espazio zehatz batekin gero eta lotura gutxiago duela pentsatu behar da. Pixkanaka-pixkanaka, beharrezkoa den lekutik, moduan eta momentuan lan egitea ahalbidetzen duten kokalekuetako ekosistemak ezartzen ari dira. Gizatiarragoak eta pertsonalatuagoak, teknologiaren, jasangarritasunaren eta diseinu eta ekipamendu balioaniztun, birkonfiguragarri eta moldagarriaren bidez eta erabilgarri dagoen espazioa ahalik eta gehien optimizatzeko eta errentagarri bihurtzeko pentsatuak dauden Lan-eremuak bilatzen dira.

## 5.1. INDUSTRIA-LURZORUTIK JARDUERA EKONOMIKOAREN ESKAINTZA DIBERTSIFIKATURA

Plan Orokor berriak erantzun behar dion egoera sozioekonomikoa, indarrean dagoen planak aurrean zuen egoeratik oso ezberdina da. Zalantzarik gabe, plangintzak gizarteari ematen dion erantzuna, lurzoru natural berriaren sailkapenaren bidez hiria hazteko eta zabaltzeko konponbide tradizionaletatik at kokatu behar da. **Erabilera eta jarduera berriak eskatzen dituen, teknologian oinarritutako ekoizpen-errealitate berri bat sortzen ari da**, eta, hirigintzaren ikuspegitik, jarduera ekonomikoaren espazioaren kontzeptua birdefinitzen duena.

En definitiva, tanto a nivel de ciudad como en espacios sociales o privados, **la flexibilidad y la transversalidad van a ser los factores claves de una realidad económica híbrida y en constante cambio**, escenario que el planeamiento urbanístico no puede obviar. Hay que pensar que el trabajo cada vez está menos asociado a una única ubicación. Se imponen poco a poco los ecosistemas de localizaciones que permiten trabajar desde, cómo y cuándo se necesite. Entornos más humanos, seguros y personalizados, definidos por la tecnología, la sostenibilidad y un diseño y equipamiento polivalente, reconfigurable y versátil que permita optimizar y rentabilizar al máximo el espacio disponible.

### 5.1. DEL SUELO INDUSTRIAL A LA OFERTA DIVERSIFICADA DE LA ACTIVIDAD ECONÓMICA

El escenario socioeconómico al que debe dar respuesta el nuevo Plan General es sustancialmente diferente al que inspiró el vigente. Sin duda, nos encontramos ya inmersos en un tiempo nuevo donde las soluciones tradicionales de crecimiento y expansión de la ciudad mediante clasificación de nuevo suelo natural, no pueden seguir siendo la respuesta que la planificación urbanística da a la sociedad. **Se está imponiendo una nueva realidad productiva basada en la tecnología**, que demanda nuevos usos y actividades y que desde el punto de vista urbanístico, redefine el concepto de espacio de actividad económica.

Jarduera ekonomikoa aldaketa azkarreko prozesu bat jasaten ari da, dibertsifikatu eta ongibanaturantz, manufaktura aurreraturantz edo industria adimendurantz (manufaktura 4.0), birziklatzearen eta konpontzearen eraginkortasunari bideraturako ekonomia zirkularerantz, kultura-, entretenimendu- eta aisialdi-ekoizpen-eremuak, diseinuari eta sorkuntzari lotutako sektoreetako enpresa txiki eta ertainerantz. Era berean, aldaketak jasaten ari dira harreman eta lan egiteko modu berriak merkataritzan eta banaketa-arloan, zerbitzu profesioaletan, finantzarioak eta ezagutzaren ekonomia-arloarekin zerikusia duen guztian, elikagaiak ekoizteko moduak eta beren prestaketan eta aurkezpenean berrikuntzak, non eskarrieko ekoizpena eta tendentziatara eta gustuetara egokitzeko beharrezko gaitasuna ezinbestekoak diren produkzio-prozesuan. Horrek guztiak, eredu berritzaileak behar ditu logistikan (metaketa-biltegiak eta azken milia), eta, horretarako, nahitaez jasangarriak izan behar diren mugikortasun-eredu berriak behar dira, baita banaketa-sistema eraginkorrek ere. Horrekin batera, utilitien sistemak ezinbestekoa den elkarrekintza eta beharrezko ekoizpena, biltegiatzea eta banaketa kontuan izan behar da.

**Jarduera ekonomikoa egiteko eredu berri horiek finantza-merkatuak ere aldatzen ari dira; izan ere, egindako inbertsioak diru-itzulkinak bilatzeaz gain, ezartzen diren lurraldeetako agenda sozialen eta ingurumen-agenden garapenean eragitea eta laguntzea ere bilatzen dute**, errentagarritasun ekonomikoa beste baldintza batzuen menpe badagoela jakinda. Beste onura batzuk, inklusiboagoak eta tokiko agendei lotuagoak, espazioen hobekuntza integralari lotuak, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik baloratzen dituen kontzientzia enpresarial eta finantzario berri bat da.

Horrek guztiak zuzenean eragina du jarduera ekonomiko eta produktiboak antolatzeko moduetan eta, horren ondorioz, jarduera horiek hartzen dituzten espazioen plangintzan eta kontzepzioan. **Lan- eta ekoizpen-espazio horiek dibertsifikatzeko beharra planteatzen da, fabrikazioa tipologia mistoekin, hala nola: ideiak eta produktuak garatzeko zerbitzuekin, langileari laguntzeko eta hura osatzeko zerbitzuekin, zuzkidurekin, administrazioarekin, herritarrentzako zerbitzuekin, aisialdirako eta jolaserako guneekin, osasun-, kultura- eta kirol-zerbitzuekin, eta bizitegi-erabilerekin nahastuko dituen.**

La actividad económica está sufriendo un proceso de cambio acelerado hacia una economía diversificada y bien distribuida, basada en pequeñas y medianas empresas dedicadas a sectores relacionados con la manufactura avanzada o industria inteligente (manufactura 4.0), de desarrollo de la economía circular dedicadas a la eficiencia del reciclaje y la reparación, la producción de contenidos culturales, de entretenimiento y ocio, el diseño y la creación. También las nuevas formas de relación y trabajo en el comercio y la distribución, los servicios profesionales, financieros y todo lo que tiene que ver con la económica del conocimiento, las formas de producción de alimentos e innovación en su preparado y presentación, donde la producción bajo demanda y necesaria adaptabilidad a las tendencias y gustos, son parte esencial del proceso productivo. Todo ello necesita de patrones innovadores en la logística (almacenes de acumulación y última milla), lo que precisa de nuevos modelos de movilidad que debe ser necesariamente sostenible, además de sistemas de distribución y reparto muy eficientes. A ello se suma la imprescindible interacción en el sistema de las utilities y su necesaria producción, almacenamiento y distribución.

Estos nuevos modelos de hacer actividad económica están modificando también los mercados financieros que no solo buscan retornos numerarios a la inversión realizada, sino también influir y colaborar en el desarrollo de las agendas sociales y ambientales de los territorios donde se implantan, sabedores de que la rentabilidad económica también se ve afectada por más variables que las meramente económicas. Se trata de una nueva conciencia empresarial y financiera que valora otro tipo de beneficios más inclusivos y ligados a las agendas locales, a la mejora integral de los espacios desde una perspectiva social y ambiental responsable.

Todo ello, tiene un impacto directo en los modos de organización de las actividades económicas y como consecuencia de ello, en la planificación y concepción de los espacios que las acogen. **Se plantea la necesidad de diversificar estos espacios de trabajo y producción con tipologías mixtas que entremezclen la fabricación con los servicios de desarrollo de ideas y productos, de apoyo y complemento a la persona trabajadora, con las dotaciones, con la administración, con los servicios a la ciudadanía, los espacios libres, de ocio y lúdicos, con los servicios de salud, culturales y deportivos, y en última instancia, también con el uso residencial.**



Toki-administrazioaren egitekoa, zalantzarik gabe, aldaketa horiek bultzatzea da. Alde batetik, hirigintza-plangintzaren eremuan, jarduera ekonomikorako espazio berri horiek sortzeak haiek arautzeko modua berrikustea planteatzen du. Besteak beste, bolumetrietan eta partzela eta eraikuntza antolatzen dituzten parametro guztien definizio formalean dagoen malgutasuna, jarduera ekonomikoak sistematizatzen dituen erabilera sistemaren zurruntasuna eta administrazio tramitazio prozesuak, aipatutako hiriaren estrategia berrira egokitzeko hausnartu behar diren elementuak dira. Bestalde, hirigintza-egikaritzaren eremuan, inoiz baino beharrezkoagoak dira kudeaketa-sistema misto publiko-privatuak, herri-administrazioetik jarduketan sustapena eta, bereziki, lurzorua udal-ondarearen dinamizazioa eta kargan jartzea, baita hiriko ekoizpen-espazioen jarraipena eta kudeaketa ere, politika ekonomikoa hirigintzarekin koordinatu eta bat etortzeko helburuarekin.

Zalantzarik gabe, erronka, udalerrian lehendik dauden esparruetatik eta hiri-ehunetik abiatuta, hiriko enplegu-mailari eta jarduera ekonomikoari eustea da. Euskadiko Hiri Agendak (Bultzatu 2050) lehentasun estrategikoei buruz adierazitakoaren ildotik, **hiri trinkoaren ereduak sustatu behar dira, hazkundearen aurrean berroneratzea lehenetsiz eta gutxiegi erabilitako hiri-lurzorua berreskurapena sustatuz**. Zehazki, hirigintza-plangintzari, jarduera ekonomikoari dagokionez, zuzenean eragiten dio **hiri dinamiko eta lehiakorrei buruzko 5. strategiak**. Aipatutako jardura-ardatzen artean, honako hauek dira interes handikoak:

- **Hiri-garapen ekonomikoa, lurzorua erabilera dibertsifikatuen logikatik**, hurbileko ekonomiarako espazioak sortuz eta lurzorua banaketa erabilera eksklusiboetarako egitea sahiestuz (merkataritzakoa, industriakoa, bizitegiakoa, hirugarren sektorekoa).
- **Gutxiegi erabiltzen diren industria-eremuak berreskuratzea, modernizatzea eta leheneratzea**, ekoizpen-erabileretarako lurzoru berria okupatu aurretik.
- **Teknologia- edo industria-parkeak bizitegi-guneetatik hurbil kokatzea**, mugikortasun jasangarriko ekimenen bidezko interkonexioa bilatuz.
- **Interkonexio logistikoa multimodala bultzatzea** (portuak, aireportuak, trena, errepideak), euskal ekonomia balio-kate globaletan txertatzen laguntzeko.
- **Hiri-merkataritza periferiako merkataritzaren aurretik lehenestea**, merkataritza-ekipamendu handien gehieneko azalera mugatuz.
- **Merkataritza- eta zerbitzu-jardura berriak irekitzearen bidez, behe solairuko lokalak aktibatzea**, espazio publiko seguruak eta jardura ekonomikoa sortuz.
- Turismoa euskal hirietan **jardura ekonomikoa sortzeko iturri gisa finkatzea**, haien ondorio ekonomiko eta sozialak kontuan hartuz.

Horren guztiaren ondorioz, jardura ekonomiko eguneraturako hiri-proiektuaren proposamena planteatu behar da. Plan Orokorra aipatutako aurrekontu estrategikoak errealitatera ekartzeko gai izan behar den plangintza-tresna da. Planaren eginbeharra baieztapen bakar batean laburbil daiteke: ekonomia berrirako espazio erakargarri eta erabilgarriak sortzea.

El papel de la administración local es sin duda el de favorecer estos cambios. Por un lado, en el ámbito de la planificación urbanística, la concepción de estos nuevos espacios para la actividad económica plantea la necesaria revisión de la forma de regularlos. Entre otros, la flexibilidad en las volumetrías y en la definición formal de todos los parámetros que ordenan la parcela y la edificación, la rigidez del sistema de usos que sistematiza las actividades económicas, los procesos de tramitación administrativa, son todos ellos aspectos que precisan una oportuna reflexión para adaptarlos a la nueva estrategia de hacer ciudad antes comentada. Por otro lado, **en el ámbito de la ejecución urbanística, se hace preciso más que nunca los sistemas de gestión mixtos público-privados**, el fomento de la promoción de actuaciones desde la administración pública y en especial, la dinamización y puesta en carga del patrimonio municipal de suelo. También el seguimiento y gerencia de los espacios productivos de la ciudad y todo ello bajo la premisa de coordinar y hacer coincidir la política económica con la urbanística.

Sin duda, el reto es mantener el nivel de empleo y actividad económica de la ciudad y ello, básicamente, a partir del sustrato de ámbitos y tejido urbano que ya existe en el municipio. En la línea de lo indicado por la Agenda Urbana de Euskadi (Bultzatu 2050) sobre prioridades estratégicas, **deben fomentarse los modelos de ciudad compacta y densa, primando la regeneración frente al crecimiento y recuperando el suelo urbano infrautilizado como prioridad**. Concretamente, a la planificación urbanística, en lo que compete a la actividad económica, se ve afectada directamente por la **estrategia 5 sobre ciudades dinámicas y competitivas**. De entre los ejes de actuación enunciados, son de gran interés al caso los siguientes:

- **Interpretar el desarrollo económico urbano desde la lógica de usos diversificados del suelo para la actividad económica**, generando espacios de economía de proximidad y evitando la segregación del mismo en usos exclusivos -comercial, industrial, residencial, terciario.
- **Poner el acento en recuperar, modernizar y regenerar zonas industriales infrautilizadas** antes de liberar nuevo suelo para los usos productivos.
- **Situar los parques tecnológicos o industriales en zonas próximas a las zonas residenciales**, buscando la interconexión a través de iniciativas de movilidad sostenible.
- **Favorecer la interconexión logística multimodal -puertos, aeropuertos, tren, carretera-** para facilitar la inserción de la economía vasca en las cadenas de valor globales.
- **Priorizar el comercio urbano sobre el comercio de periferia**, limitando la superficie máxima de los grandes equipamientos comerciales.
- **Activación de los locales de planta baja a través de la agilización y facilitación de la apertura de nuevas actividades comerciales** y de servicios, generando espacios públicos seguros y actividad económica.
- **Consolidar el turismo como una fuente de generación de actividad económica** en las ciudades vascas, atendiendo a sus efectos económicos y sociales.

Todo ello lleva a la necesidad de plantear una propuesta del proyecto urbano para la actividad económica actualizada. El Plan General es el instrumento de planeamiento que debe ser capaz de trasponer a la realidad inmediata los presupuestos estratégicos comentados. Podría llegar a resumirse su acción en una sola aseveración: generar espacios atractivos y útiles para la nueva economía.



## 5.2. JARDUERA EKONOMIKOEN PROIEKTUAREN KOKAPENA ETA DIMENTSIOA

Aurreko ataletan aurreratu bezala, jarduera ekonomikoetarako buruzko proposamenak Plan Orokorren esparruko hainbat eremutan du eragina. Alde batetik, nola ez, lurraldearen beraren eta hiri-sarearen gaineko eragina. Bestetik, Plan Orokorrek bere inguruan eraikitzen dituen plangintza, kudeaketa eta exekuziorako sistematika eta egitura arautzaileak birmoldatzea. Atal honetan lehenengo proposamena azaltzen da. Aipatutako bigarren alderdia, hurrengo ataletan garatzen da.

Plan Orokorrek lurralde-ekintzan hartzen duen eremuak lau eremutan oinarrituz proiektatzen da:

- Nekazaritzako eta abeltzaintzako lurzoru urbanizaezinaren kategoriari atxikitako lurraldea.
- Bizitegi-hiri finkatua.
- Etxebizitza proiektutik sortutako hiri berria.
- Jarduera ekonomikoan espezializatutako espazioak.

### NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINZAKO LURZORU URBANIZAEZIN KATEGORIARI ATXIKITAKO LURRALDEA

**Nekazaritza eta abeltzaintzako lurzoruak udalerriko jarduera ekonomikoaren sistemaren parte dira.** Bere zaintza eta jarraipena Plan Orokorren helburu estrategiko bat da, batez ere balio estrategiko handiko lurzoruak eta nekazaritza-ustiapen estrategikoak. Hortaz, lurzoru urbanizaezinaren proposamenak aintzat har daitezela mugatzen ditu. Plan Orokorrek dagokion erregulazioa garatuko du lurralde-legeriaren eta -plangintzaren esparruan, lurzoru horiek babesteko eta udalerriko lurralde-okupazioaren ereduaren bidez egituratze-zeregina indartzeko helburuarekin.

### ETXEBIZITZETARAKO HIRI FINKATUA

Bizitegi-hiriko jarduera ekonomikoa oso handia da auzo batzuetan, eta oso urria beste batzuetan. Ekialdeko eta mendebaldeko hirien arteko oreka funtzionala, Plan Orokorrek hiriaren estrategia globalean hartzen duen oinarritzko helburuetako bat da. Egoera hori kontuan hartuta, Plan Orokorren ekintza honako lan-alderdi hauetan gauzatzen da:

- **Erdialdeko auzoetako jarduera ekonomikoetarako atxikitako espazioa mugatzea (Parte Zaharra, Erdialdea, Gros, Antigua-Ondarreta).** Mugaketa horrek, muga ez esatearren, eragina izan beharko du bai espazio horizontalean, bai bertikalean. Ildo horretan, jarduera ekonomiko berriak ezartzearen alde, zuzkidura pribatuak eta bizitegia pixkanaka galtzeak, gehiegizko tertziarizazioa ekarri du hiriko alde honetan. Turismoak duen eragina aztertu da dagoeneko, eta udalak ekintza zehatzak abiarazi ditu hura zuzentzeko. Hala ere, gainerako jardueretarako dagokienez, Plan Orokorrek ere eragina izango du aipatutako problematikarekiko; izan ere, zalantzarik gabe, etxebizitzak, auzo horien oinarritzko funtzio nagusi gisa, bere osotasunaren eta iraupenaren defentsa sendoa izan behar du.

## 5.2. LOCALIZACIÓN Y DIMENSIONADO DEL PROYECTO DE LAS ACTIVIDADES ECONÓMICAS

Como ya se ha adelantado en apartados anteriores, la propuesta sobre actividades económicas afecta a varios ámbitos diferentes de la esfera del Plan General. Por un lado, no puede ser de otra manera, su acción sobre el propio territorio y tejido urbano. Por otro, la remoción de las sistemáticas y estructuras normativas de planificación, gestión y ejecución que el Plan General construye en torno a sí mismo. En este apartado se expone la primera de las propuestas. Los apartados subsiguientes desarrollan este segundo aspecto.

El ámbito de acción territorial del Plan General se proyecta sobre cuatro ámbitos:

- El territorio afecto a la categoría de suelo no urbanizable agroganadero.
- La ciudad residencial consolidada.
- La nueva ciudad surgida del proyecto de la vivienda.
- Los espacios especializados en actividad económica.

### EL TERRITORIO AFECTO A LA CATEGORÍA DE SUELO NO URBANIZABLE AGROGANADERO

**Los suelos agroganaderos son parte del sistema de actividad económica del Municipio.** Su preservación y continuidad es un objetivo estratégico del Plan General, especialmente los suelos considerados de alto valor estratégico y las explotaciones agrarias estratégicas. Sobre ello, la propuesta del suelo no urbanizable los delimita para su reconocimiento. **El Plan General desarrollará la regulación** correspondiente en el marco de la legislación y planeamiento territorial, **con el objetivo básico de salvaguardarlos y potenciar su eminente papel estructurante** en el modelo de ocupación del territorio del Municipio.

### LA CIUDAD RESIDENCIAL CONSOLIDADA

La imbricación de la actividad económica en la ciudad residencial es muy intensa en ciertos barrios, y muy anodina en otros. El reequilibrio funcional entre la ciudad oriental y occidental es uno de los objetivos que el Plan General asume como muy necesarios en la estrategia global de la ciudad. En atención a este escenario, la acción del Plan General se concreta en los siguientes aspectos de trabajo:

- **La delimitación del espacio adscrito a las actividades económicas en los barrios considerados centrales (Parte Vieja, Erdialdea, Gros, Antigua-Ondarreta).** Y esta delimitación, por no decir limitación, debe afectar tanto al espacio horizontal como vertical. En este sentido, la pérdida gradual y paulatina de dotaciones privadas y residencia a favor de la implantación de nuevas actividades económicas, ha supuesto una terciarización excesiva de esta parte de la ciudad. La afección del turismo ha sido ya contrastada habiéndose iniciado desde el Ayuntamiento acciones concretas para su corrección. No obstante, con respecto al resto de actividades, el Plan General también será sensible a la problemática enunciada, pues no cabe duda que la vivienda, como función básica y principal de estos barrios, precisa de una defensa convencida de su integridad y permanencia.



- **Auzoetako jarduera ekonomikoaren kontzentrazioa identifikatuz, auzo-bihotz deitutako gunek definitu dira,** bertan, beharrezkotzat jotzen da jarduerari eusteko aldeko baldintzak eta onurak eskaintzea. Auzo-bihotzek hiri-hierarkia eskainiko duen, baina batez ere, auzoan bizi den kolektiboarentzat bizitasuna eta giroa bermatuko duen zentro bat sustatu nahi dute. Planak, hurrengo faseetan, hiriko auzoetan jarduera ekonomiko ezartzeko eta mantentzeko lehenetsuneko eta egokiak diren baldintzak ezarriko ditu, bereziki ekialdean eta bizitegi-erabilera proportzio handia duten horietan: Altzan, Mirakruz-Bidebieten eta Ategorrieta-Uliaren ekialdeko korridorean, Loiola, Txomiñenea eta Martutene Urumeako ibarrean eta Aiete hiriko mendebaldean. Baldintza horiek hirigintza-jardunaren alderdi guztiei eragitea proposatzen da: erregulazioari, tramitazioari, hirigintzako betebeharrari, sustapenari eta dirulaguntzari.
- **Ekimen publiko-privatuko ekintza zehatzen beharra hiriko ekialdeko auzoetan.** Beharrezkoa da erakunde publikoetatik bultzatzea eta okupatzea, ekimen pribatua sustatzeko. Horri buruz, aurrerago, Plan Orokorra garatu beharreko proposamen zehatzak aipatzen dira, hala nola, auzo horietako jarduera-poloen kokapena zehaztea edo beheko solairuan dauden lokalen parkearen martxan jartzea, besteak beste.
- **Halaber, interesgarria da ekipamenduek herritarrentzako zerbitzuen erabilera berriak hartzeko duten zeregina berrikustea.** Eredu baten aldeko apustua egin da. Eredu horretan, Udalaren zuzkidura publikoak erabilera anitzeko espazioak ere izan daitezke, zerbitzuen eskaintza har dezaten, biztanleriarengandik hurbil dagoen hiri bat bultzatzeko eta, hartara, joan-etorri gainjarriak saihesteko. Coworking gunek, e-learning gunera sartzeko gunek, enpresa-haztegiak, osasunerako eta zaintzarako oinarriko zerbitzuak, kirola edo azken miliako edo mugikortasun partekatuko banaketa-zentroak. Zalantzarik gabe, espazio publikoak aldakortasunerako proiektatzea gainditu gabeko ikasgaia da.
- **La identificación de la concentración de la actividad económica en los barrios ha conducido a la definición de los que se han denominado corazones de barrio** donde se considera necesario establecer condiciones favorables e incluso privilegiadas para el mantenimiento de la actividad. Los corazones de barrio buscan potenciar un centro que proporcione jerarquía urbana pero sobre todo vitalidad y ambiente para el colectivo que habita en el barrio. El Plan en fases sucesivas trabajará el establecimiento de condiciones favorables e incluso privilegiadas para propiciar y mantener la implantación de actividad económica en los barrios de la ciudad, pero especialmente en los orientales y aquellos en los que existe un carácter marcadamente residencial: Altza, y Mirakruz-Bidebieta Ategorrieta-Ulia en el corredor Este, Loiola, Txomiñenea y Martutene en la Vega del Urumea y Aiete en el ámbito Oeste de la ciudad. Estas condiciones se propone que afecten a todos los aspectos de la práctica urbanística: a la regulación, a la tramitación, a las obligaciones urbanísticas, al fomento y la subvención.
- **La necesidad de acciones concretas de iniciativa pública-privada en los barrios del este de la ciudad.** Se hace preciso el impulso y la colonización desde lo público para el estímulo de la iniciativa privada. Sobre ello, se comentan más adelante propuestas concretas a desarrollar por el Plan General como son la ubicación de polos de actividad en estos barrios o la activación del parque de locales existentes en planta baja, entre otras acciones.
- **También se entiende de interés revisar el papel de los equipamientos para albergar nuevos usos de servicios a la ciudadanía.** Se apuesta por un modelo en el que las dotaciones públicas municipales puedan ser también espacios versátiles que acojan oferta de servicios al objeto de favorecer una ciudad de proximidad a la población que evita con ello desplazamientos superpuestos. Espacios de coworking, de acceso a e-learning, viveros de empresas, servicios básicos para la salud y los cuidados, el deporte, o centros de distribución de última milla o de movilidad compartida. Sin duda la proyección de los espacios públicos hacia la versatilidad y variabilidad es una asignatura pendiente.

#### ETXEBIZITZA-PROIEKTUTIK SORTUTAKO HIRI BERRIA

**Jarduera ekonomikoa, etxebizitzaren proiektuan ere badu garrantzia.** Aurreikusitako antolamenduak hiri-ehun mistoko eta dualtasun funtzionaleko eredu baten alde egiten du, lortu nahi den nahastura lortzeko jarduera ekonomikoko gunek sartzea proposatuz. **Bizitegi-sarean, jarduera ekonomikora bideratuko diren partzelak definitu nahi dira, bizitegi-eraikinetako beheko solairuetan aurreikus daitekeen hurbileko jardueratik haratago.** Polo horiei esker, bizitegi-jarduketan bizitasunean eragin positiboa duten jarduera ekonomiko espezializatuak egin ahal izango dira, udalerriko jarduera ekonomikoa hurbileko jardueren eta bizitegi-ehunetik kanpo kokatutako jarduera ekonomikoaren kontzentrazio-eremuen arteko tarteko eskaletan oinarrituz.

Aurreikuspen honek eskatzen du, planaren hurrengo faseetan garatuko diren antolamenduek ezarpen horiek formalki baimentzea eskatzen du, bai egingo den hiri-diseinuagatik, bai ezar daitezkeen izaera mistoko eraikinen formagatik.

Formulatutako estrategia jarraituz, bizitegi-hiri berriak jarduera ekonomikorako espazioak ere aurreikusten ditu. **Horrela, sortutako eraikigarritasun berriaren % 25, gutxi gorabehera, eginkizun horretarako erabiltzen da.** Zehazki, bizitoki-guneekin edo eraikuntzekin batera, 275.000 m<sup>2</sup>t aurreikusi dira. Azalera honek, bizitegi erabilerak ez diren beste hainbat jaso ahal izango ditu.

**Proposamen hori garrantzitsua da, Plan berriak jarduera ekonomikorako sortutako eraikigarritasun berriaren % 37 biltzen baitu.**

Aurrerapen honetako proposamen-planoetan jasotako iradokizun grafikoez eta etxebizitzari buruzko kapituluaren egindako gogoetaz gain, proiektatutako eraikigarritasun horren zehaztapena eta hiri-diseinuaren eredia Plan Orokorra zehaztuko ditu.

#### LA NUEVA CIUDAD SURGIDA DEL PROYECTO DE LA VIVIENDA

**También la actividad económica está presente en el proyecto de la vivienda.** La ordenación prevista aboga por un modelo de tejido urbano mixto y de dualidad funcional, proponiendo la inclusión de polos de actividad económica que permitan conseguir la mixtura perseguida. **Se trata definir parcelas de actividad económica en el tejido residencial más allá de la actividad de cercanía que se pueda prever en las plantas bajas de las edificaciones residenciales.** Estos polos posibilitarán la existencia de actividades económicas especializadas que incidan de manera positiva en la vitalidad de las actuaciones residenciales, permeando la actividad económica del municipio a escalas intermedias entre las actividades de cercanía y las zonas de concentración de actividad económica situadas fuera del tejido residencial.

Esta previsión exige que la ordenación que se desarrolle en fases sucesivas al Plan General permita formalmente estas implantaciones, tanto por el diseño urbano que se realice, como por la forma de las edificaciones de naturaleza mixta en las que se considere que se puedan implantar.

En aplicación de la estrategia formulada, la nueva ciudad residencial prevé también espacios para la actividad económica. **Así, aproximadamente, el 25 % de la nueva edificabilidad generada se dedica a esta función.** Concretamente se prevén del orden de 275.000 m<sup>2</sup>t que en coexistencia zonal o edificatoria con la vivienda, podrán acoger usos diversos no propiamente residenciales.

**Esta propuesta es relevante pues concentra el 37 % de toda la nueva edificabilidad generada para actividad económica en el nuevo Plan General.**

Más allá de las sugerencias gráficas plasmadas en los planos de propuesta de este Avance y las consideraciones realizadas ahora en el capítulo sobre vivienda, la concreción de esta edificabilidad proyectada y el modelo de diseño urbano serán precisados por el Plan General.





#### JARDUERA EKONOMIKOAN ESPEZIALIZATUTAKO GUNEA

Jarduera ekonomikoari buruzko proposamenaren laugarren dimentsioak, **kalifikazio funtzional produktiboa duten eremu eta espazioetarako, lurraldean aurreikusitako jarduketak zehazten ditu.** Zehazki, 2.300.000 m<sup>2</sup>-ko espazio batean esku hartzen da.

Dimentsio honetarako proposamena ondoko estrategien bidez egituratzen da:

- **Aurrerakinak, gaur egun izapidetze-prozesuan aurkitzen diren lurzoru batzuen antolamenduak barne hartzen ditu.** Hiriaren mendebaldeko korridorean finkatzen diren, Belartza eta Errekalde jarduera ekonomikoko guneko lurak dira. Indarrean dagoen Planean aurreikusita dagoen eta eskuragarri dagoen beste eremu bat dago Zubietaren inguruan, Bugati.

#### LOS ESPACIOS ESPECIALIZADOS EN ACTIVIDAD ECONÓMICA

La cuarta dimensión de la propuesta sobre la actividad económica concreta las actuaciones previstas sobre el territorio para **los ámbitos y espacios con calificación funcional productiva.** Concretamente se interviene sobre un espacio aproximado de 2.300.000 m<sup>2</sup>.

La propuesta para esta dimensión se estructura a través de **varias estrategias:**

- **el Avance asume algunos suelos cuya ordenación se encuentra en tramitación.** Se trata de los suelos de la zona de actividad económica de Belartza y Errekalde que consolidan ese foco en el corredor Oeste de la ciudad. Existe otro ámbito en el entorno de Zubieta, Bugati, ya previsto en el Plan vigente y que también se encuentra disponible.




# Jarduera Ekonomikoak Actividades Económicas



**Jarduera ekonomikoak hiri-bilbean**  
Actividad económica en la trama urbana

-  Auzo-lerotzak  
Corredores de barrio
-  Merkataritza-lerotzak  
Calleas comerciales
-  Merkataritza-lerotzen konektoreak  
Conectores de calles comerciales
-  Erdigunea  
Zona central

**Jarduera ekonomikoak bizitegi-eremu berrietan**  
Actividad económica en las nuevas áreas residenciales

-  Jarduera ekonomikoaren eremuak bizitegi-eremuetan  
Puntos de actividad en áreas residenciales

**Jarduera ekonomikoaren eremuak**  
Zonas de actividad económica

-  Jarduera ekonomikoaren eremu berriak  
Nuevas zonas de actividad económica
-  Aragoi-berrozetan bozakerako lehenbiziko jarduera ekonomikoaren eremuak  
Primeras zonas de actividad económica en áreas de actividad económica existentes



## Begirada Sektorialak Miradas Sectoriales



Hiri Antolamenduko Plan Orokorren Aurrerakina  
Avance del Plan General de Ordenación Urbana





- Gainera bi estrategia berri proposatzen dira:

- **Herrerako bide-sareko zoruen berrantolaketari buruzko jarduera ekonomikoko eremu berri bat aurreikustea**, hiriko alde horretako saihebidetako aurreikusitako izaera berriaren ondoriozkoa. Eremua Txingurriagañaren piezarekin osatzen da.

- **Igara, Illunbe, Miramon eta Torruazarreko (27. Poligonoa) jarduera ekonomikoko eremuen birprogramazioa.**

Bi estrategia horiek, **lehendik daudenak birkalifikatu eta lurralde berririk ez kontsumitzeko**, lurzoruak birdefinitzea defendatzen dute. Garrantzitsua da eragiten duen lurzoruaren sailkapena nabarmentzea; izan ere, proposamenaren % 4,19 baino ez dagokie gaur egun urbanizaezin gisa sailkatuta dauden lurzoruei, eta % 8,99 lurzoru urbanizagarriei. Esku hartu nahi den lurzoru gehiena gaur egun hiri-lurzorua eta komunikazio-azpiegiturek eragindako lurzorua da.

Era berean, Herrerako korapiloaren aurreikuspen berriak, Ekialdeko korridorean pixkanaka desagertu den jarduera ekonomikoaren lurralde-berronka bilatzera ere zuzentzen da. Eragiketa horrek berekin ekarriko du, bien funtzionamendu egokia bermatzearen, lurralde eta hiri eskalako bide-mugikortasuna berrantolatu eta berregituratzea. Gainera, aurreikusitako jarduera ekonomikoa antolatuz, eremu hori hirirako ate gisa eratzea eta arloen arteko sinergiak bultzatzeko, inguruko bizitegiko hiri-ingururari arreta handia jartzea proposatzen da. Testuinguru horretan, Txingurriagañan aurreikusitako erabilera bermatu ahal izango dituen antolamendu berria aurreikusten da.

Hurrengo faseetan, Planak Illunbe, Miramon eta 27. poligonoko birprogramazioa garatu beharko ditu, eremu horiek berrantolatzeko aukerak aztertuz; eraikigarritasuna areagotzeko irizpideekin, erabilera hibridazioa bizitegi-erabilera berriekin bateragarriak direnak (adibidez, coliving-a), aparkalekuetarako lurzoruaren optimizazioa (altuerako aparkalekuak jartzeko aukerak aztertuz). Igaran, planak mendebalderago dagoen jarduera ekonomikoaren eremua berrantolatzeko aukerak garatuko ditu, hiriaren ertzean, eta gaur egun estalita dagoen erreka eta ingurune naturalarekiko hobekuntza eta lotura egokiagoa aurkitzea planteatuko du.

Jarduera ekonomikoetara zuzendutako guneei buruzko proposamenaren neurri- eta kuantifikazio-taula erantsi dugu. Deskribapena eta iruzkina erantsitako proposamen-fitxetan egiten dira.

- Además, se proponen **dos nuevas estrategias**:

- **la previsión de una nueva zona de actividad económica sobre la reordenación de los suelos del nudo viario de Herrera** y que deriva del nuevo carácter previsto para la Variante en esta parte de la ciudad. El ámbito se complementa con la pieza de Txingurriagaña.

- **la reprogramación de las áreas de actividad económica de Igara, Illunbe, Miramon y Torruazar (Polígono 27).**

Ambas estrategias propugnan **la redefinición de suelos que permitan recualificar los existentes y no consumir nuevo territorio**. Resulta de importancia destacar la clasificación del suelo que se afecta, pues solo el 4,19 % de la propuesta corresponde con suelos que actualmente están clasificados como no urbanizables y el 8,99 % con suelos urbanizables. La mayor parte del suelo donde se propone intervenir es ya actualmente suelo urbano y suelo afectado por infraestructuras de comunicaciones.

Así mismo, la nueva previsión para el nudo de Herrera se dirige también a buscar el reequilibrio territorial de la actividad económica en el corredor Este donde esta ha ido paulatinamente desapareciendo. La operación supondrá reordenar y reconfigurar la movilidad viaria de escala territorial y urbana de modo que se asegure el funcionamiento adecuado de ambas y la conformación de esta zona como una puerta a la ciudad a través de la ordenación de la actividad económica prevista así como una cuidada atención a las conexiones con el entorno urbano residencial cercano que impulse las sinergias entre las diferentes áreas. Se prevé en este contexto también la nueva ordenación de Txingurriagaña que podrá apoyar los usos previstos.

En fases posteriores el Plan deberá desarrollar la reprogramación de Illunbe, Miramon y Polígono 27 analizando las posibilidades de prever una reordenación de estas áreas con criterios de intensificación de la edificabilidad, de hibridación de usos, de compatibilización con los nuevos usos residenciales (caso de coliving por ejemplo), de optimización de los suelos destinados a aparcamiento (estudiando las posibilidades de habilitar aparcamientos en altura). En Igara, el Plan desarrollará las opciones de reordenar el ámbito de actividad económica ubicado más al oeste, en el borde de la ciudad, planteando descubrir la regata actualmente entubada y una mejora y más adecuada conexión con el entorno natural.

Adjunto se incluye el cuadro de dimensión y cuantificación de la propuesta sobre los espacios especializados de actividad económica. Su descripción y comentario se realiza en las fichas de propuesta adjuntas.



Indarrean dagoen HAPOn aurreikusitakoa Previsto en PGOU vigente			
Eremua Ámbito	Azalera (m <sup>2</sup> ) Superficie (m <sup>2</sup> )	Erabilera / tipologia Uso / tipología	JErako aurreikusitako eraikigarritasuna (m <sup>2</sup> s) Edificabilidad prevista para AAEE (m <sup>2</sup> t)
Belartzagoia	209.735	Ekoizpen-jarduerak Actividades productivas	83.894
Errekalde	14.671	Ekoizpen-jarduerak Actividades productivas	10.480
Bugati	71.274	Ekoizpen-jarduerak Actividades productivas	30.000
Herrerako bide-sareko eta heren inguruko zoru berrantolaketa Reordenación de los suelos del nudo viario de Herrera y su entorno			
Eremua Ámbito	Azalera (m <sup>2</sup> ) Superficie (m <sup>2</sup> )	Erabilera / tipologia Uso / tipología	JErako aurreikusitako eraikigarritasuna (m <sup>2</sup> s) Edificabilidad prevista para AAEE (m <sup>2</sup> t)
Herrera	170.000	Ekoizpen-jarduerak Actividades productivas	198.000
Txingurriaga	98.000	Ekoizpen-jarduerak Actividades productivas	45.000
Egungo jarduera ekonomikoko eremuen birprogramazioa La reprogramación de zonas de actividad económica existentes			
